

HIZNET

Hizkuntza plangintzarako ikastaroa

Azken lana

Egilea: Pello Elorza Uribesalgo
euskaltea.azpeitia@azpeitia.net

2002ko iraila

Sarrera gisa

Lan hau, "Hiznet: Hizkuntza plangintzarako ikastaroa"ren amaierarako egin beharreko lana da.

Beste ezertan hasi aurretik, ikastaroari buruzko nire iritzia azaldu nahi nuke. Niretzat oso sakona eta mamitsua izan dela aitortu behar dut. Ni neu lanbidez euskara irakaslea izanik, soziolinguistikaren munduarekin izan dudana lehenengo kontaktua izan da eta aitortu behar dut ez zaidala erraza egin. Dena berria zen niretzat, *terra incognita* antzekoa eta hamabostean behin ikastunitatea jaso eta harek eskatzen zituen lanak burutzea ez da, ez, ahuntzaren gauerdiko eztula izan. Gainera, esparru honetan neofitoa izateak zailtasun-puntu bat gehiago jarri dio lanari eta zenbait unetan ia itoan ibili naiz. Eskerrak ikasgaiarekin batera halako *glosario* edo hiztegi labur argigarriak ere bazeuden, termino ezezagunak argitzeko-eta. Dena dela, eta zailtasun guztiak zailtasun, oso ikastaro interesgarri eta baliagarria, euskararen normalizazioarekin zerikusia duten gaien esparru zabala azaldu baitit. Eskerrak ikasgaien testuak eskura ditudan, berriro ere lantzean behin begirada bat bota beharko baitiet, zenbait gai hobeto ulertzeko.

Azken lan hau egiteko nire ideia hau izan da: ikastaroa osatu duten ikasgaien laburpena egitea, ahalik eta laburrena (nahiz eta zenbaitetan ez den oso erraza izan, oso luzeak eta mamitsuak zirelako), eta gero ikasgai horietako bakoitzaren iruzkin bat egin, gaiak sortzen zizkidan hausnarketekin eta, ondoren, ikasgai bakoitzak nire herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna ikustea eta horren gainean aritzea. Esan behar dut ez ditudala, hala ere, ikasgai guztiak komentatuko. Izan ere, Hiznet ikastaroa 20 kredituren inguruan zegoen antolatua, eta azken lan honentzat beste 5 kreditu zeuden jarriak. Hala, beraz, ezinezko zen ikastaroan eskaintzen ziren gai guztiak hartzea, guztiak hartuz gero 20 kredituak gainditu egiten baintuen eta, esan bezala, kopuru hori zen muga gisa jarria zegoena. Beraz, nahi eta nahiez aukeratu egin behar. Nik aukeratu ditudanak honako hauek izan dira:

- 1.- Soziolinguistikaren oinarriko kontzeptuak.
- 3.- Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko.
- 4.- Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak.
- 5.- Gizarte-sareen metodologia.

- 6.- Hizkuntza gutxituen lege estatusa.
- 7.- Iritzi publikoa, komunikazioa eta euskara.
- 8.- Euskal Herriko hizkuntza egoera: statusa.
- 9.- Euskalgintzaren nondik norakoak.
- 10.- Euskara eta teknologia berriak.
- 12.- Hizkuntza-adierazle sistemak.
- 13.- Diagnosirako egungo garapen teknikoak.
- 14.- Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra.
- 15.- Normalkuntza saioak administrazio publikoan.
- 16.- Esparruz esparruko mikroplangintzak.
- 17.- Hizkuntza normalkuntzarako plangintza estrategikoa.

Hamabost ikasgai neure kredituetarako aukeratuak. Batzuek laburrak izan dira, beste batzuek luzeak, zenbait oso teorikoak eta beste zenbait erabat praktikoak, gai batzuk hurbilagokoak eta beste batzuk unibertsalagoak. Denetik izan du ikastaroak eta, nire ustez, ondo orekatua izan da.

1

Lehenengo ikasgaia:

Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak.

Imanol Esnaola eta Maria Jose Azurmendi izan dira lehenengo ikasgai honen egileak. Bakoitzak atal bana egin du: Imanol Esnaolak eman digunak "*Soziolinguistika zer den. Ikusmira soziolinguistikoa: hizkuntza eta gizartea*" du izenburu; Maria-Jose Azurmendiren atalak, berriz, "*Soziolinguistika zer den. Ikusmira soziologikoa: hizkuntzaren soziologia*". Ikasgai luzea eta sakona, soziolinguistikaren hasi-masiak emateko, bi ikuspegitatik begiratuta: ikuspegi soziolinguistikotik eta soziologikotik.

1.

Imanol Esnaolak, beraz, soziolinguistikaren ikuspegitik begiratzen dio gaiari, ukipen egoera estuan dauden hizkuntzen artetik egoera gutxiagotuan dagoenaren begiekin ikusiz. Eta hala, lehenengo azpiatalean dio hiru kontzepturi begiratu behar diogula dio: erabilera eremuak, diglosia eta hizkuntza gatazka. Erabilera eremuei dagokiela, dio hiztunok hizkuntza bat erabiltzeko orduan inguruko egoerak dituen ezaugarrietara egokitzen garela, eta hizkuntza batean edo bestean aritzeko hautua ez dela erabat indibiduala, komunitateak jarria baizik. Eta horren baitan, hizkuntza egokitzen dugula, solaskidearen eta egoeraren arabera. Eremuen antolaketak komunitate konkretuen errealitateari erantzuten omen dio eta komunitate bakoitzarentzat ezberdina omen da. Joshua Fishman-en eta José María Sánchez Carrión "Txepetx"en lanetan agertu ziren sailkapenak agertzen ditu ondoren.

Diglosiaren gaira sartuz, zenbait definizio eman ondoren, Fishman-ena hartzen du eta dio "*komunitate batean aldaera jakin bat eginkizun zehatzetarako erabiltzen baldin bada, beste aldaera bat gainerakoetarako erabiltzen den bitartean, hori, Fishman-en aburuz, egoera diglosikoa da*". Eta Fishman-ek zioela gizabanakoak elebidunak direla eta gizarteak, aldiz, diglosikoak, eta bi aldagai hauen arabera, lau aukera ateratzen ditu: 1. Diglosia eta elebitasuna; 2. Diglosiarik gabeko elebitasuna; 3. Elebitasunik gabeko diglosia; eta 4. Ez diglosiarik, ez elebitasunik. Boix eta Vila aztertzaileek, berriz, diglosiaren kontua katalanaren eta gazteleraren arteko egoerak aztertzeko erabili dute, hizkuntz gatazkaren baitan, eta ildo beretik aritu dira Lluís Aracil, Rafael Lluís Ninyoles, Txepetx, Joxe Manuel Odriozola...

Aracil-en ereduak hizkuntzaren funtzio sozialak eta gizartearen hizkuntza funtzioak bereizten ditu eta dio eremu horietakoren batean gabeziaren bat gertatzen denean sortzen dela gatazka. Ninyoles-ek zabaldu egiten du gaia eta adierazten du hizkuntza gatazka agerikoa edo izkutukoa izan daitekeela, eta gatazka sozialaren baitan kokatzen du. Bi hizkuntzaren arteko ukipena ez du berez eta ezinbestean tentsio-iturritzat jotzen, hizkuntza posizio sozialari lotzen zaionean baizik. Gatazkaren ereduak egoeraren dinamismoa uzten du agerian, eta hizkuntza ordezkapena azaltzeko bidea eskaintzen.

1.2.

Bigarren azpitalean, Antropologiaren alderdi soziolinguistikoaren eta komunikazioaren etnografiaren gaia aztertzen du: *gizakiak* erabiltzen duenez hizkuntza komunikatzeko, antropologiak ere azter dezakeela gai hori. Hizkuntzak sistema soziokulturalaren garapenean eta transmisioan duen zeregina, hizkuntza erabiltzea gizartean gauzatzen dela. Komunikatzea, gainera, arau gramatikalak ezezik kulturalak ere betetzea dela. Hizkuntza, beraz, errealitatea antolatu eta adierazteko bide eta modua dela.

Hizkuntza bere baitan aztertzeari ekin zitzaionean, 1960ko hamarkadan, *Komunikazioaren etnografia* sortu zen, Hymes-en eskutik. Autore honen haritik, hizkuntza ekimena (hiztunek hizkuntzarekin egiten dutena), adierazgarritasuna (hitzek eduki semantikoa izateaz gain, hiztunen harremana eta igorlearen kultur maila ere adierazten dute) eta partehartzea (solaskideen artean partehartze maila ezberdinak gerta daitezkeela) bezalako terminoak zabaldu ziren. Ondoren, Gumperz-ek 1972an komunikatzea hizkuntzaren bidez gauza asko egitea dela esan zuen: haserrea edo poza adieraztea, losintxak egitea... eta gaitasun horri *gaitasun komunikatiboa* izena jarri zion. Canale eta Swain-ek lau ataletan banatu zuten (gaitasun gramatikala, soziolinguistikoa, diskurtsiboa eta estrategikoa) eta bakoitza zehaztu.

1.3.

Hirugarren azpitalean, "*Hizkuntza ukipena: biziraupena, ordezkapena eta eraldaketa*" gaia jorratzen du. Giza talde orok du bere hizkuntza eta, erabileraren poderioz, ondorengoetaratatu eta iraun egiten du. Baina egoera jakin batzuetan hizkuntza hori mintzatzeari utzi egiten diote eta, horren ordeztan, beste hizkuntza bat bereganatzen dute. Beste hainbat arrazoiren artean, ukipen egoeretan gertatu ohi

dira hizkuntza ordezkatze horiek. Ordezkapen prozesu horietan, galbidean den hizkuntzan aldaketa estruktural ugari gertatzen dira (morfosintaktikoak, hiztegi espezializatua galtzea, oinarrizko bereizketa kognitibo eta linguistikoak galtzea...) eta, azken batean, hizkuntzan duten gaitasuna galdu egiten dute hiztunek, hain zuzen ere beste hizkuntzan gaitasuna lortzen duten heinean. Ez dira nahasi behar, ordea, hizkuntza galtzea eta identitate etnikoa galtzea (ikus Irlandaren kasua edota geurea, neurri batean).

Ordezkatze prozesua ez da bat-batean ematen, hainbat urratsetan bidearen ondorioz baizik: elebiduntze-aroa - talde barneko harremanak aldatzea – belaunaldien arteko hizkuntza transmisioa etetzea – heriotza. Ondoren, hizkuntza ordezkapena nozi dezaketen taldeak adierazten ditu: populazio migratzaileak (nekazaritza zein industria-eremuetara), populazio autonomoak (beste foko edo gune garatuagoari begira jartzen direnean)...

1.4.

Laugarren azpiatalean, hizkuntza ordezkapenaren interpretazioak egiten ditu Imanol Esnaolak. Hala, baieztapen batzuk egiten ditu. Batetik, ordezkapena funtsean ez dela gertaera linguistikoa, mintzagai dituzten gizarteen baitan bilatu behar dira ordezkapenaren arrazoiak. Bestalde, elebiduntzea eta hizkuntza ordezkapena aipatzen ditu: alde bateko elebitasuna hizkuntza ordezkapenaren lehen urratsa dela. Eragile politiko eta ekonomikoek ordezkapenean duten garrantzia ere aipatzen du, hizkuntza ordezkapenak gobernu eta estatu aparatuen eraginez gertatu izan direla adieraziz.

1.5.

Bostgarren azpiatalean, hizkuntzen arteko ukipena eta eleaniztasuna aztertzen ditu. Hizkuntza eta aldaeraren arteko bereizketaz aritu ondoren, hizkuntzak etengabeko hurbiltze-urruntze prozesuetan dihardutela, hiztunen kontzientzia...

Ukipena aztertuz, dio historian beti eman dela hizkuntzen arteko ukipena, sailkapena ere egin dela eta hizkuntzarik "ahulena" gutxiestea, estatu-nazioen sorrerarekin hizkuntza bat nagusitzea. Elebitasuna eta honen motak aztertzen ditu ondoren: indibiduala eta soziala izan daitekeela, eta elebitasunean eman daitezkeen maila edo graduak (bi hizkuntza edo gehiago maila berean menderatu eta hitz egitetik hasi eta batean ondo eta bestean oso kaskar aritzea artean).

Hizkuntz ukipenak sortzen dituen fenomenoak ere hor ditugu: eragile asko dira, batzuek hizkuntzaren baitakoak (estrukturalak) eta beste batzuek kanpokoak (psikologikoak edo soziokulturalak). Ukipenak interferentziak eta transferentziak sortzen ditu, kode alternantzia eta kodearteko markak, egoeraren araberako kode alternantziak...

2.

Bigarren atala Maria-Jose Azurmendik tajutu du, "*Soziolinguistika zer den. Ikusmira soziologikoa: hizkuntzaren soziologia*" izenpean. Linguistikaren inguruan disziplina berriak sortu direla digu eta horien artean bat, soziologia eta linguistika elkartzen dituen, Soziolinguistika alegia, zenbaitek Hizkuntzaren Soziologia izenaz ere ezagutzen duena. Inguruan, gainera, badira beste hainbat eta hainbat disziplina ere, hizkuntzarekin lotuak: etnolinguistika, psikolinguistika, psikosoziolinguistika...

2.2.

Bigarren azpiatalean Hizkuntz komunitateari buruzko ideiak agertzen dizkigu eta dio hizkuntz komunitatearen kontzeptuaren baitan *hizkuntza bateko hiztun multzoa + hizkuntza horrekiko jokamolde eta jarduera ildo bereziak + ingurune sozial konkretu batean kokapena* elkartzen direla. Eta soziolinguistikan asko erabilitako terminoa dela, azalpen eta definizio ugari izan dituen (Lyons, Hockett, Bloomfield, Gumperz, Lavob, Le Page, Bolinger, Hudson, Hymes, Fishman...). Azurmendi berak aztertu du Euskal Herrian bertan termino honi egin zaion birdefinizioa ere egin du.

2.3.

Hirugarren azpiatalean, "Hizkuntz ukipena" terminoa azaldu digu. Autore batzuek soziolinguistikaren ikuspegitik abiatuz, linguistikoki aztertzen dute terminoa, eta "ukipeneko hizkuntza" diote (Weinreich-ek, esate baterako). Beste autore batzuek, berriz, hizkuntzaren soziologiatik abiatuz, soziologikoki aztertzen dute eta hemen "hizkuntz ukipena" terminoa erabiltzen da (Fishman da ezagunena). Azkenik, bi ikuspegiak elkartzen dituenik ere bada, Mackey izanik ezagunenetakoa.

Hizkuntz ukipena alderdi askotatik azter daiteke: *geopolitikoki* estatu mailan gertatzen da, estatu baten barruan edo estatu ezberdinen artean; *soziologigoki*,

berriz, komunitateen arteko ukipenaren ondorio da; *psikosoziologikoki*, taldeen arteko harremanaren ondorio; *soziolinguistikoki*, hizkuntzen arteko eragin linguistikoak aztertzeko (maileguak, interferentziak, kreolizazioa...); menpeko komunitatea eta dominatzailea; elebitasuna, eleaniztasuna, hizkuntz gatazka, hizkuntzaren hiltzea/berreskuratzea...

Ukipen egoerak tipologia askotakoak izan daitezke: ukipen egoera tradizionalak (guda bidezko mugen ondoren sortuak edo Europak kolonietara eramandakoak), migrazio bidezko ukipenak (mundu garatutik ez-garaturakoak, ez-garaturatik garaturakoak, estatu bereko barne migrazioak...), ukipen egoera emergenteak (postkolonialak, biziraupenezkoak, europarrak...) edota horietatik batzuk edo denak elkartzen dituzten egoera mistoak.

2.4.

Laugarren azpiatalean "*Elebitasuna eta elebiduntasuna. Eleaniztasuna eta eleanizduntasuna*" gaia jorratzen du. Hala, dio elebitasuna eta eleaniztasuna gizarte mailan gertatzen direla; elebiduntasuna eta eleanizduntasuna, berriz, norbanakoaren mailan. Elebiduntasuna "*hizkuntza bat baino gehiago erabili ditzakeen norbanakoaren egoera psikologikoa da*"; elebitasuna, berriz, bi hizkuntza erabili daitezkeen gizartearen egoera da, eta honen barruan sartzen da gizabanakoaren elebiduntasuna, zenbait gizabanako elebidunak direlako erabil baitaitezke bi hizkuntza elkarrekintza berebean. Gero, gainera, termino hauen barruan beste hainbat zehaztapen egin behar dira: elebiduntasun konposatua, koordinatua, orekatua, dominatzailea, goiztiarra, nerabezarokoa, helduena, hazkorra, kenkorra, kulturbiduna, kulturbakarra, akulturala, akultural anomikoa... Edota Azurmendik (1981) gizarte mailarako zehaztutako elebitasun iraunkorra (erregresiboa, egonkorra/iragankorra, aktiboa/pasiboa, funtzionala/inte-gratzailea, naturala/kulturala, berezkoa/inposatua, onartua/ez onartua, beharrezkoa/aukerakoa, diglosikoa/ez-diglosikoa... eta norbanakoaren mailan, berriz, Sánchez Carrión "Txepetx"en eskutik, lehen mailako elebakar naturala, bigarren mailako elebakar landua, lehen mailako erdi-elebidun naturala, bigarren mailako erdi-elebidun diglosikoa (kengarria)...

Ikuspegi soziologikoaren eskutik, berriz, "elebitasun simetrikoa-orekatua / asimetrikoa – desorekatua" gerta daitezke. Eta Azurmendik dionez, "*elebitasun*

simetrikoa eta orekatua lortzea gaitza da, ezinezkoa ez bada ere", hori gertatzeko baldintza ugari bete behar baitira.

Eleaniztasuna eta eleanizduntasuna estatu mailatik gorako mailetan kokatzen dira (esate baterako, Europako Batasuna bezalako mailetan). Esate baterako, bakoitzak bere estatu mailan nahikotasuna duten hizkuntzak, Europa mailan ez dute; Europa mailan eleaniztasuna gertatzen da, baina eleanizduntasuna oraindik ez da horrenbeste gertatzen; estatuen eta Europako Batasunaren artean tira-birak gerta daitezke hizkuntza kontuetan; nazionalismoa, federalismoa, inperialiskoa eta antzeko kontzeptuak berriro sortzen ari dira...

2.5.

Bostgarren azpiatalean, "*Hizkuntz geopolitika*" izenburupean, adierazten digu disziplina honen zeregina munduan gaur egun diren hizkuntzak nola banatzen diren aztertzea dela, hala estatu mailan nola estatuz gaindi edo estatuz behetik. 3.000 eta 6.000 hizkuntza eta hizkuntz komunitate ezagutzen diren bitartean, estatuak 200 inguru bakarrik direnez, horrek esan nahi du estatu bakoitzean hizkuntza eta komunitate bat baino gehiago daudela. Horrek esan nahi du egoera ezberdinak gertatuko direla: hizkuntza bat, estatu bat (zailena); hizkuntza bat hainbat estatutan; estatu batean hainbat hizkuntza... eta hauen inguruan ere aldaera eta berezitasun ugari ematen direla.

2.6.

Seigarren azpiatalean "*Hizkuntz boterea*" aztertzen du. Egoera hau ukipen egoeretan gertatzen dela dio, baina ukipenik gabekoetan ere azter daitekeela. Hala, Mackey-k proposatutako formula bat erabiltzen da botere hori neurtzeko. Formula hori konplexua da, demografia, hizkuntza bakoitzaren banaketa geolinguistikoa, hizkuntza bakoitzak errazten duen mugikorasan soziala, hiztun multzoaren ekonomia, ideologia naguska (garatze/mantentze/galtzearen aldekoa) eta hizkuntza bakoitzarekiko kultura sartzan baitira eta horien barruan, berriz, aldagai gehiago baitaude. Gainera Oterok-eta beste formulazio bat aurkeztu dute azken aldian. Bestalde, ukipen egoeran dauden bi hizkuntzak oso alde handikoak baldin badira, hizkuntz komunitate dominatzaileari errazago izango zaie menpeko hizkuntzekiko menpekotasuna gordetzea, eta azpan dagoenari, berriz, zailago hizkuntzaren berreskuratze eta normalizazio prozesua lantzea; aldea txikia bada, berriz, bien arteko parekotasuna lortzea errazagoa izango da.

2.7.

Zazpigarren azpiatalean, "*Hizkuntz gatazka*" hartu du hizpide Azurmendik. Ukipen egoeran dauden bi hizkuntzaren arteko harremanak desorekatuak, asimetrikoak eta derrigorrezkoak izatearen ondorio dela dio. Arlo linguistikoan, interferentziak, maileguak, kreolizazioa, estandarizazioa, modernizazioa, pragmatika... aztertzen dira eta arlo soziologikoan, berriz, elebitasuna, hizkuntzaren erabilera, hizkuntz boterea, hizkuntz politika eta plangintza... Katalanari (eta gureari) begira, Aracil eta Solé-k "hizkuntz gatazka", "hizkuntz ordezkatzeara" eta abar zehaztu dituzte.

2.8.

Zortzigarren azpiatalean, "*Hizkuntz politika eta hizkuntz plangintza*" gaia landu du. Hizkuntz plangintza azken berrogei urte baino gehiagoan landu dela dio, nahiz eta esanahi eta erabilera ezberdinekin agertzen den. Hizkuntza gutxituek aurrera egiteko antolatutako plangintzak dira, eta ugari dira proposatu diren teorizazioak. *Plangintza* denez, epealdiak eta faseak zehaztu behar dira: helburu nagusiak erabakitzea, egoeraren azterketa eta diagnosis egitea, plangintza egiteko zenbait puntu aukeratzea eta hauen helburu bereziak finkatzea, inplementazio zehatzak programatzea, epealdiak markatzea, errekurtsoak ziurtatzea, lortutako emaitzak ebaluatu eta aurreikusitakoekin kontrastatzea, plangintza berbideratzea... Hizkuntza plangintan hizkuntza beraren barneko alderdia (korpusa) eta kanpoko (estatusa) bereiztu behar dira, nahiz eta bien arteko mugak ez izan zehatzak.

Hizkuntz politika hizkuntza plangintzaren atal gisa ikusten du: zenbat eta aldaketa handiagoak egin behar izan hizkuntzaren egoera normala lortzeko, orduan eta hizkuntz politikaren behar handiagoa. Aldea da hizkuntz plangintzan edozein izan daitekeela planifikatzailea (kontzeptu soziologikoa da); hizkuntz politikan, berriz, botere politikoa duena eta, beraz, kontzeptu sozio-politikoa da. Bietan plangintza-ereduak eraiki teorikoki eta enpirikoki aplikatu behar dira. Horren inguruan ezagunak diren Txepetx eta Fishman-en diagramak zehazten ditu.

Iruzkina

Oso gai sendoa eta mamitsua da lehenengo ikasgaiaren agertu zaigun hau. Ezin bestela, Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak aurkeztea eta azaltzea baitu

helburu. Ondorioz, nahi eta nahiez mamitsua izan behar. Soziolinguistika, izan ere, disziplina berri samarra izan arren, amaitu berri den mendeko bigarren erdian oso garapen zabala izan duen disziplina baita. Hizkuntza gatazka, hizkuntz komunitatea, diglosia, elebitasuna, hizkuntz-ukipena eta honen ondorioak (biziraupena, ordezkapena, eraldaketa), hizkuntz-ordezkapenaren arrazoiak, eleaniztasuna... kontzeptu asko, berriak niretzat gehienak –ia denak– autore ezberdinek eman dizkioten esanahi edo ikuspegi ezberdinetatik aztertuta gainera. Autoreak ere asko, batzuek atzerrikoak (Fishman, Mackey, Ferguson...), beste batzuk etxeakoak (Txepetx, Azurmendi...) edo "etxekotuak" (Aracil, Ninyoles, Boix, Vila...), bakoitza bere ekarpen teorikoekin.

Ni neu euskara irakaslea naiz lanbidez eta bitxia egin zait gaur egun Euskaltegietan, helduen euskalduntze eta alfabetatze lanetan, oso erabilia diren zenbait kontzeptu aurkitzea ikasgai honetan: Komunikazioaren etnografiaren eskutik, Gumperz-ek 1972an definitu zuen *gaitasun komunikatiboa* aurkitzea eta geroago, 1980an, Canale eta Swain-ek gaitasun komunikatibo horri egin zioten lau ataleko banaketa: gaitasun gramatikala, gaitasun soziolinguistikoa, gaitasun diskurtsiboa eta gaitasun estrategikoa. Eta interesgarri iruditu zait Boix eta Vila irakasleek, Shuy-ren ekarpena oinarritzat hartuta, egindako grafikoa, hizkuntzaren errealitatean ageriago geratzen diren gaitasunarena (gaitasun gramatikala), ebaluagarriago eta neurgarriago dena, eta izkutuago dauden edo ebaluatzeko eta neurtzeko zailago direnena (gaitasun diskurtsiboa, soziolinguistikoa eta estrategikoa).

Hizkuntza ukipena: biziraupena, ordezkapena eta eraldaketa atalak ere zer pentsatua eman dit. UNESCO Etxeak argitaratutako txostenaren muina bihotza larritzeko modukoa da: munduan diren hizkuntzeatik asko galdu egingo direla, alegia. Euskara nahiko egoera larrian egon da eta oraindik ere ez du ziurtatua etorkizuna, baina ematen du bide onetik goazela, nahiz eta pozarren egoterik ez daukagun oraindik.

Hizkuntz ukipen eta ordezkapen prozesuaren azalpenak ere argigarriak izan zaizkit. Imanol Esnaolak dio ordezkapen prozesuak hainbat urras jarraitzen dituela: hasteko elebiduntze aroa, baina alde bateko elebidunak sortzea. Hori da euskarari gertatu zitzaiena XIX. mende inguruan, industria iraultza gertatu zenean hemen, Bizkaia aldean batik bat. Egia da aurretik ere zenbait klase sozialek ez zerabilzela, oro har, euskara (garaitsu hartan bertan, Catalunyan bertako burgesiak katalana zerabilkien hitzean eta pitzean) eta uholdeka etorri ziren etorkinek ere ez zuten euskara bereganatzeko aukera handirik izan: aski zuten lan egin eta bizirautearekin. Estatuko

gobernuaren jarrera ere ez zen hobea: espainiera zen hizkuntza bakarra eta gainerakoak desagertarazi beharreko "regionalismoak". 1936ko Gerra Zibilaren ondorioz jarri zen gobernu ere euskara hiltzen burubelarri ahalegindu zen. Iparraldean, berriz, beste era batekoa izan da hizkuntzaren galera eraman duen prozesua: industriarik ia batere ezarri ezaren ondorioz, jendeak bere herritik erbesteratu beharra bizitzeko, eta Frantziako estatuko bazter guztietatik jende frantsesa etortzea bizitzera (hondartzen ingurura), euskaldunen pisua ahulduz. Horrela, bi aldeetan euskaldunok bilakatu gara alde bateko elebidun, erdaretan ari zirenek bere hizkuntzetan hitz egiten jarraitu baitute, lasai asko. Hala ere, euskarak zenbait eskualdetan tinko eutsi dio (zenbat eta iparralderako eta ekialderago, orduan eta euskaldunago).

Bigarren pausua talde-barneko harremanak aldatzea izaten dela dio Esnaolak. Hala gertatuko zen euskara galdu den tokietan. Urola bailaran ez da halakorik gertatu, ez behintzat portzentaje esanguratsuetan. Hirugarren pausua belaunaldien arteko transmisioa etetea dela dio. Garbi dago hala gertatu dela Euskal Herriko eskualde askotan, eta oraindik ere ari dela gertatzen, Iparraldean eta Nafarroan, batik bat. Baina batekoz besteko mugimendua ere hasia da, EAEn, batik bat: zenbait erdaldun euskaldundu da eta horiek, seme-alabak izatera iritsi direnean, euren seme-alabei euskara transmititzen hasiak dira jadanik. Ez da beharbada kopuru esanguratsuan izango oraindik, baina badira.

Eta prozesuaren azken muturrean, hizkuntzaren heriotza datorrela dio Esnaolak. Hala gertatu da euskal lurraldeetako zenbaitetan, baina ez guztietan. Egoera politikoa aldatu egin da EAEn eta euskarari begirune handiagoa dioten jarrerak dira gaur egun nagusi (nahiz eta aurkakorik ere aski izan, zoritxarrez). Horrela, gainbehera gelditu eta berpizte-urratsak ematen ari gara. Egoera ez da hain pozgarria, ordea, Nafarroan eta Iparraldean. Nafarroako gobernuak, esate baterako, euskara eta politika nahastu ditu eta hor ari dira hizkuntza gutxien eta zokoratzen, inolako errukirik gabe. Horrek erakusten du zer-nolako maila politikoa duen jendea ari den hor gobernatzen (eta gobernatzeko apoioa ematen). Iparraldean ere, zoritxarrez, euskararekin zerikusia duen guztiari *separatismoaren* eta *terrorismoaren* kutsua leporatzen diote eta jende guztia izutzen.

Maria Jose Azurmendik egin duen ikasgai-zatian agertzen diren zenbait kontzeptu ere interesgarriak egin zaizkit. Ni neu lanbidez euskara irakaslea naiz eta soziolinguistika arlo honetan ez naiz asko ibilia, ikastaro hau egin dudan arte. Beraz, ikasgaietan

agertzen diren kontzeptu eta teoria asko eta asko berriak dira niretzat. Horregatik egin zait oso interesgarria ikastaro osoa. Hala, hizkuntz-komunitatearen kontzeptua, autoreek eman dizkioten adiera ezberdinak, hizkuntz ukipena eta hori sortzen duten arrazoiak, elebitasuna eta elebiduntasuna, eleaniztasuna eta eleaniztasuna eta beste hainbat kontzepturen berri izatea argigarria izan zait oso.

Hizkuntz gatazkaren gaiak ere zer pentsatua eman dit. Hizkuntzen eta hizkuntz komunitateen artean dauden harremanak orekatuak ez direnean, hots, desorekatuak, asimetrikoak eta derrigorrezkoak gertatzen direnean sortzen omen da. Eta hau irakurri dudanean burura etorri zaidana da ba ote dagoen ukipenean dauden hizkuntzen artean egoera orekaturik. Ikasgaiaren batean esaten zaitu Portugal kenduta Europako estatu guztietan hizkuntza aniztasuna dela nagusi. Estatu bakoitzak hizkuntza bat du ofizial eta horrek esan nahi du gainerako hizkuntzak nagusiaren azpitik gertatuko direla. Frantziak, esate baterako, ez ditu onartu ere egiten bere mugen barruan dauden hizkuntza gutxituak, eta dezente dira. Agian Suitza izango da hizkuntza guztiak onartzen dituen, baina zein hizkuntza darabil gobernu zentralak? Belgikan bi komunitate badira behintzat, zer-nola moldatzen dira elkarrekin? Espainiako estatuan ere bada hizkuntza ugari, baina bakarra da ofiziala estatu osoan eta horri begirunezko tratua ematen zaio, eta Autonomia Erkidegoetako hizkuntzak ez ditu aintzakotzat hartu ere egiten gobernu zentralak eta honen menpe dauden administrazio eta botereak. Beraz, lor al daiteke elebitasunik eta elebiduntasunik, eleaniztasunik eta eleanizduntasunik? Ez al zaie beti hizkuntza bat gailenduko besteei, edozein direlarik ere?

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Azpeitian ez zen alde bateko elebiduntzerik gertatu, ikasgaiaren esaten den neurri gordinen, behintzat. Gure bailaran euskarak tinko eutsi dio erdarak egindako erasoari. Ez, agian, geuk aktiboki lan handiegirik egin dugulako. Esan nahi dut beste zenbait herri eta eskualdetan emigrazioa handia izan da eta arrapaladan etorritakoa, eta jende hori guztia ezin izan da euskararentzat irabazi. Gure herrian inmigrazioa txikia izan da, eta tantaka-tantaka etorri da. Aitortu beharra dago 1960ko hamarkada ingurura arte Azpeitia (eta Urola bailara osoa) nekazaritzatik bizi izan dela neurri handi batean, eta etorkinek ez dutela bailara honetara etortzeko erakarmen handirik izan. Garaitsu hartan etortzen hasi zirenak ere, gutxika-gutxika iritsi zirenez, asimilatzen joan ziren eta nagusietatik guztiek ikasi ez bazuten ere euskaraz, haiekin

etorritako gazteek, edota etorkinen seme-alabek ederki asko ikasi zuten eta gaur egun hauen seme-alabek ere bide berari darraiote. Gerora, ordea, etorkinen etorria handitu egin zen eta orduan bai ezinezko egin zela euskalduntzea. Orain, berriz, eta euskara ofizialdu denetik, eta azken bi hamarkadetatik hona batik bat, euskararen aldekoa da herritarren sentimentua, erdaradunena ere bai neurri handi batean, eta euskaraz ez dakiten erdaldunen seme-alabak ere euskaldundu dira, herrian D eredua baita ia erabat (edo *ia* hori kenduta) nagusi.

Bestalde, hizkuntz ukipena ere txikia izan da gure herrian, beste leku batzuekin konparatuz. Esan bezala, euskaldunen kopurua %85 ingurukoa da. Horrek esan nahi du erdaldunen etorria %15ekoa besterik ez dela. Hemen ere jasan ditugu euskara debekatua egon zen urteak, eta zigorrak eta isunak ere jaso ditu hemengo jendeak euskaragatik. Eskoletan ere gaztelera sakrosantuan bakarrik irakasten zen urteak ere bai, beste edozein lekutan bezala. Baina kaleak eta gizarteak euskaldun izaten jarraitu du orain arte eta jarraitzen du. Dena den, badu euskarak irabazi beharreko esparrua: idatzizko mundua. Eguneroko bizimodua euskaraz egiten dugunez azpeitiarrik gehienok, eta badirudi horrekin aski dugula. Ez da gutxi, egia esan, baina oraindik nagusi da erdarazko heziketak utzi duen eragina. Belaunaldi gazteak ahoz eta idatziz euskaraz aritzeko gaituak daude, baina frankismo garaiko heziketa jaso zutenek gaztelania dute idatzizko hizkuntza, neurri handi batean. Eta baina euskaldunek beraiek ez dute hori egin beharrik ikusten, ez dira hanka edo besamotz sentitzen. Eta behar hori sentitzen ez duenari zaila da *gaitz* hori sendatzeko sendagaia ematea.

3

Hirugarren ikasgaia:

Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko.

Hirugarren irakasgaian, Mikel Zalbide eta Xabier Erize irakasleek "Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko" izenburupeko gaia aurkeztu digute. Bertan, hizkuntza gutxituen gaian adituak diren hiru pentsalariren ekarpenak mahaigaineratzen dira: Joshua A. Fishman, William F. Mackey eta José María Sánchez Carrión "Txepetx". Esan beharra dago oso ikasgai sendoa eta mamitsua dela, hizkuntza gutxituen gai honetan erabilgarriak diren kontzeptu eta gaiak lantzen direlako luze-zabal eta sakon.

1.

Fishman-en ekarpena zabala izanik, ikasgai honetan landu den gaia RLSarekin (*Reversing Language Shift*) edo, euskaraturik, HINBErekin (*Hizkuntza Indarberritzea*) zerikusia duen atala izan da, eta honekin loturik dauden beste zenbait kontzeptu: *Language Shift* bera, hots, *luze-zabaleko mintzaldatzea*,

Esan beharra dago Fishman-ek darabiltzan hainbat kontzeptu oraindik euskarara itzuli gabe daudela edo, itzulita badaude ere, hainbat zalantza gerta daitezkeela. Alegia, terminologia bera ere oraindik berri samarra dela eta zenbait ñabardura eta xehetasunetan adostasunera iritsi beharra dagoela. Esate baterako, gauza bera al diren *language change*, *language shift*, *language attrition*, *language loss*, *language death*... edo zein alde dagoen haien artean, eta, zailena, euskarara nola itzuli kontzeptuok.

Reversing Language Shift edo Hizkuntzaren Indaberritze horren helburua hizkuntza batetik besterako lerratzea (gurean, euskaratik gaztelerara edo frantzesera egindako hizkuntza aldatze hori) gelditu eta berriro atzera egin eta euskarara bideratzea da.

Eta HINBE edo hizkuntza indarberritze hori lortzeko egin beharreko diagnosis ere ematen digu: zortzi mailatan bereizten du hizkuntza baten galera. Horretarako BAEN eskala agertzen du, *Belaun Arteko Etenaren Neurria*, Fishman-ek GIDS, *Graded Intergenerational Disruption Scale* deitua, alegia. Zortzigarren mailan hizkuntzaren

erabateko galera legoke, ez hiztun-herririk ez eta hiztun-taldearen arteko harreman-sarerik ez dagoeneko egoera. Eskalaren beste muturrean berriz, lehenengo mailan, hizkuntza unibertsitatean, goi-mailako lanpostuetan, erabakimen-esparruetan... indartsu legokeeneko egoera da, baina independentzia politikoak berez eman dezakeen segurtasun osagarririk gabe.

2.

Ikasgai beronen bigarren atalean, William F. Mackey-ren ekarpenak laburbiltzen zaizkigu, Mikel Zalvide beraren eskutik. Mackey-k Québec eta, zabalago, Kanadako hizkuntz egoeraren gaineko hausnarketa egin du, nagusiki, hots, frantzesaren eta ingeleraren arteko ukipen eta harreman egoerak, eta hauetatik sortzen diren ondorioak. Hala ere, Irlandari eta irlanderari buruzko lanak ere baditu. Aditu honek ere ekarpen interesgarriak egin ditu hizkuntza gutxituen mundu honetara: *la puissance linguistique* (hots, euskaraz hizkuntzaren berezko indar, potentzia edo kemena) eta *l'attraction linguistique* (hizkuntz erakarmena) eta hauen inguruan mugitzen diren beste hainbat kontzeptu: hizkuntza erabiltzeko jardunguneak, hiztunen mugikortasuna, hauen produkzio-ahalmena, beste hizkuntzekiko indarra, hizkuntza batek besteari sortzen dion erakarpena, hizkuntzen arteko hurbiltasuna, hizkuntzaren berezko indar honetan eragiten duten faktoreak (faktore demografikoa, sakabanatze-faktorea, mugikortasun-faktorea, faktore ekonomikoa eta faktore ideologikoa, eta hauek bateratuz ateratzen duen formula matematikoa)...

3.

Ikasgaiko hirugarren zatia Xabier Erizek idatzi du eta hemen agertzen zaigun aditua bertakoa dugu, José María Sánchez Carrión "Txepetx" hain zuzen ere. Aditu honen berezitasunik azpimarragarriena da bere ikerketa eta hausnarketak ez direla ingelesaren edo frantzesaren ingurukoak, baizik eta euskara ardatz hartuta egin dituela, hots, aztertu duen hizkuntza gutxitua euskara bera dela. Txepetxen teoriaren erdigunea hizkuntzaren garapen osoa da. Alegia, hizkuntzak hiru eskubide natural bermaturik dituena: bere lurraldean hango hizkuntz-komunitatearen hizkuntza oso izatea, hizkuntz-komunitateak bere hizkuntza era osoan transmititzeko eskubidea eta gurasoek euren hizkuntza seme-alabei transmititzeko eskubidea. Txepetxen "esparruen teoria" agertzen digu gero eta hizkuntza komunitatearen egitura eat gune sinbolikoa, zirkulu zentrokideen erara tajutua, erdian jatorrizko hiztun kulturizatuekin

(AB taldea), hurrena heldu eta gazte bertakotuak (BA taldea), jatorrizko hizkuntz primatioak (A taldea), eta azkenengo zirkuluan, kanpoena, hizkuntza ikasten ari direnak; zirkulu horietatik kanpo, hizkuntza horren hiztun ez direnak.

Hizkuntzaren normalizazioaren gakoa gune sinbolikoa osatzean datza, Txepetxen ustez, AB eta BA taldeek osatua, hots, hizkuntzaren garapen osoa duten eta hizkuntza horretan pentsatzen duten taldeek osatua. Estatu hedakorra, hizkuntza nagusiaren jabe dena, aipatu berri diren zirkulu kontzentriko horietan kanpokoena bereganatzen ahaleginduko da, hizkuntza-ordezkapena sortuz. Horrek hizkuntza gutxitua galbidera darama. Beste aldean, berriz, normalizaziorako bidea dago, haustura tentsiotik hizkuntza gutxituaren aldeko diskurtsoa hedatzen denean, hiru alderditan: orokorra, soziala eta norbanakoarena, eta hiruretan gertatu behar du. Horretarako ezinbestekoa da Berdintasunaren Diskurtsoa eraikitzea eta hizkuntzen arteko berdintasuna bultzatzea eta alde batera uztea hizkuntza boteretsuaren eta menpekoaren gurgil zoroa. Nazio linguistiko guztien elkarbizitza da lortu beharrekoa, mundu guztiak kabitzen diren mundua.

Gune sinbolikoaren konpaktazioa oso garrantzitsua da Txepetxentzat, eta alde kualitatiboak euskararentzat irabaztea da helburua; horrek berak ekarriko du gerora alderdi kuantitatiboa. Bestalde, normalizaziorako beste baldintza bat *izateko nahia* da. Izan nahi horrek norbanako hiztunaren baitan indar bat sortzen du hizkuntzaren alde aritzeko, bestek egiteko zain egon gabe. Behar adinako hiztun kopuru batek nahi hiri baldin badu, Hizkuntza komunitatearen baitan ere sortzen da. Hizkuntza komunitatea trinkotzeko, berriz, hizkuntzaren ikasketa naturala eta kulturala, hizkuntza ezagutu eta erabiltzea eta talde soziolinguistikoak elkarren artean lotzea beharrezko dela ikusten du.

4.

Laugarren atalean, "*Bizitasun etnolinguistikoa*"ren gaia lantzen du Xabier Erizek. Hizkuntza eta kultura aldetik ezaugarri bereziak dituen giza-talde baten bizi-indarra adierazi nahi da kontzeptu horrekin. Giles, Bourhis eta Taylor ikerlarien ekarpenetako batek dio identitate etnikoaren eta kultura elkartasunaren sinbolo izan daitekeela hizkuntza eta maiz etnizitatearen adierazle nagusi izatera ere iristen dela. Bizitasun horren azpitik hainbat faktore objektibo eta subjektibo ikusi zituzten. Objektiboan artean, estatusa (hizkuntzaren prestigioa), demografia (hiztun kopurua eta banaketa) eta babes instituzionala (hizkuntzak erakundeetan duen pisua), erraz neurtu

daitezkeenak. Horrez gain, hainbat prozesu psikosozial ere aurkitu zituzten: kategorizazio soziala, gizarte identitatea, konparazio soziala, bereizketa psikologikoa, alternatiba kognitiboak eta talde estrategiak. Baina ohartu ziren bizitasun subjektiboa ere neurtu behar zela, hots, hiztunek beren hizkuntzari eta egoerari buruz zuten ikuspuntua.

Landry eta Allard ikertzaile quebecarrek bizitasun etnolinguistikoaren ideari ekarpenak egin zizkioten 1984 eta 1994 artean. Azken urte honetan, Harwood, Giles eta Bourish-ek bizitasun etnolinguistikoaren teoria birformulatu zuten. Horrela, eredu oso konplexua prestatu zuten autore horiek, ordura arteko osagai garrantzitsu guztiak bateratuz: bizitasun objektiboa, bizitasun subjektiboa, Henry Tajfel-en teoria (taldeen arteko harremanak, identitate etnolinguistikoa...), Allard eta Landry-ren ekarpenak (bizitasunari buruzko usteen sistema, harremanen sarea, elebitasun gehitzailea/kentzaileak...), hizkuntza portaerak eta abar. Garrantzitsuena *diskurtsoen* atala gehitzea izan zen. Azken aldian Allard eta Landry-ren aldeko ikerketa-adarra eta Giles eta Bourish-ena berriro elkartu egin dira eta *behar sozio-komunikazionalaren hipotesia* atera da, Charles C. Mann-en eskutik, nigeriarrek, norberaren ama-hizkuntzaren gainetik, elkarren artean komunikatzeko erabiltzen zutren ingelesaren aldaera edo *pidgin*-a ikertzetik.

Bizitasun etnolinguistikoa hizkuntza plangintzarako abiapuntu izan daiteke, dagoen bizitasunetik abiatuz areagotzen saiatzea baita plangintzaren helburua (zenbat eta bizitasun handiagoa, hainbat eta errazagoa izango da plangintza bera eta normalizazio lanak burutzea); bestalde, bizitasun etnolinguistikoaren ereduek normalizazioaren osagai gehienak biltzen dituzte, ikuspegi orokor batetik eta, ondorioz, errazagoa da helburuak aukeratzea eta lehentasunak antolatzea.

Iruzkina

Oso ikasgai luzea, sendoa eta mamitsua da hirugarren hau; ideia, teoria eta kontzeptu asko jasotzen dira bertan eta ez da erraza pare bat orritan laburbiltzea. Ia lau orritan ere gauza asko baztertu behar izan ditut, ideia nagusienekin halako "*hari gidatzaile*" bat ondo tajutzeko. Lortuko ahal nuen ondo laburtzea!

Joshua Fishman autorearen haritik Mikel Zalbidetik euskaratuta HINBE izena eman dion kontzeptua oso baliotsua iruditu zait. Hots, hizkuntza –gutxitu– batean zein

egoeratan gertatzen den mintzaldatzea edo *language shift* (LS) eta nola hizkuntza batek bestearen lekua hartzen duen eguneroko bizitzako arlo guztietan, poliki-poliki eta kasik oharkabean, baina unetxo bat ere gelditu gabe; eta nola ahuldutako hizkuntza gutxitua berriro indarberritzeko egin daitekeen Reversing Language Shift (LRS) edo Hizkuntza Indarberritzea (HINBE).

Hizkuntzaren mintzaldatzea edo *language shift* delakoa non ematen den adierazten digunean hor agertzen dituen pausuak oso ezagunak dira Euskal Herrian, oraindik hurbil dagoen iragan batean jasan baititu gure herri gaixo honek: hizkuntza ahula erabiltzeko eta defendatzeko debekua, hizkuntza ahula lekuz eta demografiak eten-urratzea, giza arteko eten-urratzea (dislokazio soziala), euskara erabiltzeagatik nozitutako mespretxu eta "aldeano" irainak, geure burua hutsaren hurrengotzat hartzea, etxeko atetik atera orduko balio ez duen hizkuntza bat erabiltzeagatik eta hizkuntza *moderno* ez ezagutzeagatik, dislokazio kulturala (globalizazioaren bidetik), hizkuntza nagusia mintzatzen duten estatuko botereek hizkuntza ahulari egiten dioten mespretxu eta baztertzea, kultura nagusi bat bultzatu eta gainerakoak hutsaren hurrengotzat hartzea...

Gainbehera honi aurre egiteko Fishman-ek aurkezten duen RLS aukera ere oso interesgarria da, hizkuntza indarberritzeko pausuak, alegia. Horien artean adierazten ditu dagoena mantentzea (etxea, lagunartea, herria eta bizimodua euskaraz aritzea); geure kultura eta izaerari eustea ("euskaldun" izate horren animari); kanpotik etorriko denaren zain egon gabe, lekuan lekuko azterketa zehatza egitea eta haren araberako soluziobideak aukeratzea, "neurriko trajea" egitea... Hala, Fishman-en bidetik, luze-zabaleko mintzaldatzea jasan duen gizataldeari elebidun izatea besterik ez zaio gelditzen, baina diglosiazko elebitasun egonkorra, hots, hizkuntzari bere espazio fisiko eta funtzionala aitortzea (euskaldunok euskaraz aritzea euskaldunokin, ahalik eta funtzio gehienetan, eta erdaldunekin erdaraz) eta konpartimentazio egonkorra lortzea. Oinarri-oinarrizko funtzio kulturalak, euskararen transmisioa eta erabilera bermatzen dutenak, euskararentzat gorde. Azken batean, gizarte-plangintza bat egin behar da, eta ikusi toki bakoitzean zein diren euskara bultzatzeko pausorik garrantzitsuenak: estrategia bat finkatu; hori burutzeko taktika bat gauzatu eta gero, ebaluazioa egin, berriro etengabeko gurpilari ekiteko.

Fishman-ek berak zehazten duen GIDS (Zalbidek-eta BAEN, Belaun Arteko Etenaren Neurria) eskala praktikoa eta erabilgarria ikusten dut Euskal Herriaren luze-zabaleran euskararen egoera zein den zehazteko. Zortzi maila zehazten ditu Fishman-ek:

zortzigarrenean hizkuntza galdua dago, ez du hiztun-herririk, ez eta hiztun-taldeko harreman-sarerik ere; lehenengo mailan, euskara presente dago unibertsitatean eta goi-mailako lanpostuetan (baina independentzia politikoak eman dezakeen segurtasun osagarririk gabe). Euskara, gaur egun, eta eskualde eta lurraldeko egoera oso ezberdina den arren, oro har ez dago bi mutur horietakoetatik inon. Leku batzuetan zortzigarren maila hori iritsia dago (zenbaitetan aspaldi gainera) baina berriro ari dira hiztunak sortzen, ikastola eta euskaltegien bidez; bestalde, unibertsitate eta goi-mailako kargu zenbait euskararentzat irabaziak ditugu, baina ez denak, ezta hurrik ere!

Belaunaldi berriak ere ari dira sortzen, eta euskararen transmisioa gertatzen ari da. Familia euskaldunek ez dut uste gaztelaniara pasatzen ari direnik, eta erdaldun euskaldunduak saiatzen dira euren ondorengoak ere euskararen munduan murgiltzen. Egai da oraindik ere zenbait euskaldunek baduela gazteleraz hitz egiteko ohitura, maila altuagora pasatzen direlako uste ustelarekin edo. Horien mintzajarduna euskarara ekartzen ahalegindu behar dugu. Ari gara BAEN eskalako 5. mailan ere: euskaldunak alfabetatzen ari dira, eskoletatik ere alfabetatuta ateratzen ari dira gazteak. Badakit oraindik ere gutxi direla, proportzioan, baina abian jarria da gurpila. Dena den, badut nik halako susmo bat, euren hizkuntzan trebatu eta aberastea baino –alfabetatzea, bere zentzu jatorrenean– lanerako atea irekiko dizkion papertxo baten bila ez ote dabilen jendea. Edo, beste multzo handi batek, bere *etxeko* euskara aski duela pentsatzen du, beste *euskara berri horren* beharrik gabe.

BAEN eskalaren 4. mailan ere bagabiltza, nahiz eta oraindik hezkuntza esparru guztia ez den euskal hezkuntza. Zalbidetik ondo esaten duen bezala, Nafarroa eta Iparraldea olatu horretatik urrun dabilzan oraindik. 3. mailan ere ahaleginak egin dira eta poliki-poliki euskara lan-mundura sartzen hasi da. Egia da oraindik saioak aski bakanak direla, lan-mundua den itsaso zabalarekin neurtuta, baina non edo nondik hasi beharra dago. Hor azpitik halako borroka isila dago: euskal enpresek ez dituzte euskal bezeroak bakarrik, eta marketin-aterketei jarraituz, saldu egin nahi dute. Beraz, gazteleraz *ere* atera beharko dira oharrak, foiletoak, instrukzio-liburuak... Baina gaur egun hizkuntza askotan ateratzen dira agiri eta dokumentu horiek: euskarak ere bere lekua izan dezala horien artean (niri instrukzio-liburuetan grekoz edo errusieraz idatzitako jarraibideak aurkitzea bezain bitxia egingo zaio Europako biztanle bati eta kito).

Bigarren mailara eta aurrenekora ere ari gara iristen, hots, euskara administrazio-munduan eta hedabideetan ari da sartzen, baita unibertsitatean eta goi-mailako karguetan ere. Egia da, hedabideei dagokienez, bertako komunikabideak bakarrik ahalegintzen direla euskaraz aritzen (egunkari, irrati, telebista) eta estatu mailakoetan ez dela euskararekiko sentsibilitaterik somatzen, aurkako joera ez denean. Administrazio munduan euskararen presentzia oraindik ere oso eskasa da, eta Zalbidek ongi dioen bezala, herririk euskaldunenetan ere udalaren bilerak euskaraz egin eta idazkari euskaldunik ez da izango, baina ari dira han-hor-hemen idazkari euskaldunak –eta alfabetatuak– iristen kargu horietara ere. Ez behar adinako kopuruan oraindik, baina gurpila ari da abian jartzen, poliki-poliki.

Mikel Zalbideren postura ondo iruditzen zait, alegia, egiten ari garen gauzekin geure burua ez itsutzeko eta triunfalismotan ez erortzeko eta oinak lurrean eta burua hotz aritzeko iradokizuna egiten digunean. Baina esparruak ez dira bat-batean, gauetik goizera, irabazten euskararentzat, baizik eta udaberrian gertatu ohi den bezala, lore batzuk goiztiarragoak izango dira eta beste batzuk berantiarragoak, baina azkenean zelai guztia lorez bete ohi da.

Mackey-ren ekarpenak ere oso interesgarriak dira, hizkuntzaren berezko indarrarena eta hizkuntz erakarmenarena. alegia. Hizkuntza batek aldeko legeria hutsa ez dela nahikoa, bi kontzeptu hauek ere kontuan izan behar direla. Gaur egun euskarak *puissance* txikia du, beste hizkuntza batzuk ikastea gurago du jendeak. Zergatik? Lanerako balioztat jotzen delako, informatika eta teknologia berriak ingelesaren eskutik datozelako, halako behar *instrumental* bat badagoelako, *puissance* horrek berak sortua. “U.S. language status policy and the canadian experience” liburuan, berriz, Mackey-k beste hainbat faktore sartzen ditu, horien artean status demografikoa. Kopuru aldetik ez gara asko euskaldunok, lehia ditugun hizkuntzekin konparatuz; proportzioetan, berriz, hiztun-talde euskaldunak gehiengoa dira eskualde eta lurralde batzuetan, eta gaztelera-hiztunak beste batzuetan. Distribuzioan ere, antzeko zerbait gertatzen da.

Estatus ekonomikoari dagokionez, berriz, ez dut uste alde handirik dagoenik euskal hiztun-komunitateen eta erdal hiztun-komunitateen artean. Gaur egun ez dago garai batean adinako alderik ekonomikoki *klaseen* artean, klase ertaina zabaldu da asko eta klase ertain horretan daude bai euskal komunitateak, bai erdal komunitateak. Gizarte-estatusen ere uste dut gora egin dugula. Ez dago euskal hiztunen artean euskarak ezertarako balio ez duen iritzi hori (agian garai batean zenbait sektoretan

egon zitekeena) eta gobernu-instituzioak ere alde ditu. Kultur-estatusen ere baditugu aldizkari, egunkari, irrati-telebista, liburutegi eta kultur-zerbitzuak euskaraz, nahiz eta gaztelaniaz eta frantsesez are gehiago dauden arlo horietan guztietan eta hauen indarra eta erakarmena handia den. Estatus politikoari begiratzen badiogu, berriz, botere politikoa eskuratua dugu (neurri batean bada ere, Autonomia Erkidegoan) baina euskararen aldeko jarrera aski epelak (eta hotzak) dituzten alderdi eta jarrera politikoek dezenteko indarra dute (Nafarroan eta Iparraldean zer esanik ez). Estatus juridikoari dagokionez ere, erdibidean gaude: EAEn errotulazioa ele bietan jarria dago edo jartze bidean da, baina ez da gauza bera gertatzen Nafarroan eta Iparraldean (azken aldian Nafarroan gainera jarrera atzerakoiak ari dira nagusitzen); hezkuntza sisteman ere urrats handiak eman ditu euskarak, nahiz eta zenbait eredu euskararen irakaskuntzan duen eragina zalantzan jartzeko modukoa izan.

José María Sánchez Carrión "Txepetx"en teoria ere oso interesgarria da, eta gainera garrantzitsua da euskara bera erabili dela teoria hau tajutzeko. Transmisio naturala eta kulturala, motibazioa, ezaguera eta erabilera, hiztun osoa, hiztunetan eta talde soziolinguistikoetan egiten duen banaketa (A, B, AB eta \emptyset), kontzeptu asko darabiltza, hizkuntzaren azterketa alderdi askotatik egiten baitu. Oso kontuan izatekoa da hizkuntza-komunitatea irudikatzen duen zirkulu zentrokideen irudia, erdian jatorrizko hiztun kulturizatuak dituela, eta hizkuntz-komunitate artikulatuaren eta desartikulatuaren ideia. AB taldea hedatzea eta garatzea da hizkuntzarentzat komenigarri, horiek baitira gainerako taldeengan eragin izateko moduan daudenak, eta hauek gune sinboliko bat osatzea, hau hizkuntzaren sinboloen munduarekin lotzen baita.

Txepetxen teorian bitxia gerta daitekeen kontzeptuetako bat Berdintasunaren diskurtsoarena da: hizkuntza gutxituaren eta hizkuntza nagusiaren berdintasuna. Kontua ez dela orain gutxitua dagoen hizkuntza, gure kasuan euskara, botere-hizkuntza bihurtzea; boterea, gaur egun ulertzen den bezala kaltegarritzat jotzen baitu. Ondo ulertu badut, euskara eta gaztelania edo frantsesa maila berean jartzea da helburua, gutxitua dagoenari arnasa eta indarra emanaz, baina gainean dagoena azpira pasa gabe. Diskurtso mota hau ez dakit ulertzen den gure gizarte honetan, eta are gutxiago onartuko litzatekeen, orain arte zenbaitek erabili duen ikuspuntutik aski urruti ikusten baitut.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Ikasgaiaren izenburutik beretik "hurbilpen teorikoa" dela esaten denez, ez da erraza gure herrirako aplikazio praktikorik aurkitzea, zuzen-zuzenean bederen. Hala ere, eta beste zenbait ikasgaitan gertatzen den bezala, hainbat bide aprobetxagarri ikusten dizkiot hurbilpen teoriko hauei. Dena den, hemen agertzen diren moduko azterketa edo hausnarketak egiteko asti handirik ez da geratzen eguneroko lanari aurre egin behar izaten zaionean baina, tira, handik edo hemendik denbora apurrak harrapatuz joanez gero, azkenean zerbait burutzerira irits daiteke.

Fishman-en RLS teoriaren ildotik, Azpeitian euskararen egoera nola dagoen azter daiteke, euskararen osasuna ikusteko. Iruditzen zait Azpeitian euskarak sendo dirauela etxean, lagunartean eta herriko arlo askotan (Mikel Zalbidek bere ikasgaiari behin eta berriz aipatzen duen Urrestilla hori Azpeitian dago). Eguneroko bizimodua euskaraz burutzeko arazorik ez dugu, %90 inguru euskaldunak –gehienok euskaldunzaharrak– baikara Azpeitian. Lagunartea ere euskaraz egiteko arazorik ez dugu, nahiz eta zenbait gazte-talde somatzen ditudan gaztekeraz aritzen direla. Hau egoera bitxia da, berez ikasketak D ereduan egindakoak/egiten ari direnak baitira eta, beraz, euskara ezagutzeko arazorik ez dute izan behar, eta erabiltzeko ere arazo gutxi. Aztertzea izango litzateke zerk bultzatzen dituen hizkuntza-hautaketa hori egitera. Laneko esparruan ere euskara da nagusi ahozko erabileran eta gizarte arloko beste hainbat esparrutan ere hala gertatzen da (eliza, kultura, ikusentzunezkoak...). Kultur eta kirol taldeak euskaraz aritzen dira, lasai asko... Mintzaldaketarik ez da gertatu Azpeitian.

Euskarari eusteko ere ez dago problemarik. Euskaldunzaharrek euskararen transmisioari eusten diote, inolako arazorik gabe. Bikote mistoek ere ez dute oztopo handirik euskarara lerratzeko, ingurune soziolinguistikoak horretarako aukera ematen baitie. Egia da oraindik ere badaudela gune erdaldun huts batzuk, baina gero eta kopuru txikiagoan. Beste kontu bat da erabiltzen dugun euskarari, batik bat zenbat eta adinez gazteagoetan, erdal kalkoak, klitxeak eta sintaxi-nahasketak sortzen ari direla, eta horrek halako hausnarketa bat egitera ekarri behar gaituela. Hizkuntzaren aberastasuna galtzen ari da Azpeitian ere. Badakit espainolek eta frantzesek ere gauza bera diotela euren hizkuntzetan aritzen diren gazteei buruz, baina horrek ez du arazoa gozatzeko balio.

Hedabideen kontuan, berriz, gauza bitxia gertatzen da, batik bat idatzizkoetan. Ez da gure herria eredugarrian euskaraz idatzitako egunkarien kontsumoan. Erdara hutsean ateratzen diren egunkariak dute nagusitasuna Azpeitian, eta euskarazkoa erosten duenak ere normalean beste egunkari bat ere erosi ohi du. Baina erdaraz irakurritakoak ez gaitu bultzatzen lagunekin edo etxean egin dezakegun hitzaspertua erdaraz egitera. Hots, halako "itzulpen automatiko" bat badugu martxan jarria gure buruetan, erdaraz irakurri/entzundako albisteak euskaraz jasotzeko buruan. Agian lan bikoitza egitea izango da, baina jendeak egunero eta aldioro egiten duen gauza da.

Bestalde, eta HINBE (RLS) hori ez denez modu berean egin behar leku guztietan, aztertu egin beharko dugu zein esparrutan dabilen ahul euskara Azpeitian eta huts horiek zuzentzera aplikatu. Gabezia handia lan-munduan dago, esate baterako, idatzizko arloan: bulegoetako barne-funtzionamendutik hasi eta etiketa, hizkuntz-paisaje, instrukzio-liburu eta abarrekin jarraituz. Osasun arloan ere badago zer eginik, zenbait sendagile eta langile –gutxi badira ere– ez baitira oraindik euskaldunak. Justizia arloa ere atzeratua dabil euskara kontuetan. Horra hor hasteko –eta luzaroan jarraitzeko– zenbait esparru.

Bestalde, eta azterketa teoriko horretako proposamenekin jarraitzeko, BAEN eskalaren (Fishman-en GIDS) zortzi mailetatik zenbatgarrengoa dagoen euskara gure herrian. Erdetik zertxobait gorago egongo den itxaropena badut. Mikel Zalbidek berak ikasgaiak dioen bezala *"Urrestillan ez dago BAEN handirik: euskara hutsean (edo nagusiki euskaraz) bizi dira aiton-amonak, halatsu bizi dira gurasoak eta berdintsu seme-alabak. Eguneroko mintzajardun arruntari dagokionez, euskararen katea Urrestillan ez da eten"*. Azpeitiari dagokionez ere pentsatzen dut era honetako hausnarketa bat bete-betean aplika daitekeela. Egia da Azpeitian Urrestillan baino erdaldun gehiago dagoela proportzioan, baina hala ere txikia da (%10era ez da heltzen) eta eguneroko bizimodua euskaraz egiteko interferentzia handiegirik ez dute sortzen.

Eskalari so eginez, Azpeitia non legoke? BAEN eskalaren 5. mailak "hiztunak irakurle eta idazle bihurtzea; euskaldunak alfabetatzea" dio. Atal horretan, beraz, zenbait kontu bederen oraindik bete gabe ditugu. Egia da eskoletatik gazteek euskaraz alfabetatuta irteten dutela, baina helduak alfabetatu gabeak dira. Eta gainera euskara batuaren aurrean oso jarrera itxia dute: euskara berria, ulertzen ez dutena, gogorra... Ez dira jabetzen beren hizkuntz-komunitateko euskara moldeaz gain beste molde asko daudela Euskal Herrian zehar eta horiek guztiak elkartzeko eta elkar

ulertzeko tresna dela euskara batua. Ni euskara irakaslea naiz eta gogoan dut Azpeitiko Udal Euskaltegira etorri zen neska gazte euskaldunzahar peto-peto batek esan zidana: *"ni Euskaltegira nator lanerako EGA titulua eskatzen didatelako, eta nahi eta nahi ez atera egin behar dudalako, baina nik neureari segituko diot hemendik ateratzen naizenean"*. Ez da hau izango herritar guztien postura, ezta gutxiago ere, baina harritu egin ninduen gazte batek halako azalpena emateak. Eta helduek ere ahozko erabilerari aski irizten diote –eta ez da gutxi, jakina- baina idatzizkoan gazteleraz jarraitzen dute. Horra hor Euskaltegiak lan egiteko arlo bikaina, euskaldunzaharrei eragiketa arruntak, ohar laburrak, mezuak eta abar euskaraz idazten irakastekoa. Baina ezin dugu "kontaktatu" jende mota horrekin.

BAEN eskalaren laugarren mailan ere aurrera goaz Azpeitian. Eskola guztietan D eredua martxan dago azken urteotan. Beraz, hortik aterako diren gazteak euskaldunduak eta alfabetatuak izango ditugu. Hala ere, azkenaldi honetan arazotxo bat ari da gertatzen: munduko bazter urrunetatik gure artera etorkinak iristen hasi direla, euren bizimodua ateratzeko asmotan. Bestalde, jendea umeak adopzioan hartzen ere ari da. Hala, Azpeitia aldera etorriak ditugu marokiarrak, peruarrik, Europako erdialdeko nazioetakoak... eta gainera seme-alabadunak, batzuk kozkortzen hasiak. Horiek nola sartu D eredura, aurrez euren lurraldeetan ikasketak egiten hasiak baziren, bakoitza bere hizkuntzan. Hezkuntz-sistemaren lehenengo urtetik sartzen bada, euskaldundua ateratzeko arazorik ez dago, baina Lehen Hezkuntzaren erdian edo DBHren haseran sartzeko moduko gaztea bada, nola euskarazko ereduan txertatu. Oraindik gutxi dira kuantitatiboki era honetako arazoak, baina horiei ere erantzuna eman behar. Nola, ordea?

BAEN eskalaren 3. mailan ere muturra sartua dugu Azpeitian, lantegietan alegia. Ahozko erabileran euskara izango da nagusi gure herriko lantegietan, burdingintzan zein altzarigintzan, bulego eta zerbitzu-etxeetan, aseguruetan, dendetan eta tabernetan. Baina idatziari begiratzen diogunean kontuak aldatu egiten dira. Esan bezala, bulegoko barne-funtzionamendua, kontabilitatea, faktura eta albaranak, instrukzio-liburuak, bilera-aktak... gaztelaniaz egingo dira neurri handian. Hala ere, badira salbuespenak: Aurrezki Kutxetan aspaldi aritu ziren trebatze-saioak egiten. Dendari eta merkatarien artean ere Euskara Patronatoaren bidez (SIADECOK prestatuta), egoeraren azterketa bat egin da eta lehenengo pausoak eman ere bai hizkuntza-paisajea aldatzeko eta faktura, inprimaki eta abar euskaraz jartzeko eta euren eskaintzen berri euskaraz emateko (iragarki, publizitate...). 2002-2003 urteari begira ere aurrera jarraitzea pentsatua dago jadanik. DANONA altzari-fabrika ere,

herriko handienetakoa, euskara-plana egiten ari da Elhuyar-en eskutik, eta zenbait trebatze-plan ere aurreikusiak ditu. Lurgintza Kooperatiban ere (Azpeitiko eta inguruetako baserritarrei laguntza emateko sortutako kooperatiba) trebatze saioak eman ditugu Udal Euskaltegikook bizpahiru urtetan, euskaraz funtzionatzeko asmoa zuten eta. Egia da, hala ere, euskara lan-munduan normaltasunez sartzeko oraindik lan handia egin beharko dela.

BAEN eskalako 2. puntuan ere ("euskara administrazio munduan eta komunikabideetan"), ari gara lanean. Udal administrazioak badu jadanik bere plana, barnera begira. Langileen ehuneko handi batek bere hizkuntz eskakizuna aterata du; lanpostuek izendatua daukate bere hizkuntz-eskakizuna eta derrigortasun-data. Azpeitiari, gainera, oso herri euskalduna izaki, indize altua dagokio eta ia lanpostu guztiek izan behar dute hizkuntz-eskakizuna. Gaur egun falta direnak 3. eta 4. hizkuntz-eskakizuneko zenbait teknikari dira. Horientzako plan bat ari da tajutzen Euskara Patronatoa. Gero, langileak euren eguneroko lanean euskaraz aritzeko plana txertatu beharko da. Hala ere, dagoeneko lanen zati handi bat euskaraz burutzen da, dena izan ez arren. Udalaren bilerak ere euskaraz izaten dira eta aktak euskaraz jasotzen. Herritarrari iristen zaion guztia bi hizkuntzean joaten da, oraindik ez dagoelako euskara hutsean jaso nahi duten herritarren erroldarik. Kultur eta kirol taldeek euren txostenak eta udalarekiko komunikazioak euskaraz egiten dituzte. Herritarrekin harremana duten langile eta teknikari guztiak euskaldunak dira.

Komunikabideei dagokienez, bi herri aldizkari daude, bata Udalak argitaratzen duena eta bestea Uztarrria izeneko koordinadora batek. Biak ere euskara hutsean argitaratzen dira (hilabetekariak dira biak). Irrati komertzial bat bada herrian (Loiola Herri Irratia), programazioaren zati handi bat euskaraz ematen duena. Herrian dugun telebistak (Kaito Telebista) euskaraz gertatzen dena euskaraz ematen du, gazteleraz gertatzen dena gazteleraz, inolako manipulazio edo postprodukziorik gabe. Iragarkiak ele bietan, baina euskarazkoak gehiago.

BAEN eskalaren 1. mailari dagokionez, "euskara presente unibertsitatean eta goi-mailako lanpostuetan (aurrezki-kutxen, enpresen, agintaritzaren eta komunikabideen erabakimen-esparruetan)", arlo honetan ere euskara ari da sartzten. Herriko enpresetako zuzendaritza eta batzordeetan euskara maila handian erabiliko da ahoz, goi-mailako jende hori euskaldunzaharra delako. Aurrezki-kutxetako eta zenbait banketxetako zuzendari eta jerenteak ere euskaldunak dira Azpeitian; ez da gauza

bera gertatzen ordea, beste zenbait bankurekin). Beraz, erditik gora dabil gure herria BAEN eskalan, eta gorantz egin nahi bizian.

Mackey-ren *puissance linguistique* delakoari so egiten badiogu, berriz, euskarak berezko indarra badu gure herrian, eguneroko bizimodua hala egiten baitugu. Etorकिनak ere, zenbait behintzat, euskararen indar horrek bultzatuta, Euskaltegira hurbiltzen dira euskalduntzera. Hala ere, erdaldunen zenbait sektoretan ingelesa ikasteari lehentasuna ematen zaio, euskara bigarren mailan utzita. Egoera honetatik ez gara libratzen Azpeitian ere!

Txepetxen teoriako kontzeptuetara etortzen bagara, berriz, euskara ikasteko motibazioa, ezagutza eta erabilera Azpeitian inon baino areago ikusten direla esan beharra dago. Esparru asko eta asko, gehienak esango nuke, euskarak bereak ditu Azpeitian. Ez du ematen hizkuntz-ordezkapenik gertatzeko modurik dagoen, hiztun-komunitatea badago, herritarren gehiengoak osatua gainera eta gune sinbolikoa ere definitua dagoela uste dut eta indartsu. Ahozko erabileran hizkuntzaren erabilera normalizatua dago, inolako arazorik gabe aritzen da jendea. Esan bezala, idatzizkoan falta da normalizazioa.

4

Laugarren ikasgaia:

Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak

Ikasgai luzea izan da hau, 150 orrialde ingurukoa. Zesar Martinez, Nekane Jausoro, Kontsesi Berrio-Otxoa eta Olatz Altunaren eskutik, Ikerketa soziolinguistikoak egiteko metodologia eta tekniken ikuspegi ahalik eta orokorrrena ematea zuen helburu ikasgaiak. Bost atal handitan banatua dago ikasgaia. Sarrerakoa Zesar Martinezen eskutik dator eta gainerako lauretako bakoitza arestian aipatutako irakasle bakoitzak garatu du.

1.

Lehenengo atalean, esan bezala, sarrerakoa egiten da, ondoren datozen aukerak zertan oinarrituta dauden jakiteko. Gizarte-zientzietan zernolako tradizio metodologikoak izan diren adierazten du aurrena (tradizio positibista, tradizio hermeneutikoa eta tradizio dialektikoa, bakoitza bere aukerekin), horra iristeko ibili den bidea, tradizio horietako bakoitzak atzetik duen ikuspegi metodologikoa (tradizio positibistaren atzetik dagoen ikuspegi metodologiko distributiboa, tradizio hermeneutikoaren euskarri den ikuspegi metodologiko konprentsiboa, eta tradizio dialektikoaren ezaugarri den ikuspegi metodologiko kritikoa) eta aniztasun metodologikoaren eta jakintzaren arazoa gizarte-zientzietan. Sarrera orokorra, beraz.

2.

Bigarren atala Nekane Jausorok garatu du. Bere eginbeharra "*Metodologia Kualitatibo-estrukturala*" azaltzea izan da. Metodologia honek gai nahasiak edo difusoak aztertzeke aukera ematen du (jarrerak, sinesteak, motibazioak...) eta zerbitzu, programa edo ekintza bat martxan jarzeko behar den egoerari buruzko lehen ezagupena izateko egokia da, bai eta egoera horren ebaluaketaren lehen urratsetarako ere. Gainera, ikertzailearen posizioa aktiboa da eta inplikazio handikoa, prozesu osoan parte hartzen baitu eta ikerketa prozesua irekia da. Nolabait esateko "*artisansautza-lana*" da metodologia honekin egiten dena, une bakoitzean hartzen baitira behar diren erabakiak.

Ikerketa mota honetan erabiltzen diren teknikak eztabaida taldea, talde fokalizatua, hiruko taldea, elkarrizketa irekia eta bizitza historia dira. Bakoitzak ditu bere ezaugarri eta berezitasunak, baina elkarren osagarriak dira. Beti pertsonekin egiten denez lan, aztertu egin behar da taldearen iraupena zenbatekoa izango den, haren osaketa (homogeneotasuna edo heterogeneotasuna), taldeko dinamika, ikertzailearen postura taldearen baitan, nola kontaktatu taldekideekin... Gidoi bat ere tajutu behar da teknika hauetan, taldeetako partaideek guk nahi dugun bidetik egin dezaten, partaideen jardunetik ateratzen diren datuetan oinarrituko baita lana.

Diseinu teknikoak zorrotza izan behar du, garrantzi handikoa baita ikerketaren prozesuan. Analisiaren unea ere oso delikatua da: elkarrizketa irekia-eta erabiltzen direnean, materialak bolumen handia izan ohi du. Elkarrizketen transkripzioak egin behar dira, oso zehatzak eta hitzez hitzekoak, marka linguistiko eta paralinguistiko guztiak jasoz, den-denak baitu garrantzia. Ikertzaileak egin behar du gero egituraren eta zentzuaren eraikuntza. Analisia egiteko ez dago errezetarik ezta eredurik ere.

3.

Hirugarren atalean, berriz, "*Metodologia kuantitatiboa: inkesta*" gaia lantzen du Kontxesi Berrio-Otxoak. Metodologia honen funtsa hurbilpen kuantitatiboa da (distributiboa ere deitua) eta honek esan nahi du horretarako neurketak, laburpen estatistikoak, zenbakiak... erabiltzen dituztela. Zientzia fisiko-naturaletan erabili ohi diren metodologiak dira baina gizarte zientziek ere (hizkuntzetakoak horien artean) erabil ditzakete, era horretara azter daitezkeen alderdiak aztertzeko. Azterlan hori egiteko aurrez sortuak dauden datuak erabil daitezke (eta horiei egiten zaien azterketari *analisi sekundarioa* esaten zaio) edo propio horretarako sortutako datuak erabili. Azken bide hau erabiltzen bada, erarik nagusieka *inkesta* erabiltzea izan ohi da. Hots, aztertu nahi den populazioaren lagin bat hartu eta ikerlariak sortutako galderei erantzuteko eskatzen zaie.

Metodo kuantitatiboaren helburua bikoitza da (deskribatzea eta azaltzea) eta hori *neurtuz* lortzen da: faktu edo gertaera sozialak neurtzen ditu, zenbakien eta maiztasunen kontaketen bidez, horregatik deitzen zaio kuantitatiboa. Kontaketaz gain maiztasunak nola banatzen diren eta elkarrekin nolako harremana duten ere deskribatu eta azaltzen duenez, *distributibo* izena ere ematen zaio.

Inkesta bera bi teoria-bidetan oinarritzen da, bata matematikoa (limite zentralaren teoreman eta laginketaren teorian), eta bestea komunikaziokoa (bi interlokutoreren arteko elkarrizketa edo hitz-jardunean). Inkesta ondo gauzatzeko zenbait elementu izan behar dira kontuan: Batetik, *lagina*. Unibertso edo populazio osoa ezin denez elkarrizketatu, estatistikoki errepresentagarria den zati bat hartu behar da. Bestalde, euskarri materiala, *galdesorta*, galde-erantzunen item-ek osatua. *Neurketa kuantitatiboen* bidez errealitate sozial bat neurtu nahi da. Populazioaren ezaugarri objektiboak (esate baterako, adina, errenta maila, ikasketak, zein partiduri eman dion botoa...) eta subjektiboak (baloreak, asmoak, sentimenduak, arrazoiak...) argitu nahi ditugu inkestaren bidez.

Galdesortak galdera fijoak eta bakoitzarentzat erantzun multzo mugatua du, hots, aukera mugatuak ditu elkarrizketatuak eta haietatik aukeratu behar du. Honela, aztergaiaren konplexutasuna gal daiteke. Elkarrizketatuak, gainera, bere iritzia eman beharrean, "izatea nahi luketena" erantzun dezakete, egoera desitxuratuz. Galdesortak ordena logiko bat izan behar du, galdera ulergarriekin, zalantzazko erantzunik ez sortzeko modukoak, estereotipo edo zentzu peioratiborik gabeak, iraingarriak ez direnak...

Inkesta garatzeko hainbat molde daude: pertsonalak (aurrez aurrekoak), telefonoz eginak, posta bidezkoak... Bakoitzak ditu alde onak eta txarrak: aurrez aurrekoa izan daiteke garestiena, baina baita eraginkorrena ere; posta bidezkoa merkeagoa da, baina erantzun gutxi jasotzeko arriskua dago, edo dena erantzun gabea (elkarrizketatuak galdera ez badu ondo ulertu). Laginketa aukeratzerakoan ere hainbat bide daude: laginketa sinplea edo aleatorio sinplea, sistematikoa, geruzatua, multzokatua, kuotadun laginketa, ibilbide aleatorioen laginketa, estrategikoa eta "elur bola"ren laginketa. Denek dituzte abantailak eta eragozpenak, eta neurtu nahi den fenomenoaren arabera aukeratuko dugu bat edo beste.

4.

Laugarren atalean Olatz Altunak garai batean Euskal Kulturaren Batzarreak eta orain SEI Elkarateak egiten duen "*Erabileraren kale-neurketa*" proiektuaren berri ematen digu. Erabilera denez hizkuntza biziaren bihotza, horri erreparatzen zaio, badaudenez beste zenbait ikerketa, euskararen ezagutza eta gaitasuna aztertzen dutenak. Aurrena 1989an egin zen eta gerora, lau urtez behin egin da. Proiektuaren berezitasuna da behaketa bidezko datu-bilketa dela, ez inkesta bidez egin eta bere

helburua da leku publikoetan (kalean, hain zuzen ere) dabilen jendearen arteko hizkuntza-erabilpena neurtzea: entzun eta apuntatu, ezer galdetu gabe. Proiektu hau burutzeko egin den diseinuaren eta garapenren berri ematen digu gero eta egin diren lau neurketen datu esanguratsuenak. 2001ean egin da azkena eta bertan 162 udalerrri neurtu dira (Arabako 9; Bizkaiko 39; Gipuzkoako 36; Lapurdiko 31, Nafarroako 39; Nafarroa Behereko 5 eta Zuberoako 3), guztira Euskal Herri osoko biztanleriaren %85 bizi delarik.

5.

Azkenengo atala "Metodologia partehartzaileak" izan da, Zesar Martinezen eskutik. Metodologia horien azpitik dauden oinarri teoriko eta epistemologikoak laburbildu ondoren, esaten du postulatu teoriko eta epistemologiko horiek zientzia modernoan indarrean diren postulatu nagusiei oinarri-oinarritik kontrajartzen zaizkiela.

Ikerketa eta ekintza uztartzen dituzten metodologiak omen dira, eta dio ikerketa egitea bera errealitatean esku hartzeko modua dela, "aditua"ren boterea sakabanatu eta "arrituen" artean banatzen dela, horretarako ikerlariak eta praktika sozialetan ari direnek talde mistoak sortuz. Era honetako metodologiak esku-hartze komunitarioaren arloan erabili omen dira (auzo-elkarte eta mugimendu sozialen partehartzearekin) eta helduen hezkuntzaren arloan (hezkuntza-erakundeen partehartzearekin). Hainbat galdera egiten dira planteamendu orokorrean: Zertarako eta norentzako egiten da ikerketa? Nortzuk egingo dute? Nola eta noiz? Lehenengo galderarekin, esate baterako, zein helburu ideologiko-politiko dauden argitu nahi da.

Ikerketa partehartzaileak dituen urratsak eta prozedurak azaltzen ditu ondoren: eskaeraren negoziazioa eta ikerketa-proiektua; auto-diagnosia; jarraipen-batzordea osatzea; ikerketa-taldea osatzea; kale-lana eta ekimen aztertzaileak; ekintza-planak definitzea, hauek abian jartzea eta ondoren ebaluatzea; tailerrak antolatzea; AMIA matrizarak, Delphi taldeak eta Eskuhartze Partehartzailerako Guneak; Ekintza Integralerako Egitaraua eratzea... Metodologia hau erabiltzeko eremuak gizarte-erakundeak, lan eta enpresa-mundua, merkataritza, komunikabideak... izan daitezke, beti ere azterketa soziolinguistiko hutsaz gain partehartze garrantzitsuagoa nahi dugun kasuetan.

Iruzkina

Ikerketa soziolinguistikorako dauden metodologia eta teknikak azaltzea da ikasgai honen helburua. Horrela, metodologia kualitatiboak, kuantitatiboak eta partehartzaileak azaltzen dizkigu, bakoitzak dituen abantaila eta eragozpenekin. Metodologia kuantitatiboan oinarritutako ikerketa baten berri ere ematen digu, Euskararen Erabileraren Kale Neurketarena, hain zuzen ere.

Ugariak dira zientziak bere ikerketak egiteko asmatu dituen modu eta bideak. Horien artean ugariak dira, baita ere, gizarte-zientzietarako balio dutenak. Eta horietatik zenbait hizkuntzarekin zerikusia duten fenomenoak eta gertakariak aztertzeke eta emaitzak ateratzeko balio dutenak izango dira. Kualitatibo edo estrukturalak, gai nahasiak edo difusoak aztertzeke aukera emango du (motibazioak, sinesteak, jarrerak, usteak...). Kuantitatiboak, berriz, beha daitezkeen datuak aztertuko ditu, zenbakiak, kopuruak...

Ikerketa kualitatiboetan, hainbat eratako taldeak antolatuko dira (eztabaida taldea, elkarrizketa irekia, bizitza historia), homogeneousak edo heterogeneoak, fokalizatuak, eta talde dinamika erabiliko taldeak motibatzeke. Hala, taldekideen artean solasa antolatuko da eta hitzaspertu luzea egingo, beti ere ikertzaileak bideratuta (nahiz eta ahalik partehartze txikiena izan behar duen).

Ikerketa kuantitatiboan, aldiz, sistemarik erabiliena inkestarena da. Hemen ere era askotako inkestak daude: aurrez aurrekoa, telefonozkoa, posta bidezkoa. Zenbait gaitarako dagoeneko internet erabiltzen ere hasi dira. Ondo estrukturatutako galdeketa baten bidez, inkestuari erantzun itxiko galderak egiten zaizkio (hiruzpalau aukeraren artean aukeratzeko, esate baterako). Metodologia hau itxia eta dezente bideratua den bitartean, ikerketa kualitatiboena oso irekia eta aberatsa da, baina baita ondorioak ateratzerakoan zailagoa ere.

Metodologia kuantitatiboan, aldiz, errazagoa da datuen ondorioak ateratzea. Esate baterako, lehenengo galderari "A" erantzuna eman diotenen kopurua "X" da. Baina honek baditu bere arriskuak. Inkestatuak, erantzuna ematerakoan, erantzun dezake ez berak pentsatzen/sentitzen duena, baizik eta bere ustez guk jaso nahi duguna, edo gezurra esan (adibidez, zein alderdi politikori bota dion galdetzen diogunean, hauteskunde-mahaiaren aurrean). Eta garbi dago horrelakoak gertatzen direla;

bestela, zenbait hauteskunde-gautako lehen iritziekin ateratzen ziren ondorioak lekuko.

Interesgarria da metodologia hauek hizkuntzaren arazoak aztertzerare bideratzea. Asko dira azken urteotan egiten ari diren azterlanak, hala erakunde publikoetatik nola pribatuetatik: Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta; Euskararen Jarraipenarena, udal edo erakundeentzat eginak (Donostiako gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerrenak, esate baterako), eta beste hainbat eta hainbat nik inoiz entzun ere egingo ez nituenak, bakoitza bere helburu eta metodologiekin. Horien artean bat agertzen zaigu ikasgai honetan: Erabileraren kale neurketarena. Interesgarria da oso zazpi euskal lurraldeetan egin delako, udalerririk askotan gainera (biztanle-kopuruz, egoera soziolinguistikoz eta abarrez oso ezberdinak diren udalerrietan), adin guztietako jendea hartzen delako eta, teoriaz, unibertso osoa hartu nahi duelako (neurketa egiten den unean kalean dabilzan eta hitz egiten ari diren guztiak, euskaldunak izan edo beste edozein erdaratakoak). Ez du lagin bat hartzen, baizik eta ia udalerririk guztiak eta herritar guztiak.

Oker ez banago, Azpeitian ere ibili ziren neurketa egiten. Interesgarria izango litzateke datu horiek eskuratzeko aukera izatea, ea gure herrian zernolako "argazkia" atera duten jakiteko. Gainera, laugarren aldia omen zen Kale Neurketa hau egiten zutena. Aurreko neurketetan ateratako emaitzak ikusi eta oraingoarekin erkatzea ere ondo legoke, alderik badagoen ikusteko eta onerako edo txarrerako izan den aldaketa.

Bitxia iruditu zait neurketa egiteko erabilitako sistema ere. Bi egun ezberdin hartu, bi astetakoak eta datu-jasotzailea jarri kale batean (edo zehaztutako lekuan) eta isil-isilik, inorik ezer galdetu gabe, belarria erne jarri eta entzundakoaren berri apuntatzea. Normalean era honetako galdeketa, neurketa eta azterketetan gidatzaile bat edo teknikari bat dago, galderak egin edota elkarrizketa bideratzen duena. Hemen, berriz, entzun bakarrik egin behar du.

Behaketaren helburua ez da neurtutako pertsonak euskaraz badakien, zenbatetan egiten duen edo antzekorik jasotzea. Une zehatz batean egiten ari dena baizik, kalearen portaera, neurri handi batean. Era honetako ikerketa guztiak bezala, errealitatera egiten den hurbilketa bat da, bere alde on eta txar guztiekin. Baina hausnarketarako eta azterketarako beste edozein metodo bezain egokia eta garrantzitsua. Galdeketa eginez gero subjektu horri berorri, agian beste erantzun bat

jasoko genuke (lehen esan dugun bezala, faltseatua edo idealizatua egon litekeena, erantzulearen subjektibitatearen baitan baitago hori), baina sistema honek emaitza gordin eta garbia ematen digu.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Ikasgai honetan ere teknika eta metodologiaren azalpena egiten zaigu. Ondo dago horien berri jakitea, euskararen problematikara hurbiltzeko hainbat modelo daudela jakiteko, eta bakoitzak zertarako balio dezakeen, baina Azpeitiari begira ez diot aplikazio zuzenik aurkitzen. Alegia, herrian proiekturen bat egin nahi bada, gai horretan adituak diren pertsona eta erakundeekin jarriko gara harremanetan eta haiek gidatuko gaituzte. Hala ere, haiekin hitz egin eta eztabaidatzeko garaian, aukera bat baino gehiago badagoela jakitea oso interesgarria da.

Goraxeago esan dudana bezala, "Erabileraren Kale Neurketa"ren berri izatea interesgarria izan zait, eta ondo legoke gure herrian lortu dituzten emaitzen berri izatea, herritarrek jakin ditzaten.

5

Bostgarren ikasgaia:

Gizarte sareen metodologia

Kontxesi Berrio-Otxoa izan da ikasgai honen egilea eta zazpi ataletan banatu du gizarte-sareak aztertzeko egin duen lan hau.

Sarreran dio gizarte egituraren ikerketarako metodo gisa erabil daitekeela harreman sareen azterketa eta soziologiaren adar nagusienetakoa bilakatu dela eta hurbilpen teoriko berria ekarri duela.

Zenbait hurbilpen metodologikok aktore indibidualen jokaerei eta hauek hartzen dituzten erabakiei erreparatu badiote ere, honek komunitateari edo taldeari begiratzen dio, norbanakoen arteko harremanei, interakzio hauek sortzen baitute sarearen ideia. Aktoreen arteko harremanek sortzen dituzten auk, mugak eta portaera sozialak azaltzeko bi hurbilpen mota daude: *erlazionala*, aktoreen arteko lotura zuzen eta zeharkakoei erreparatzen diena, eta *posizionala*, aktoreen loturen izaerari erreparatzen diena. Pertsonok arlo guztietan sareak osatzen ditugu: familian, eskolan, lanean, elkarteetan...

Metodologia hau estrukturala da: gizarte sistema bateko aktoreek sistema horretan parte hartzen dute, elkarrekintzak sortuz, eta era ezberdinetako harremanak gertatzen dira. Metodologia honen oinarrian Moreno-ren *soziogramaren analisia*, Harvard-eko ikertzaile batzuek aztetutako *harreman informalak* eta *azpitaldeen* kontzeptua eta Manchester-ko antopologoen teoriak dira.

Sare batean, beraz, unitate batzuk ditugu eta haiek elkarren artean elkarreraginak sortzen dituzte. Pertsona horiek (nodoak) puntu bidez irudika ditzakegu, eta elkarreraginak marren bidez (harremanak, zehatzak zein mugatugabeak) eta *soziograma* bat osatuko dugu. Aktore batek soziograman duen *kokapena* izan behar dugu kontuan, horren arabera baita besteekiko duen *eskuragarritasuna*, hau da, sor ditzakeen harremanak. Hala, harreman puntu asko baditu inguruan, erdiguneko kokapena izango du; gutxi baditu, inguruko kokapena. Harremanen nolakotasunari erreparatzen badiogu, aktoreen artean lotura estu, sendo eta zuzenak daudenean talde kohesionatua dela esan dezakegu.

Aktore batek beste batzuekin lotura zuzenak izan ditzake, baina beste batzuekin ez hain zuzenak: haien gana iristeko hainbat pausu egin beharko ditu, *bidea* egin beharko du (bat baino gehiago egon daitezke), eta *distantzia* bat egongo da haien artean.

Trinkotasunarekin adierazten dugu aktoreen artean dauden harremanen kopurua. Denek denekin elkarreragiten badute, sarea trinkoa dela esango dugu. Hemen beste bi kontzeptu izan behar ditugu kontuan: barnekotasuna (sarean zein puntu dauden konektatuta besteekin eta zein ez, proportzioan) eta harreman errealak (puntuaren artean gertatzen diren harremanak, berez gerta litezkeen arabera neurtuta, portzentajea).

Maila ere neurtu behar dugu. Alegia, aktore batekin harreman zuzena duten beste aktoreak mailarik altuenekoak izango dira; beste baten bidez iritsi behar dutenean, maila apalagoa. Harreman zuzena dutenak *hurrenak* dira; eta aktore batekin harreman zuzena duten aktoreek *auzoa* sortzen dute. Aktore horrek *zentralitate* handia izango du. Aktore batek, maila apalagokoa izan arren, *bitartekaritza* garrantzitsua joka dezake: erdian dagoen aktoreak sareko beste aktore batzuen interakzioak kontrola edo molda ditzake.

Gizarte-sarearen barneko harremanak kontuan hartzen baditugu, hainbat ezaugarri dituztela konturatuko gara: harremanen *edukia* (zein helbururekin sortu den sare hori), *norabidetasuna* (harremanak norabide bakarrekoak diren edo bi norabidetakoak), *iraupena* (zenbat denbora irauten duen sareak), *intensitatea* eta *maiztasuna*.

Gizarte-sare hauek esparru guztietan gertatzen direnez, hizkuntza arloan ere gertatzen dira. Hala, hizkuntzaren erabilera harreman-ingurune egi turatu batean kokatzen du eta sortzen diren harremanak aztertuz, hizkuntza-erabiltzaileak azter ditzakegu: partaide bakoitzaren, gizarte-egituraren eta bien artean sortzen diren harremanei buruzko informazioa lortuko dugu. Hala ere, gizarte harremanak konplexuak direnez, sareen metodologia hau oso egoera mikrosozialetan aplikatu daiteke bakarrik. Aplikatu da "Euskararen Jarraipena" izeneko ikerketa batean eta, horren arabera, euskara erabiltzeko faktoreak dira, hurrenez hurren, norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea (zenbat eta gehiagok jakin, orduan eta erabilera handiagoa), norberak euskaraz eta erdaraz hitz egiteko duen erraztasuna,

norbera bizi den herriko euskaldunen dentsitatea (gune soziolinguistikoa), euskararekiko interesa eta jarrera...

Mintzagramak eta sareen teoria hau sare-mota askorekin erabil daiteke. Horien artean bat udal bateko langileen arteko sarea aztertzea izan daiteke eta ikasgaien Abadiñoko udala hartu eta laneko harreman formalak, laneko harreman informalak, lanetik kanpo lankideen arteko harreman informalak aztetzen dira. Horrela jakingo dugu, esate baterako, pertsona ez-euskaldun bat baldin badago taldean, zernolako maila, zentralitatea eta pisua duen eta nola eragiten dion udal horretan euskaraz funtzionatzeari.

Mintzagramak erabil daitezke ikastetxeetako Hizkuntz Normalizazioko Programetan. Horrela, Txillardegiren eredu matematikoetan oinarrituta, Xabier Isasik eta Lore Erriondok *Neur-kareletik* aplikazio informatikoa prestatu dute, *Branka* eta *Mintzagrama* aplikazioek osatua. Branka aplikazioak ikastetxeko osagai guztiak diagnostikatzeko balio du eta agerpena eta ezagutza neurtzen ditu alde batetik eta erabilera bestetik. Horretarako ikastetxeko estamentuak hartzen ditu kontuan (zuzendaritza, irakasleak, langileak, laguntzaileak, ikasleen jatorrizko hizkuntza, gurasoen hizkuntza...), liburutegia, hizkuntza paisajea eta udalerrria. Erabilera atalean, berriz, idatzizko erabilera (txostenak, aktak, inprimakiak, bulegoa, posta eta baliabide materialak) eta ahozko erabilera (zuzendaritza, langileak, gurasoak, ingurunea, irakasleak eta ikasleak).

Irakasle eta ikasleen ahozko jarduna deskribatzeko, *mintzagrama* erabiltzen du. Ikasleek beraiek adierazten dute, esate baterako, zein ikaskiderek dituzten harremanak euskaraz. Denenak jasotakoan, harreman sare bat lortzen dugu. Bost zirkulu zentrokideren bidez, harremanak islatzen dira: zentroago daudenek elkarrekintza gehiago dituzte kanpokoetan daudenek baino. Harreman-marren arabera talde horrek duen izaera ikusiko da: joera irekia (denek denekin elkarreragiten duten), ahula (bakar batzuetan kontzentratua) edo zatikatua (azpitaldeak agertzen badira). Horrez gainera, *Mintzagrama* aplikazioak hizkuntza-sarearen indizea (euskararen aldekoa edo gaztelaniaren aldekoa) eta euskararen erabilera indizea (talde zehatz horren barruan euskarak duen bizitasuna) ere agertzen dizkigu.

Familia bidezko euskararen jarraipena aztertzeko ere gizarte-sareen metodologia hau erabil daiteke eta hala egin du Arrutik. Hala, aktoreak familiakideak izango dira (aita,

ama, semea, alaba...); lokarriak, familia arteko loturak; zentralitatea, familiako harreman motaren arabera; harreman mota, batez ere sentimentala izango da. Hala, kokalekua, eskuragarritasuna, dentsitatea, maila... eta edukia, harremanen norabidea, iraupena, intentsitatea eta maiztasuna azter ditzakegu.

Azkenik, Jauregik doktoreko tesian egindako azterlan baten ondorioz sortutako *Kuadrillategi* programa azaltzen digu Kontxesi Berrio-Otxoak. Pasaia Antxon egin da asmo hau ,euskara ikastek laguntzeko jendeak elkarri eta hor ere harreman-sarea erabili da. Oinarrian, euskara ikasteko lagun taldea harreman-sare egokia dela uste izatea dago. Metodologiari jarraituz, soziogramak eta egin ziren, eta talde batzuek euskaldun hutsak ziren eta beste batzuek mistoak (euskaldun eta erdaldunetz osatuak).

Iruzkina

Hurbilpen edo metodologia interesgarria iruditzen zait sareena eta, batik bat, hizkuntza-sareen azterketara aplikatzeko daukan aukera. Ikastunitatearen zati handi bat sare horien funtzionamendua eta huraosatzen duten osagaien ezaugarriak azaltzera bideratua dago, eta alde horretatik ez diot iruzkina egiteko aukera handirik ikusten, ez bainaiz gai horretan aditua eta esandakoarekin fidatu behar baitut.

Interesgarria iruditu zait, hori bai, *soziograma* izeneko baliabidea eta Abadiñoiko Udaleko langileekin egin den aplikazio praktikoa. Nola islatzen dituen aktoreak eta haien arteko harremanak. Gainera, harreman formaletan, ez-formaletan, lanean eta lanetik kanpo... geuri egokien iruditzen zaigun esparruan aplika daitekeenez, errealitatearen ikuspegi osatua izateko aukera ematen digu.

Oso interesgarria iruditu zait *Neur-kareletik* izeneko aplikazioarena ere. Ez nuen horrelako tresnarik zegoenaren berririk, eta horren berri izatea ezustekoa izan da niretzat. Gerora izan dut hura ezagutzeko aukera, axaletik bada ere, eta oso tresna baliagarria iruditu zait. Hala, ikastetxeak programa hau aplikatzen duenean, bere benetako egoera zer-nolakoa den jakin ahal izango du eta non, zein ataletan huts egiten duen ikusiko. Horrela, zein neurri hartu behar diren aztertu eta adostu ahal izango du eta, handik epealdi batera, berriro aplikatu programa, hartutako neurriek egoera hobetzeko balio duten ikusteko.

Mintzagrama ere oso aplikazio interesgarria da. Harreman-sareak zernolakoak diren ikustea egoerari aurre egiteko ezinbestekoa da. Hori bai, era honetako metodologia guztietan gertatzen den bezala, aztertzen ari garen sarea osatzen duten partaideek zintzo eta egiaz erantzun behar dute galdeketa, bestela sartutako datuak ez baitira fidagarriak izango eta azterlanaren emaitzak alferrikakoak izango dira. Baina sarea aztertzeko baimena ematen duten unetik, egoera hobetzeko borondatea ere badagoela pentsatu beharko dugu.

Bestalde, mintzagramaren metodologia honi ikusten diot gabezia bat: ikasle batek, edo irakasle batek (aktore batek, azken batean) beste aktore askorekin izango dituela interakzioak. Eta sistema honetan euskarazko interakzioko aktore bat eta gaztelaniazko beste bat izendatzeko eskatzen zaio. Baina, jakina, aktore batek bere inguruan izaten dituen interakzio guztiak zehaztuko balitu eta hori aktore guztiekin egin behar balitz, aterako litzatekeen soziograma konplexutasun ikaragarrikoa izango litzateke, erabili ezina. Baina, lehentxeago esan dugun bezala, arazo garrantzitsuenak ezagutzeko baliagarria da.

Familiari aplikatuz egiten duen saioa ere oso interesgarria da. Garrantzia handia ematen zaio euskara familia bidez transmititzearen gaiari, gune hori baita ume batek hurbilen duena eta egunean zehar une garrantzitsuak igarotzen baititu gune horretan. Metodologia hau aplikatu ondoren familia horrek hizkuntza gaietan duen argazki ederra eskeiniko digu. Dena den, honetako azterketa bat egitea ezinezkoa da herri oso batean eta, beraz, transmisio aldetik hutsak dituzten familiak detektatu eta haien artean ere halako hautaketa bat egin beharko litzateke. Eta, hala ere, baimen guztiak eskatuta sartu.

Kuadrillategi asmoa ere oso interesgarria iruditu zait. Hizkuntza lantzeko edo normalizateko lagun koadrilak hartzea ondo dago. Esan berri dut ume batek, edo gazte batek, une garrantzitsuak igarotzen dituela familian. Ba, gure gizarte antolamendu honetan, koadrilak ere sekulako garrantzia du, gune horretan ere ordu dezente pasatzen ditugulako.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Ikasgaien agertzen zaizkigun proposamen praktikoak Azpeitian aplikatzeko oso interesgarriak dira. Entzuna dut Neur-kareletik aplikazioa aplikatua dutela herriko zenbait ikastetxe publikotan (Ikastolan behintzat, bai, oker ez banabil), baina ez dakit gainerakoetan eta pribatuetan-eta aplikatua dagoen. Komenigarria ikusten dut denetan jartzea martxan, ikastetxearen hizkuntz-egoeraren berri izateko. Gure herrian ikastetxe guztiak D ereduan ari dira eta norbaitek pentsa dezake ez dagoela arazorik. Baina iruditzen zait beti egoten dela zer hobetua. Agian ikastetxe barnera begira lortua izango dute euskaraz funtzionatzea (irakasleria euskalduna, zuzendaritza ere bai, bulegoak ere bai) baina langile ez-irakasleetan egon daiteke gabeziaren bat, edo liburutegian, edo baliabide informatikoetan... edo kanpora begira, hornitzaileekin-eta. Eta halako gabeziarik ez balitz detektatuko, askoz hobeto denontzat.

Udal mailan hizkuntz-sareak aztertzearena ere oso interesgarria iruditzen zait. Azpeitia ez da oso herri handia, Gipuzkoako maila ertainekoen artean dago, baina udalak ehun langiletik gora baditu. Eta horrelako metodologia bat martxan jartzeko sailen arabera banatuta edo egin beharko litzateke, egitekotan. Edo, agian, jendearekin harremana duten sailetan bakarrik egin... Langileen ehuneko handi bat (%80tik gora, iruditzen zait) euskaldunzaharra da, eta ahozko jardunean euskaraz aritzen dira bulegoan eta herritarrekin. Jendea hartzeko daudenak denak euskaldunak dira. Gehienak dagokien Hizkuntz Eskakizuna atera zutenak. Hala ere, badira halako "joera" batzuk, zenbaiten artean gaztelaraz aritzeko, ez dakit "modernoagoa" edo "chic" delako-edo. Idatzizko jardunean, berriz, euskararen erabilera jaitsi egiten da (barnerako erabileraz ari naiz, herritarrari helarazten zaion ia guztia bi hizkuntzetan ateratzen baita).

Kuadrillategi programa ere oso interesgarria da (barkatau sarritan errepikatu izana "interesgarri" adjektiboa): Dena den, lehen esan dugun bezala Azpeitian euskaldun kopurua oso altua da (%90 ingurukoa) eta hemen koadrillak berrez aritzen dira euskaraz. Hala ere, jabetu naiz badirela gazte eta nerabe koadrila batzuk (gutxi izango al dira!) euren arteko komunikazio-hizkuntza gisa gaztelara erabiltzen dutenak. Arreta pixka bat jarri dut eta ohartu naiz guraso erdaldunak dituzten neska-mutilak direla. Baina nire ustea da gazte horiek ikasketak euskaraz jaso dituztela, Azpeitian D eredia baita nagusi. Horrek pentsarazten dit, ikastaro honetako beste ikasgai batean agertzen den bezala, familia guneak eta hango komunikazio-hizkuntzak eragina duela gazteen hizkuntzarengan, agian eskola guneak baino gehiago. Agian behaketa modukoren bat egin beharko litzateke eta, kontuak bere

pisua baldin badu, pentsa liteke *Kuadrillategiren* moduko esperientziaren bat martxan jartzea.

Laburbiltzeko, beraz, oso esperientzia baliagarriak ikastaro honetan iradokitzen zaizkigunak (soziogramak, Neur-kareletik eta Kuadrillategi) eta gure herrian erabiltzeko modukoak. Horrela, aplikazio bakoitzak hartzen duen esparruan euskarak zer-nolako bizia eta indarra duen neurtzeko aukera izango dugu. Ez zait iruditzen gaizki aterako ginatekeenik azterketatik, baina agian ezustekoak ere jaso ditzakegu, eta gabezia eta hutsune batzuk aurkitu. Hala, arazoa zehaztu eta mugatu ahal izango genuke eta konponbidea jartzeko modua egin.

6

Seigarren ikasgaia:

Hizkuntza eskubideen lege estatusa

Xabier Iriondok prestatu du ikasgai hau "*Hizkuntza eskubideen lege estatusa*" izenburupean. Bost ataletan banatu du hizkuntza-zuzenbidearen inguruko lan hau.

1.

Sarrera gisa dio munduan 6.000-7.000 hizkuntza badirela, eta horietatik ehunka gutxi batzuk besterik ez dituztela bermatuak euren eskubideak. Hizkuntz eskubide horiek, gainera, bi ataletan bana ditzakegula: giza hizkuntza-eskubideak (oinarrizkoak, edonon babestu beharrekoak edonori) eta hizkuntza-eskubide arruntak (tokian tokiko hiztunei babestu beharrekoak). Eskubide horiek esan nahi dute norbanakoaren mailan hizkuntza propioa ikasteko eskubidea izango dela, hizkuntza propioan oinarritako hezkuntza jasotzekoa eta maila pribatuan eta zenbait gune publikotan hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea; maila kolektiboan, berriz, gutxiengoak izateko eta biziraupenerako eskubidea, hizkuntza garatzeko, eskolak antolatzeko, ordezkartza politikoa edukitzeko eta kultur-gaietan gutxieneko autonomia bat izateko eskubidea. Zoritxarrez, eskubide horiek ez dira babesten hizkuntza gutxituen kasuan.

2.

Bigarren atalari, "*Hizkuntza eskubideak ordenamendu juridiko estatuen menpe: hizkuntza eskubideak Espainiar estatuan*" izena eman dio. Hizkuntza eskubideak estatuen menpe daudenez eta bermatu behar dituztenak gehiengo linguistikoetako partaide direnez, estatuetako botereen borondatearen arabera babestuko dituztela hizkuntza eskubideak. Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluan sustraitzen dira eleaniztasuna eta hizkuntza eskubideen printzipio juridikoak: hizkuntzen ofizialtasuna, gaztelera ezagutzeko derrigortasuna, lurralde bateko berezko hizkuntza eta hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea.

Konstituzioaren arabera, gaztelarak daukan ofizialtasun berbera dute estatuko gainerako hizkuntzek, bakoitzak bere Elkarte Autonomoaren barruan. Horrek ondorio juridikoak dakartza: edozein harreman publiko eta pribatutan erabil daiteke, efektibotasun juridiko guztiekin. Beraz, hizkuntza aukeratzeko eskubidea dago eta honek eleaniztasuna dakar berekin, eta administrazioa zein botere publikoak egoera honetara egokitu beharra. Baita hezkuntza sistemetan hizkuntza ofizialen hezkuntza

bermatzekoa eta, Auzitegi Konstituzionalak bermatu duen bezala, modu eraginkorrean antolatzea, hizkuntza ofizialaren ezagutza nahikoa izan dezaten ikasleek beren ikasprozesua amaitzen dutenean. Bestalde, gaztelera ezagutzeko derrigortasuna adierazten du Konstituzioak baina, hala ere, beste hizkuntza koofizialak haren pare jartzen ditu maila juridikoan.

Zenbait Autonomia Estatututan, lurralde horretako berezko hizkuntzaren lehentasunezko erabilera sustatzearren, hizkuntza ofizialetako baten berezkotasuna azpimarratu da, Katalunian esate baterako. Dena dela, erabaki honek ezin du koofizialtasunaren printzipioa ahuldu: herritarrak aukeratutako hizkuntza erabiltzera behartua dago administrazioa. Hori bai, bere barne funtzionamendurako, bertako hizkuntza erabiltzea erabaki dezake. Horrez gain, hizkuntzagatik ezin da diskriminatu inor.

3.

Hirugarren atalak, "*Hizkuntza normalkuntza Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan*" izena darama. Bertan dio euskara eta gaztelera koofizialak direla EAEn eta estatus juridiko bera eta erarentza juridikoen parekotasuna bientzat. Horrela, koofizialtasunak EAEko botere publiko guztiei eragiten diela, ez bakarrik bertakoei baizik han dauden administrazio publiko guztiei (estatukoak eta justizia barne) eta hori Auzitegi Konstituzionalak hala erabakia du. Bestalde, Administrazio bakoitzaren esku dago koofizialtasunaren edukia praktikan jartzeko eskumena eta neurri zehatzak onartzeko eskumena, Elkarte Autonomoko botereak izango dira koofizialtasunaren edukia zein den zehaztuko dutenak. Horrela, Eusko Jaurlaritzak lege eta arau ugari eman ditu euskararen normalizaziorako.

Herritarrak berak erabakitako hizkuntzan bermatu behar zaio zerbitzua eta horretarako beharrezko diren neurri eta baliabideak jarri beharko ditu administrazioak: hizkuntz eskakizunak zehaztu eta derrigortasun epeak ezarri, dagozkion betebeharren arabera, arlo guztietan.

4.

Laugarren atalaren izenburua "*Hizkuntza eskubideak nazioarteko ordenamenduetan: hizkuntza eskubideen babeserako testu nagusiak eta jurisprudentzia*" da. Bertan dio aski berria dela Gutxiengo Linguistikoen babesa eta aitortpena, lehen gerrate mundialaren ondorengoa. Ukipen egoeran dauden hizkuntzen artean desberdintasunak eta gatazkak sortzen direla eta hizkuntz eskubideen babesa beharrezko ikusi zen. Hala, estatuetako ia konstituzio guztietan agertzen dira hizkuntza eskubideak, maila altuagoan edo baxuagoan. Hala ere, Europa mailako edo nazioarte mailako zenbait erakundetan (Giza Eskubideen Babeserako Europar Konbenioa; Europar Elkarteko Ituna; Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Konbenioa; Gutxiengo Nazional, Etniko, Erlijioso edo Linguistikoetako partaide diren Pertsonen Eskubideen Deklarazioa; Helsinkiko Gailurreko Erabakiak...) hizkuntza arazoei buruzko epaiak eman dira, baina denak ere nahiko murriztaileak izan dira eta, babes juridikozialari dagokionez, momentuz ez dago hizkuntza eskubideen babesik emango duen nazioarteko auzitegirik.

5.

Bostgarren atala "*Hizkuntza eskubideen deklarazio unibertsala: printzipio orokorrak*" izenekoa da. Atal honetan dio hizkuntz eskubideak babestuak eta errespetatuak izan daitezkeen, aurrena definitu egin behar dira. Horretarako bidea Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala da. Pen Club-ak eta CIEMEN-ek ikusi zuten horren beharra eta 50 aditu hasi ziren zirriborroa egiten, hizkuntza guztiek errespetatu beharreko gutxieneko eta oinarrizko eskubideena. Horren gainean Europako Kontseiluak emandako "*Europako Lurraldeetako edota Gutxiengoen Hizkuntzen Karta*" eta "*Gutxiengo nazionalen babeserako hitzarmen-markoa*" eta Nazio Batuek emandako "*Nazio, etnia, erlijio edo hizkuntza gutxiengoko kide diren pertsonen eskubideei buruzko Deklarazioa*". Hizkuntza hartzen dute subjektu gisa eta horietan oinarrituz Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalerantz abiatzea da helburua.

Iruzkina

Gai interesgarria da Xabier Iriondok bere ikasgaiari mahaigaineratzen duena, hizkuntza guztiek izan behar dituzten oinarrizko eskubideena alegia, edozein delarik ere haien hiztun-kopurua, egoera, status politikoa eta kokaleku geografikoa. Baina berak berehala aitortzen duen bezala, eskubide horiek ez dira errespetatzen.

Lehenengo eta behin, hizkuntza eskubide horiek onartu eta betearazi behar dituztenak hizkuntz gehiengoetako partaide izaten direlako (politikako nagusitasuna hizkuntza baten nagusitasunarekin dago lotuta beti) eta ez dagoelako sentsibilitaterik hizkuntza gutxituen alde, oso estatu gutxi batzuk kenduta. Edo, sarritan gertatu ohi den bezala, Deklarazio, Gutun eta antzekoak sinatu bai, eta onartze itxurak egin, baina gero haiek eskatzen dituzten konpromiso eta eginbeharrak betetzeko garaian uzkur ibili eta entzungor egin.

Interesgarria iruditzen zait Espainiako Konstituzioaren gainean (hizkuntzen ofizialtasunari dagozkion atalen gainean) egiten duen azterketa eta Auzitegi Konstituzionalak Espainiako Estatuan diren hizkuntzen gainean eman dituen epaiak eta hauek berekin dakartzaten ondorio juridikoak. Agian ez letorkiguke gaizki estatuko legeek ematen dizkiguten aukerak aprobetxatzea.

Espainiako Konstituzioaren 3.2. artikulua *“las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas comunidades autónomas de acuerdo con sus estatutos”* dio. Honek, Xabier Iriondoren arabera, esan nahi du gaztelera eta gainerako hizkuntzek ofizialtasun berbera daukatela (ez dagoela gaztelania besteen gainetik maila juridikoan) eta horren ondorio da edozein harreman publiko eta pribatutan erabil daitezkeela efektibotasun juridiko guztiekin, eta hizkuntza aukeratu dezakegula, bi geuk erabiltzeko, bai hizkuntza horretan jasotzeko erantzuna. Hots, herritarrek bi hizkuntzetatik nahi duena aukera dezake erakunde publikoekin aritzeko eta hauek bermatu egin behar diote aukera hori. Badakit hau bi ahoko ezpata dela, baina euskaldunok bermatua daukagu euskara erabiltzeko eskubidea (erdaldunek gaztelera erabiltzekoa bermatua duten bezalaxe) eta hizkuntzagatik diskriminatua ez izatekoa. Dena den, hau praktikan jartzerakoan sortuko dira oztopoak, herritarren zati batek ez badu euskara ezagutzen (baina hala gerta dadin esijitzeko eskubidea ematen digu).

Bestalde, koofizialtasunaren zereginak Elkarte Autonomoan dauden administrazio publiko guztiei eragiten diela adierazten du Xabier Iriondok. Hots, bai Elkarte Autonomoarenak bereak diren administrazioei, bai eta estatuak Autonomia Erkidegoan dituen ere, Justizia barne. Honek ondorio garrantzitsuak ditu euskararentzat eta euskaldunon eskubide linguistikoentzat, normalizazioa ez baitu mugatzen Autonomia Erkidegoaren baitatik sortutako botereetara, nahiz eta Estatuak Erkidegoan dituen administrazio-organoek hizkuntza ofizial bakarria balego bezala funtzionatu.

Beste puntu interesgarri bat zera da: Autonomia Erkidegoko botereek dutela eskumena koofizialtasunak norainokoa izan behar duen zehazteko. Hots, administrazio bakoitzaren (Erkidegoko zein estatuko) esku dago koofizialtasunaren edukia *praktikan* jartzeko ahalmena, eta koofizialtasun hori burutzeko neurri zehatzak hartzeko eskumena baina edukia bera zein den zehaztea Erkidegoko botereei dagokie. Zoritxarrez, Estatuko Administrazioak ez ditu martxan jarri koofizialtasunera egokitzeko neurriak, horrela Auzitegi Konstituzionalak berak erabakitakoa bete gabe utziz. Dirudenez, lege batzuk ez betetzea ez zaie batere axola, nahiz eurek osatzen duten administrazio-maila bereko erakunde batek emanak izan.

Eusko Jaurlaritzak emandako Normalkuntzarako Oinarrizko Legearen arabera, hiritarrok ditugun eskubideen artean daude EAEn bere egoitza duen edozein administrazio, erakunde edo entitaterekin hitzez zein ahoz euskaraz harremanetan jartzeko eskubidea; hezkuntza bi hizkuntzatan jasotzeko eskubidea; egunkari, irratitelebista saio eta beste edozein komunikabide-medioetako saioak euskaraz jasotzeko eskubidea; aktibitate profesional, laboral, politiko zein sindikalak euskaraz egikaritzeko eskubidea eta edozein bileratan euskaraz aritzeko eskubidea. Hau ere, zoritxarrez, botere autonomikoetatik sortutako erakundeek bakarrik betetzen dute herritarrek bi hizkuntzetako edozeinetan atenditzearena eta ez gainera beti, denok baitakigu zein den egoera soziolinguistikoa. Bestalde, estatu maila osoan funtzionatzen duten egunkari eta irratitelebistek ezer gutxi egiten dute euskaraz, batere ez dutela egiten ez esateagatik, jarrera folkloriko batzuk alde batera utzita. ETB1 eta Euskadi Irratia hor ditugu, herritarroi euskaraz eskaintzeko albisteak eta programak, baina horien parez pare ditugu ETB2 eta Radio Euskadi ere, euskaraz ulertzen ez duen entzuleriarentzat.

Hezkuntza arloan ere euskararen alde –hizkuntza gutxituen alde– egin du Auzitegi Konstituzionalak, hala baitio hizkuntza ofizialek irakaskuntzan izan behar duten lekuari buruz: *“...el estado en su conjunto (incluidas las comunidades autónomas) tiene el deber constitucional de asegurar el conocimiento tanto del castellano como de la lengua propia de la comunidad, que tenga carácter de lengua oficial (...), ello supone, naturalmente, que ambas lenguas han de ser enseñadas en los centros escolares de la Comunidad con la intensidad que permita alcanzar ese objetivo. Y tal deber no deriva sólo del Estatuto sino de la misma Constitución (art. 3)”*. Eta beste puntu batean esaten duena: *“...una regulación de los horarios mínimos que no permita una enseñanza eficaz de ambas lenguas oficiales incumpliría este deber*

constitucional" (STC 88/1983). Hots, honek bi hizkuntza ofizialak hezkuntzan behar den neurrian lantzeko bide ematen digu. Kontua da, ordea, gero herritarrak egiten duen aukera, A, B edo D ereduaren alde.

Bestalde, Europako Kontseiluak 1992ko ekainaren 29an hitzarmen modura onartu zuen *"Europako Lurraldeetako edota Gutxiengoaren Hizkuntzen Karta"*k dio babestu nahi duen objektua *"europar lurraldeetako edota gutxiengoaren hizkuntza"* dela, eta gure kasua 1. artikulua a) atalean sartutakoena izan daiteke, lurraldeetako edota gutxiengoaren hizkuntzat hartzen baititu *"i) Lurralde konkretu batean estatu kide talde batek tradizionalki erabilitako hizkuntzak, Estatuko biztanleriarekin konparatuz, talde gutxitua osatzen dutelarik."*. Eta hor sartuko ez bagina ere, bigarrenean honela dio: *"ii) Estatuko beste biztanleek hitz egiten duten/dituzten hizkuntza/hizkuntzekiko desberdina/k direnak."*. Dena dela, nik Hitzarmen honi horixe aurkitzen diot ahula: hitzarmena dela, ez legea, eta *"sinadurarako eta ratifikaziorako ireki zela"*. Hots, batetik hizkuntza gutxituak aintzakotzat hartzen dituela, baina ez diodala indar handiegirik egiteko moduko sendotasunik ikusten.

Txalogarria iruditzen zait PEN Club-aren *Comité de Traduccions i Drets Lingüístics* izeneko taldeak eta CIEMEN (*Centre Internacional Escarré per a les Minories Etniques i les Nacions*) elkarteak egin duten ekimena, Hizkuntza Eskubideei buruzko Deklarazio baterako zirriborroa eginez. Konturatzen naiz Deklarazio hau bultzatu dutenak katalanak direla, hauek beti ibili baitira gu baino aurreratuago legeak eta xedapen ofizialetatik aprobetxa daitekeena aztertze lanetan. 90 estatutako jendeak sinatu omen zuen Bartzelonan 1996ko ekainaren 6an, aurkeztu zenean. Zoritzarrez, ez dute estatuek edo botere politikoek sinatu eta horiek dira sinatu behar dutenak, gero eraginkortasuna izan dezan. Hizkuntza komunitatearen eta berezko hizkuntzaren definizioak ematen ditu eta hori aurrerapausu handia da. Honela, hizkuntz komunitateari buruz ari denean, zera dio:

"...hizkuntza komunitatea aipatzean esan nahi da edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz batean –eremua errekonozitua izan ala ez– finkatuz, bere burua herritzat daukana, eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetza".

Eta berezko hizkuntzari buruz, berriz:

"Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa deizioekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzairari egiten zaio erreferentzia."

Bi kasuetan definizioak argi eta garbiak dira baina hau irakurtzen dudanean burua galdera bat datorkit: gizarte horrek bere burua herrizat jotzerakoan, nortzuk izango dira aitorten hori egingo dutenak? *Euskal herritar* dezenterentzat, arrazoi politiko eta ideologikoak medio, Euskal Herrian ez baitago herri berezirik... Hots, teorikoki definizioak argi eta garbiak izan arren, praktikan jartzerakoan arazoak etorriko direla.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Ikasgai honetan landu den gaia oso orokorra da eta teorikoa, eta gure herrirako aplikazio *praktiko* bat aurkitzea ez da oso erraza. Dena den, hizkuntzaren aldeko lege eta xedapenak badaudela jakitea eta horiek gure alde erabiltzea behar-beharrezkoa. Horrez gain, estatuz gaindiko erakundeetan hizkuntza gaietan ematen diren xedapen, lege, direktiba eta antzekoak ezagutu behar ditugu eta aplikatu daitezkeen burruka egin. Eta legeria hau guztia herritik bertatik hasi behar dugu aplikatzen. Lehen, behar bada, administrazioaren pausua mantsuagoa zen, baina gaur egunean eskura ditugun baliabide informatikoak eta antzeko tresnak erabiliz, bat-batean eta egunean bertan izan ditzakegu hizkuntzei (eta hizkuntza gutxituei) buruz argitaratzen diren gaien berri. Sarea aprobetxatuz, gainera, interesatuak daudenen arteko *intranet* edo horrelako bat ere sor liteke, eguneratuta ibil gaitezen.

7

Zazpigarren ikasgaia:

Gizartea, euskara eta komunikabideak

Hiru lagun izan dira ikasgai honen arduradunak: Edorta Arana, Jose Inazio Basterretxea eta Nekane Jausoro. Formalki, bi zati handitan banatua dago, "*Euskara eta komunikabideak*" izenekoa aurrena, Edorta Aranak eta Jose Inazio Basterretxeak tajutua (bakoitzak bere azpiatala) eta bigarrena, berriz, "*Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak*" izenekoa, Nekane Jausorok eratu.

1.

Lehenengo zatiaren barruan bi azpiatal daudela esan dut. Lehenengo azpiatalak "*Euskararen ezagutza eta hedabideen hartzailegoa*" du izen, eta Edorta Aranak gauzatu du. Bertan dio Euskal Herrian altua dela kontsumo mediatikoa eta audientziaren aldetik aztertu nahi du hedabideen fenomeno.

Berriro ere garbi ikusten omen da maila politiko-administratiboan dagoen zatiketan bezalatsu, linguistikoki eta kontsumo-joeren aldetik ere hainbat berezitasun antzematen direla Euskal Herriko lurraldeetan. Iparralderako datu zehatzak lortzea zaila denez, Hego Euskal Herriko datuak darabiltza, hurbilpen gisa edo. Hala, dio eguneroko prentsa idatziaren indizea Hego Euskal Herrian 179,1koa dela, eta indize horren arabera Belgika (157,7), Irlanda (153,6), Frantzia (145,7), Espainia (105,5), Italia, Portugal eta Greziaren aurretik gabiltza, eta aurretik Finlandia (456), Britainia Handia (318,1) eta Alemania (305, 7) bakarrik daude, alde handiarekin denak ere.

Egunkari konkretuetara jaisten bagara, garbi ageri zaiguna da hiru egunkaririk irakurrienak El Correo (129.191 ale), El Diario Vasco (94.499 ale) eta El Diario de Navarra (63.762 ale) direla, hots, bertan argitaratu eta bertan zabaltzen diren egunkariak, baina nagusiki gazteleraz ateratzen direnak. Euskara hutsean dagoen egunkari bakarra zortzigarren postuan agertzen zaigu, 14.205 aleko tiradarekin. Ia-ia aurreneko egunkariaren hamarretik bat. Eta egunkariak ehunekotan duten irakurleriari erreparatzen badiogu, berriz, Correo-k 480.000 irakurle ditu, %30,5, Diario Vasco-k 336.000 irakurle, %21,3 eta Diario de Navarra-k 204.000 irakurle, %12,9. Euskaldunon Egunkariak 37.000 irakurle ditu, %2,3, hamargarren postuan.

Irratigintzari erreparatzen badiogu, SER Irratikatea da nagusi, 450.000 entzulerekin (%30,1) eta bigarren Euskadi Irratia dator, 308.000 entzulerekin (%20,7) baina azken hau euskarazko katea eta erdarazkoa bat eginik.

Telebistaren kasuan lehenengo bi kateak Espainiako estatu osorako emititzen dutenak dira: Tele 5 (%22,2) eta TVE1 (%21,3). Hirugarren postuan ETB2 dator, %18arekin. Euskaraz diharduen kate bakarra, ETB1, bostgarren postuan dago %6,6arekin.

Beraz, gauza bitxiak gertatzen dira hedabideen kontsumoarekin eta euskal hiztunen portzentajeekin, ez baitatoz bat euskara nahiko ongi erabiltzeko gauza garenon zenbakiak eta hedabide euskaldunak kontsumitzen ditugunonak. Bestalde, nagusiki erdaraz bizi diren medioek ez dute egiten erdaldungoaren eta euskaldungoaren arteko zubi lanik. Erdal medioetan ez da agertzen euskal munduaren erreferentzia handirik; euskal medioetan, berriz, gizartearen parte handiena erdaraz bizi denez, sarritan informatzen du erdaldungoaren errealitateaz. Horrez gain, erdal medioetan euskarari ematen zaion txokoa oso txikia da.

1.2.

Jose Inazio Basterretxeak hartzen du txanda ondoren, eta "Euskara eta egunkari eleanitzak" gaiaren inguruan jorratzen du bere azalpena. Bere esanetan, *"ezezaguna eta baztertua da gure inguruko eguneroko hedabide idatzi eleanitzetan euskal hizkuntza (...) Euskal Herrian salmenta erreferentzial finkatua duten egunkari konkretuak hartuta, euskal hizkuntzak jasotzen duen trataere ez da gizarte kulturantz bati legokiokeena"*.

Hizkuntzaren erabilerari so eginez, hemengo erdal egunkariak *salbuespen-egoerarekin* jokatzen dutela dio Basterretxeak; alegia, *"gizarte honetan bizirik dauden hizkuntzetako bat beren orrialdeetatik modu sistematikoan ignoratu egiten dutela"* eta izenak ere esaten ditu: El Mundo, El País, El Correo, El Diario Vasco, Diario de Navarra, Diario de Noticias, Periódico de Álava eta Sud Ouest.

"Portaera anekdotikoa" leporatzen dio bertan argitaratutako egunkari bati, Deia egunkari nazionalistari, hain zuzen ere. Maila honetan sartzen diren egunkariak, bere hitzetan, *"hizkuntza gutxiengotuan eskainitako informazioak irakurleari inguraten duen munduaren narrazio intelektualki asetzailerik eskainiko ez lioketen egunkariak"*

dira, "hizkuntza gutxiengotuaren agerpena medioan aseguraturik dago, nahiz eta kunplimenduzko jarrera baino ez duen islatzen".

"Bonsai-egoera" egozten dio, berriz, Gara egunkariari, bere hitzetan "hizkuntza gutxiengotuan idatzitako artikuluen bidez irakurlea munduaz informaturik modu minimo batez edukiko bailuke, nahiz eta, jakina, hizkuntza nagusiko irakurlea askoz hobeki informatuko bailuke (...) bonsai-ereduko hedabideak gizartearen isla garden dira: erakusten baitute zein den egoera soziolinguistikoa, baina egoera gainditzetik urrun daude. "

Egoera ideala beretzat parekotasun egoera da, baina oso urrun ikusten du. Egungo diskurtso mediatikoak ez du bermatzen hizkuntza-kolektibitateen arteko zubigintza lana. Hizkuntza eta borroka politikoa agian hurbilegi daudela oraindik dio, eta horrek bide ematen diela salbuespenzaleei, anekdotazala eta diglosiazale gehienei bere betiko diskurtsoarekin eta betiko postuetan irmo jarraitzeko. Ausardia eskatzen die hedabideei, erakunde publikoei eta herritarrei egoera diskriminatzaileak baztertzeko, araudiak sortzeko eta beharizanetara egokitzeko eta bere eskubideak aldarrikatzeko, hurrenez hurren.

2.

Bigarren zatia, "Hizkuntzen inguruko gizarte diskurtsoak" izenpean, Nekane Jausorok idatzi du. Lehenengo eta behin, gizarte harremanak ez direla orekatuak dio, ezta simetrikoak ere, baizik eta botere harremanetan oinarrituak daudela eta gatazkatsuak direla. Pierre Bordieu-ren teoriari jarraiki, *legitimitatea* eta *onargarritasuna* bereizten ditu. Aurrena, adierazi beharrik gabe egiten dena dela, eta adierazi gabe egin daitekeena eta funtzionatzeko espazio sinboliko berea behar du izan; bigarrena, berriz, adierazitea egin daitekeen zerbait da eta legitimitatea baino gizarte-maila azalagoko mekanismoa.

Gizarte-diskurtso hitzarekin esan nahi dena da hizkuntzaren gaineko esanahiak nola eraikitzen dituzten hiztunek eta ez-hiztunek. Diskurtsoen bitartez hizkuntzaren klabe sinboliko-imaginarioak azter ditzakegu eta, horrela, gizarte-legitimazioko prozesuetan murgildu. Urteen joanean egin diren hiru ikerketatako datuak izan arren, bat hartu du oinarri (Donostiako 16-19 urte arteko gazteek euskararen aurrean dituzten diskurtsoen azterketa) eta hiru gizarte-diskurtso aurkitu dituela aipatzen du: diskurtso euskaltzalea, indiferentea eta kontrakoa.

Kontrako diskurtsoan hizkuntza gaztelania da, euskara urrun dago euren egunerokotasunetik. Etxean gaztelaniaz burutzen dira harreman sareak. Erreferentzia osagarria eta etnizitatearen erroa Espainia da, ez Euskal Herria edo EAE. Euskara eskolako kontu bat da, derrigorrezko ikasgai bat eta ez diote ikusten zentzurik, ez baitu ezertarako balio, ez lanerako, ez hemendik kanpo. Euren nortasun hizkuntza eta komunikazio hizkuntza gaztelania da. Kalea ere gaztelaniaz da eta ez dute onartzen euskara izatea lehenengo hizkuntza, hori gaztelania delako. Jatorrizko hizkuntzaren lekua gaztelaniarena da, nortasun hizkuntza ere bai, nortasun espainola baitute. Transmisioko funtzioa ere gaztelaniak du. Euskaradunekin harremanak dituztenean, gaztelania da komunikazio hizkuntza, eurek ez baitakite euskaraz. 'Ez dute inplikazio ideologikorik euskarekiko, ospe gabeko eta interesgabeko hizkuntza baita; inplikazio praktikorik ere ez dute, ez baitakite euskaraz eta euren eguneroko bizimodua gaztelaniaz egiten dute arazorik gabe. Gainera, euskarari eta euskaradunei ez diete gizarte-legitimitaterik onartzen, transmisioko hizkuntza bakarra gaztelania delako beraientzat.

Indiferentzia diskurtsoan, ez da euskara baztertzen baina ez dute finkatuta dagoen egoera aldatzeko beharrik ikusten, ez aldarrikatzen. Lehenengo hizkuntza gaztelania da eta euskara *beste* hizkuntza da. Euskaldun izatea elementu biologikoak (bertan jaiotzea) edo borondatezko aukerak (bertakoa sentitzea) gauzatzen du, euskarak ez du horretan zerikusirik. Harremanak gaztelaniaz edo euskaraz izateari ez diote garrantziarik ematen. "Etxea" gunean zenbait erdaradunak dira baina badaude euskaradunak ere, eta azken hauek euskara erabiltzerakoan abantaila dute besteekiko (etxean euskara ikasi baitute). "Eskola" gunean gaztelaniaz da harreman hizkuntza bakarra, nahiz zenbait alde badauden. "Kalea" gunean egunerokotasuna gaztelaniaz gauzatzen da eta denda eta zerbitzuetan gaztelaniaz erantzun dakiela eskatzen dute eta probokazioa iruditzen zaie *besteak* euskara erabiltzea. Euskara, "ikastolakoekin", "herrietakoekin" eta "borroka/erradikalekin" lotzen dute. Koadrilan euskaradunak eta erdaldunak batera dabiltzanez, euren arteko harremanak gaztelaniaz dira.

Jatorrizko funtzioa gaztelaniak betetzen du erdaradunentzat eta euskarak euskaradunentzat. Transmisioko funtzioa, berriz, gaztelaniak bi kasuetan, hau baita bi taldeek dakitena. Euskararekiko inplikazio maila arduragabekoa da, beraiei arazorik edo lanik sortzen ez dien neurrian jarrera positiboa da. Ideologikoki euskarari onartzen diote leku bat gizarte mailan, nahiz eta mugatua izan. Arlo praktikoan ez

dira inplikaten, ez gazte bezala, ez etorkizuneko guraso bezala ere (ez dute garrantziko ikusten euskara jakitea, gero euren seme-alabak euskalduntzeko, hori eskolaren zeregina omen da). Ez dira errudun sentitzen euskara ez dakitelako, eta ezagupenaren diskurtsoa da, ez euskaraz bizitzea.

Diskurtso euskaltzalean, berriz, ikuspegi dinamikoa dute euskararekiko eta egoera aldatu behar dela uste dute. Euskararekiko atxikimendua dago eta nortasun sentimendua. Euskarak balio berezia du, Euskal Herriko hizkuntza da eta eurena. Euskal Herriko lehenengo hizkuntza euskara da, eta gaztelania bigarrena (batzuentzat hau *beste* hizkuntza da; beste batzuentzat, *inposatua*). Taldeetan zenbait euskaraz hitz egiteko gauza dira eta beste zenbait ez. Euskaldun izan/euskaldun sentitu bereizten dute, euskaldun izatea ez baitute jaiotzarekin lotzen, hiritartasunarekin baizik. Euskal nortasuna ez dute lotzen hizkuntza komunitatearekin, atxikimendu komunitatearekin baizik, eta azken hau garrantzikoagoa da hura baino. "Etxea" gunean, gurasoak euskaradunak badira, etxea euskaraduna da; guraso erdaradunak edo euskaradun ez osoak badira, etxea erdaraduna. "Eskola" gunean hizkuntza ohitura gaztelaniazkoa da, irakaslearekin eta "herrietakoekin" izan ezik, eta honek bermatzen die euskaraz aritzea. "Kalea" gunea ere gaztelaniaz da, Gaztelaniaz *inguratuta* sentitzen dira eta ezinezko zaie egoera horri aurre egitea. Ideologikoki euskaraz aritu beharra aldarrikatzen dute baina gero gaztelania da egunerokoan euren komunikazio hizkuntza nagusia, zenbaitek lotsa du euskaraz aritzeko. Koadrila mistoetan, taldeko interakzioa eta aldamenekoarekiko interakzioa daude: aldamenekoarekin, euskaraz baldin badaki, euskaraz arituko da.

Jatorrizko funtzioari dagokionez, euskaradunetan euskarak du funtzio hori. Etxeko hizkuntza gaztelania dutenen artean, euren jatorrizko hizkuntza gaztelaniak da, baina euskarak betetzen du funtzio jatorrizko-sinboliko hori. Transmisioko funtzioa nagusiki gaztelaniak betetzen du, euskaradunen artean ere. Alegia, eguneroko kontuetan gaztelaniaz bizi dira nagusiki. Kale mailan ikusten dute gaztelania dela nagusi eta transmisioko funtzioa betetzeko hizkuntza hori gizarte osoak edo gehienak ezagutu behar du eta gainera legitimoa dela onartu behar da. Lagunartean, euskaradunen eta erdaradunen arteko harremana gaztelaraz egiten da, adiskidetasunaren izenean denek dakiten hizkuntza erabiltzen baita. Lotsa sentitzen dute, beldur dira erdaraduna *molestatuko* ote den euskaraz aritzen badira. Hala ere, euskaradunak ez dio erdaradunari *esijitu* egiten euskara *ikastea*, euskara *maitatzea* baizik.

Iruzkina

Egunkari, irrati eta telebista kontsumoa aztertzen du Edorta Aranek bere lanean. Eta garbi ikusten da euskaradunok oraindik ere gaztelerazko hedabideak hautatzen ditugula informazioa jasotzeko. Egunkarien arloari eusten badiogu, esate baterako, euskara hutsean diharduen egunkari bakarrak zortzigarren postuan dago, 14.500 aleko salmentarekin. Horren aurrean, eta Gipuzkoari loturik, El Diario Vasco egunkariak 94.499 ale saltzen ditu, ia zazpi aldiz gehiago. Eta kontuan hartu behar dugu, salbuespen guztiak salbuespen, Diario Vasco "probintzia mailako" egunkaria dela (hor dugu, bere pareko Bizkaian, El Correo, beste 129.191 ale saltzen dituena, eta gainerako probintzietan ere izango direla beste egunkari batzuk), eta Euskaldunon Egunkaria, berriz, Euskal Herri osoa hartzen duen egunkaria dela. Aurretik datozen ohiturak ez da erraza aldatzea.

Egunkari bakoitzak sortzen dituen "inpaktoak" aztertzen dituenean ere, euskarazko egunkaria atze samarrean geratzen da: zazpigarren postuan, 2,6 irakurlerekin aleko, El Diario Vasco-k 3,7 dituenean, El País-ek 3,9 edo El Mundok 3,9. Hemen ere nahiko atzera geratzen da euskara.

Ehunekoka azterzen duenean ere, euskarazko egunkaria atzean agertzen da, hamargarren postuan, irakurleen %2,3arekin. Gipuzkoako egunkari nagusiak, El Diario Vasco-k, %21, 3ko portzentajea du, hots, ia hamar aldiz gehiago. Lehen bezalaxe, kontuan izan dezagun gainera Diario Vasco "probintziarako" egunkaria dela eta Egunkaria, berriz, Euskal Herri osorako.

Datu abtsolutuetan ere kopuruak garbiak dira: euskarazko egunkariak 37.000 irakurle ditu, Euskal Herri osokoak; Diario Vasco-k, berriz, 336.000 probintzia bakarrean, lehen esan dudan bezala, salbuespen guztiak salbuespen. Oraingoan ere, ia hamar aldiz gehiago.

Hemendik ateratzen den hausnarketa da euskaldunek, hots, euskara menderatzen dutenek, erdal egunkariak irakurtzen dituztela eskuarki. Horren aurrean, kontuan izan behar da urte askotako ohiturak aldatzea zaila dela, egunkari konkretu batek informazioa banatzen duen era zehatzarekin "eroso" sentitzen dela jendea eta lehengoari eustea ez dela kostatzen. Bestalde, eta euskararen egoera soziolinguistikoa kontuan hartzen badugu, oraindik ere asko dira, gehiengoa, euskaraz ongi mintzatzeko gauza izan arren irakurtzeko hain gauza ez direnak,

hizkuntza idatzia menderatzeko zailtasunak dituztenak. Horrek ere esplika dezake egunkarien kontu hau. Eta, bestalde, *euskaraz egote* hutsagatik ere ez duela jendeak egunkaria erosten: ildo editorialak baldintza dezake irakurlearen hautua, edo egunkariak eskaintzen dituen atalak (kirolari ematen zaion orri kopurua, esate baterako, edo zein kirolen berri ematen duen), ematen dituen gehigarriak eta haietako informazioa... hamaika arrazoi.

Irratigintza alorrean ere gauzak ez dira oso pozgarriak, nahiz eta hobeto dauden: Euzko Irratia (??) bigarren postuan agertzen da 308.000 entzulerekin (%20,7), Cadena SERen ondoren (450.000 entzule, %30,1). Baina hemen ere badago tranpa: Euskadi Irratiak, euskaraz ari denak, zenbat entzule ditu? Nire iritziz, Radio Euskadi, gazteleraz ari dena, izango da entzuleria horren eta ehuneko horren zatirik handiena hartuko duena. Hots, berriro ere euskaradunok ez ditugu euskaraz sortutako irratia entzuten. Zein izan daiteke horren arrazoia? Ahoz-entzutez euskara menderatzen dugunok ez guke arazo handiegirik izan behar irratia ulertzeko, berez (nahiz eta oraindik ere entzuten den "euskara berri hori ez dugu ulertzen" eta antzekorik). Zein da, orduan, ez kontsumitzearen arrazoia? Lantzen diren gaiak ez direla interesgarriak? Egia da, bai, gazteleraz arlo guztietako gaiak landu daitezkeela, gai horietan adituak diren pertsonak nonahi aurki daitezke eta. Euskaraz zenbait gai lantzeko ez dago euskaraz aritzeko gai den aditurik, edota azalpenak emateko erabiltzen den euskara ez da eredugarrien artean jartzekoa eta baliteke horrek atzerakada sortzea jendearen artean. Baina irratia modernoa eta herritar guztiengana iristeko modukoa lortu nahi badugu, era guztietako gaiak tratatu behar dira. Beraz, betiko gurpil zoroan murgildurik gaude.

Telebista kontuetan ere antzera gabilta. Euskal Telebistaren bi kanalek %24,6ko audientzia dute, baina kopuru horren zatirik nagusia (%18) gazteleraz ari den kateak du, ETB2k alegia. Euskara erabiltzen duen kateak, berriz, %6,6ko audientzia du. Hemen ere, euskaradunok %25-30 baldin bagara, garbi ikusten da erdal kateetara lerratzen dela euskaldungoaren zati handi bat. Zer gertatzen da euskaraz ari den katearekin? Zein da horren ikusentzulego txikia izatearen arrazoia? Irratiaren kasuan esan dugun bezala, gai interesgarriak lantzeko aditu euskaradunik ez izatea? Aitortu beharra dago aurrez prestatutako programetan (teleserieak, pelikulak, dokumentalak eta abar) euskara txukuna erabil daitezkeela, baina zuzenean egin behar diren programetarako (debateak, talk-show-ak, gau aldeko programak...) gai hau edo hura tratatzeko adina jende euskaldun aurkitzea ez da erraza, eta txukun hitz egiteko gauza dena, are zailagoa. Berriro ere lehengo paradoxa bera. Horrez

gain, zenbait jendek denbora pasatzeko besterik ez du nahi telebista (gaisoak eta zaharrak datozkit burura, baina gazte osasuntsu askoren gogoa ere hori izan daiteke) eta horretan estatu mailako kate jeneralistetan antolatzen diren zenbait programa oso erakargarriak dira, diru asko jarrita egindakoak (hortik zenbaitek dituzten milioi askotako zor ikaragarriak). Eta guk EAE txiki honetan, era horretako eskaintzari aurre egiteko zailtasunak, nahi eta nahiez.

Bestalde, eta Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza izanik ofizialak, egunkari arloan – eta beste entzunezko eta ikusentzunezko hedabideetan– parekotasun egoera lortzea oso urruti ikusten du Jose Inazio Basterretxeak eta hainbat arau eta proposamen egiten ditu. Zoritxarrez, euskararen auzian lerro ezberdinak, ugari eta kontrajarriak (iritzi eta ikuspegi politikoak, nazionalak, gizarte arlokoak, ekonomikoak), gurutzatzen dira eta horien guztien ondorio da gaur egun dugun egoera.

Hizkuntzen inguruko gizarte-diskurtsoen gaia aztertzen du Nekane Jausorok, Donostiako 16-19 urte arteko gaztetxo ikasleekin egindako ikerketa baten eskutik. Oso azterketa trinkoa da, datu eta ondorio ugari eskaintzen dituen. Egoera zehatz batean egina da, hiriburuko giro soziolinguistikoa, baina ematen dituen datuak ez dira oso positiboak.

Kontrako diskurtsoa A ereduko talde batean sortu zela dio, nahiz eta taldearen barruan gutxiengoa izan zela ere badioen. Etxean, kalean eta eskolan, leku guztietan gaztelania dela ardatz eta gainera halaxe izan behar duela, eta euskara "obligazioa"rekin lotua ikusten dutela, ezertarako balio ez duen gauza baten antzera, euskara hizkuntza "erregionala", folklorikoa eta ez dutela inplikazio ideologikorik, ez eta inplikazio praktikorik: euren eguneroko bizimodua gaztelaniaz dela eta ez dutela euskara jakiteko gogorik ere. Harrigarri samarra egin zait era honetako baieztapenak entzutea 16-19 urteko gaztetxoen ahoetatik, euskal hezkuntza sistema martxan jarri ondoren jaio eta hezkuntz sistemara sartutako gaztetxoak izanik. Are gehiago euskararen normalizaziorako neurriak inori minik eman gabe ezartzen direnean, edo saiatu bederen. Gazte horien ingurunearen, gurasoen, egoera soziala, linguistikoa, politikoa, integrazio-maila eta iritziak jakitea interesgarria izango litzateke.

Indiferentziaren diskurtsoa da aztertzen duen bigarren aukera. Hau dio A ereduko gazte gehienengan eta B ereduko batzuegan hedatu dela. Euskara ez dutela baztertzen, baina arduragabetasuna dela nagusi, ikuspegi estatikoa dutela eta *statu quo*-a onartzen dutela. Euskara, EAEko *beste* hizkuntza da beraientzat eta lehenengo

hizkuntza gaztelania da. Euskararekiko nortasun sentimendurik ez dute eta *vasco* izan daiteke euskararik jakin gabe. Etxe aldetik batzuk euskaradunak eta besteak erdaradunak badira ere, kale eta eskola eremuek gaztelaniaz funtzionatzen dute. Euskaraz funtzionatzen dute "herrietan", "ikastolakoek" edo "borroka/radikalek", hots, euskaren ideia "aldeanoa" edota, bestela, "politizatu" dute. Irudi hau arriskutsua iruditzen zait, euskarari berriro ere etiketak jartzen zaizkiolako eta horrek hizkuntzaren kontra egiten du: ni ez nahiz ez "aldeanoa" ez "borroka", beraz, bereizteko gaztelera erabiliko dut nire egunerokotasunean.

Diskurtso euskaltzalearen azalpena egiten du azkenik Nekane Jausorok. D ereduoen eta B eredutik etorritakoen artean agertzen dela dio. Euskara "gure hizkuntza" gisa sentitzen dutela eta horrek inplikazio ideologikoa adierazten duela: euskara Euskal Herriko lehenengo hizkuntza da. Gaztelaniaren aurrean, berriz, bi irudi dituzte: batetik, beste hizkuntza dela eta, bestetik, inposizioarena. Gainera, jarrera han dutenen artean gauza bitxia gertatzen dela dio: Etxetik batzuk gaztelaniadunak izanik eta beste batzuk euskaradunak, batzuek euskaraz mintzatzeko gauza direla eta beste batzuk, berriz, ez, baina *desioaren* mailan gauzatzen dela diskurtsoa (euskaltzaletasuna) eta *atxikimendua* da beraientzat garrantzitsua.

Eskola eta kalea gaztelaniaz burutzen dela dio. Eskolaren gunean, irakaslearekin eta "herrietakoekin" euskaraz aritzen dira, hala ere. Kalearen aurrean, berriz, oso diskurtso nahasia ikusten dut: gaztelaniaz inguratuta sentitzen dutenez bere burua, hizkuntza horretan aritzen dira, ideologikoki euskaraz aritu behar dutela pentsatzen badute ere. Gainera, euskaraz erraztasunik ez duten gazteei oso egokia zaie gaztelaniaz aritzea. Euskaradun diren gazteak, berriz, besteak ez *behartze*agatik, gaztelania onartzen dute. Garbi ikusten da, praktikan, ideologia mailan aldarrikatzen dutena betetzeko prest ez daudela.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Bailara oso euskalduna da Azpeitia kokatua dagoen hau. Isla bat, inguratzen gaituen erdal itsasoaren erdian. Egunerokoa euskaraz egiteko arazo handirik ez dago hemen. Baina egunkarien kontsumoari begiratzen badiogu, euskaraz ateratzen den egunkariak ez du irakurle askorik eta, erosten dutenen artean, ez da erosten duten egunkari bakarra. Zenbaitetan ez da militantismoa urruti ibiliko.

Irrati arloan gauzak zertxobait hobeto doazen susmoa dut: Azpeitian dezente entzuten da Loiola Herri Irratia, baita Arrate eta Segura Irratiak ere. Eta hauek euskaraz aritzen dira emisioen portzentaje handi batean. Euskadi Irratiak badu bere entzule kuota, baita Radio Euskadik ere. Gazteen artean, Euskadi Gazteak du entzutea. Agian beste zenbait eskualdetan indartsu diharduten SER, Onda Cero eta halakoek entzungo dira, baina ez dute indar handiegirik. Hots, euskaraz diharduten irratiak dira nagusi, nire ustetan.


Telebistari buruz ez dakit zer esan. Gaztelaniaz aritzen diren kateak Estatu mailakoak dira eta diru-baliabide handiak dituztenak. Horrek esan nahi du entretenimendurako eta denborapasarako programa ikaragarriak (kirolak, barietateak, kantariak...) egiteko gauza direla. Eta badakigu, besterik esan arren, jendeak telebista piztu eta "mugimendua" ikusi nahi duela, ez debateak eta dokumentalak. Beraz, nire susmoa da estatuko kateak izango direla nagusi Azpeitian ere, nahiz eta albisteak entzuteko edo Goenkale ikusteko ETB jarri.

Egunkarien eta irratiaren kasuan, nire iritzia da jendeak era horretako hedabideak kontsumitzen dituela bere ingurune hurbileko albisteak ematen dituzten neurrian, norbanakoa bizi den herriaren berri izaten laguntzen dielako. Alegia, zenbaitetan entzun izan dut El Diario Vasco-ren abantaila dela herrietako kronikak eta hildakoen eskelak dakartzala. Hau da, norbaitek bere herriko notiziak jakin nahi baditu, herriko kronika irakurtzen du; nor hil den jakin nahi badu, eskelak begiratu. Beraz, agian hori izan liteke bidea beste egunkarientzat ere.

Bestalde, pentsatzen dut Nekane Jausorok egin duen azterlana beste era batekoa izango litzatekeela Azpeitian. Zer motatako diskurtsoa aterako litzateke? Azpeitian - eta Urola Erdia bailaran, eskuarki- euskaldunen portzentajea %85etik gorakoa da, eta beraz, kaleak ez du gaztelaniaz hitz egiten, gazteak ez dira gaztelaniak *inguratzen* dituen sentrazio horrekin bizi; bestalde, Etxetik ere gazterik gehien gurasoak euskaldunak dira. Badira, hala ere, familia mistoak (ezkontideetako bat erdaraduna dena) eta familia erdaldun hutsak ere. Horiek zernolako portaera dute euskararekiko?

Eskola guneari bagagozkio, berriz, azken urte dezentetan eskola guztiak D ereduan ari dira. Horra joaten dira euskaldunen eta erdaldunen seme-alabak ikastera. Zernolako portaera dute errekreio edo atsedean garaian gaztetxoek? Horietatik zenbait euskararako irabaziak izango ditugu. Gurasoengandik seme-alabenganako hizkuntz-

transmisioak iruditzen zait gertatzen dela. Hala ere, kalean entzuten dira oraindik gaztetxo eta nerabe koadrila batzuk (ezin dut koantifikatu kopuru absolututan zenbat izan daitezkeen eta hori ehunekotan zenbat den). Uste dut Mikel Zalbide dela ikastaro honetako beste ikasgai batean, dioena eskola ez dela nahikoa pertsona baten hizkuntz-jokabidea aldatzeko. Esan berri dugu Azpeitiko ikastetxeetan D ereduan dihardutela ikasleek. Beraz, kalean gazteleraz jarduteko hautua egin duten horiek badituzte beste eragin batzuk ere. "Etxea" gunea da horietako bat, Nekane Jausororen azterlanaren arabera. Eta zenbaiten kasuan hala da, koadrila erdaldun horietako gazteen gurasoak erdaradunak dira. Oso portzentaje txikia izango da (hutsa ez esateagatik) familia euskaldunetatik etorri eta gazteleraren hautua egiten dutenen kasua. Familia mistoetatik datozen gazteetan bi aldeetarako joerak aurki daitezke, sarritan koadrilakoen artean hizkuntza bateko eta besteko hiztunek duten kopuruaren arabera, besterik gabe. Dena dela, euskararen ezagutza nahikoa ia denek izango dutelakoan nago.



Zortzigarren ikasgaia:

Euskal Herriko hizkuntza egoera: statusa

Bi lagunen artean tajututako ikasgaia dugu zortzigarren hau, Jon Aizpuruak eta Kontxesi Berrio-Otxoak, hain zuzen ere, eta bakoitzak gai horren gaineko atal bat jorratu du: "*Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa*", Jon Aizpuruak eta "*Gaztetxoan hizkuntza egoera eta bilakaera soziolinguistikoa*" Kontxesi Berrio-Otxoak.

1.

Jon Aizpuruak bost ataletan banatu du bere lana eta sarrerakoan adierazten digu Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ezaugarri nagusiak adieraztea dela bere lanaren asmoa. Horretarako azken hogei urteotako bilakaera aztertzen du eta, horren bidez, euskararen norabidea zein izan daitekeen azaldu nahi du. Lana gauzatzeko informazio-iturri ezberdinak erabili dituela ere adierazten du: Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta (1991koa eta 1996koa), Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentso eta Erroldan euskarari buruzko zenbait galdera egin omen ziren eta horiek ere erabili ditu (1981etik hona EAEn eta 1986tik Nafarroan egiten dira hauek, bost urtez behin). Dena den, ikerketa hauek guztiek badituzte hutsak: edo ez dira Euskal Herri osoan eginak (Iparraldea edo Nafarroa falta da bat edo bestetan), edo ez dute biztanleria osoa hartzen bere baitan (15 urtetik beherakoak ez, zenbaitetan).

Honez gain, kontuan izan behar da Euskal Herri linguistikoa hiru egitura politiko-administratibotan banatua dagoela (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Iparraldea) eta erakunde hauetako bakoitzean dauden alderdi politikoak eta interesak ez direla berberak euskarari dagokionez.

1.2.

Hala, beraz, adierazitako datu estatistikoak erabilita, Euskal Herriko biztanleen hizkuntza-gaitasuna aztertu nahi du. Lehenengo hurbilketa, Soziolinguistikazko Inkesten bidez egin du eta, beraz, 15 urtetik beherako gaztetxoak kanpoan geratzen dira, "*euskaldunen portzentajerik handiena, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, batik bat, duten adin-taldeak*" bere hitzetan.

1996ko Inkestaren arabera, 12.400 euskaldun elebakar omen daude (euskaraz ongi hitz egiten dutenak baina erdaraz mintzatzeko zailtasunak dituztenak), guztiaren %0,5; elebidunak, berriz (hots, euskaraz zein erdaraz ongi moldatzen direnak), 534.100 lagun omen dira, %22; elebidun hartzaileak, hots, euskaraz ongi ez hitz egin arren, inolako zailtasunik gabe ulertzen dutenak euskara, 352.900 lagun omen dira (%14,5) eta erdaldun elebakarrak (gaztelaniaz edo frantsesez besterik ez dakitenak), 1.528.700 lagun omen dira, %63. Ondoren, lurraldeka eta eskualdekako banaketa egiten du, eta dio euskaldunen portzentajea handiagoa dela zenbat eta iparraderago eta ekialderago egin. Atal honi amaiera emateko, hizkuntza-gaitasunaren bilakaera eta hizkuntza-gaitasun erlatiboaren datuak ematen dizkigu.

1.3.

Hirugarren atalean, euskararen ondorengoetaratzea aztertzen du, eta dio euskara jasotzeko bi bide nagusi daudela, familia bidezko transmisioa eta eskola bidezkoa. Aurrenak, etxean, gurasoengandik jasotako hizkuntza(k) adierazten du; bigarrenak, berriz, etxean gurasoek transmititutako hizkuntza ez den beste bat jasotzea. Horrela, euskararen ondorengoetaratzeari buruzko neurketa eta datuak agertzen ditu, hainbat aldagaien arabera neurtuak: etxean guraso biak euskaldunak izan, bat euskalduna eta bestea ez, biak erdaldunak eta abar. Eskola bidezko ondorengoetaratzean, berriz, hizkuntz-ereduen araberrako azterketa egiten du.

1.4.

Laugarren atalean "Euskararen erabilera" puntuan, hizkuntzaren erabilera zenbat eremutara eta eremu bakoitzean zenbateraino dagoen zabaldua aztertzen du, Fishman-ek *Reversing Language Shift* lanean egin zuen antzera. Horretarako, euskaldunak bakarrik hartuko ditu kontuan (hots, elebidunak eta euskaldun elebakarrak), guztira 15 urtetik gorako biztanleen %22,5a, hain zuzen ere. Hala, hainbat eremu hartu ditu, euskara zenbatean erabiltzen den neurtzeko: familian (amarekin, aitarekin, senar edo emaztearekin, seme-alabekin eta etxean orohar), gertuko komunitatean (lagunartean, dendariekin, lankideekin, merkatuko jendearekin eta apaizarekin) eta gizartean (bankuko sukurtsalean, udal-bulegoetan, seme-alaben irakasleekin eta osasun-zerbitzuetan) eta gero, euskararen erabileran eragiten duten faktoreak aztertu, bai eta adinaren arabera ere.

2.

Kontxesi Berrio-Otxoak, berriz, "Gaztetxoan hizkuntza egoera eta bilakaera soziolinguistikoa" gaia aztertu du bere zatian. Horretarako, *Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara* izeneko lana erabili du, 13-14 urteko gazte nerabeekin egindakoa. Kontxesik ere, bost ataletan banatu du bere lana eta, Jon Aizpuruak egin bezalaxe, egundoko datu andana aurkezten du, inkestetako datuak gurutzatuta ateratakoa, eta erabat ezinezko zait denak agertzea. Esate baterako, lehenengo atalean, "Hizkuntza transmisioa" izeneakoan, nerabeen lehen hizkuntza aztertzen du, gurasoen hizkuntza gaitasunaren arabera, lehen hizkuntzaren bilakaera eta nerabeen iritzia, beraien hizkuntza transmisioari buruz.

2.2.

Bigarren atalean, "Euskarazko gaitasuna" izenpean, hiztunen tipologia agertzen digu hizkuntza gaitasunaren arabera, elebidunen tipologia hizkuntz gaitasun erlatiboaren arabera, hiztunen tipologiaren bilakaera, elebidunen ezaugarriak, hizkuntza gaitasun komunikatiboa eta hizkuntza gaitasunaren bilakaera.

2.3.

Hirugarren atalean, "Euskararen erabilera" izenpean, euskaraz aritzeko nahikoa gaitasun duten gaztetxoak hartuz, haien jarduera zenbaterainokoa den aztertzen du, lehenengo zatian Jon Aizpuruak helduekin egindakoaren antzera. Hala, hizkuntzaren erabilera aztertzen du hainbat jarduera edo eremutan (pentsamendu hizkuntza, etxeko hizkuntza, denak elkarrekin daudenean nola aritzen diren, etxeko solaskideekin banaka, lagunarteko hizkuntza, eskolaz kanpoko jardueretako hizkuntza eta gustukoenak dituzten jardueretarako hizkuntza), euskararen erabileraren bilakaera familian eta lagunartean), euskarekiko iritzia eta hizkuntza hautapena eta, bukatzeko, EAEko gaztetxoan euskararekiko iritzien bilakaera egiten du, bi urteren (1993 eta 1999) arteko aldea neurtuz.

Iruzkina

Esan berri dugun bezala, datu ugari aztertu dituzte bai Jon Aizpuruak eta bai Kontxesi Berrio-Otxoak. Aurrenak, 15 urtetik gorako biztanleei dagozkienak; bigarrenak 13-14 urtekoei buruzkoak. Eta bai eman ere haien hausnarketatik

ateratako emaitza ugari ere, arlo askotakoak: portaerak, joerak, hizkuntza-erabilerak, norekin eta noiz erabiltzen duten euskara... Ezinezko zen, benetan, haien emaitzak laburrean ematea, denak baitziren interesgarriak eta esanguratsuak.

Zerbaiti heltzekotan, bi kasuetan azken ondorio gisa egiten duten hausnarketari helduko nioke. Jon Aizpuruak dio Euskal Herriak duen ezaugarriarik nabarmenetakoa aniztasunarena dela. Bestalde, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegokoa dela euskararentzat egoera positiboena. Elebidunen portzentajea asko hazi dela eta honen arrazoi moduan euskara hezkuntza-sisteman sartzea aipatzen du; gainera, datozen urteetan ere gorantz jarraituko duela elebidunen kopuruak. Lagunarteko erabileran ere gora egin duela, euskaldunen dentsitatea asko hazi delako. Familia bidezko transmisioan ez dagoela ia galerarik baina ez dela hazkunderik ere antzematen, elebidun diren gazteen gurasoak oraindik neurri handian erdaldunak direlako. Eskola bidez euskaldundu diren gazte elebidun horiek bere familiak sortzen dituztenean egingo duela gorantz familia bidezko transmisioak.

Nafarroan ere joerak EAEkoen antzekoak direla dio, baina elebidunen hazkundera txikiagoa dela. Erabileran jaitziera ari zela gertatzen gazteen artean, baina beheranzko joera hori moteldu egin dela eta horren guztiaren ondorioz datozen urteetan euskararen erabilerak gora egingo duela uste du baina, hori bai, *“azken aspaldian agintari nafarrek hartutako neurriak areagotzen ez badira behintzat”*.

Iparraldean, berriz, adierazle nagusien arabera euskara etengabe beherantz doa arlo guztietan, eta dio gaur egun ez dagoela bermaturik euskarak bizirik irauteko behar duen atalase-maila bera ere. Dena den, esaten du biztanleen erdia ados dagoela euskararen irakaskuntza eta erabilera bultzatzeko neurriak hartzearekin.

Gaztetxoen artean egindako ikerketak aztertu ondoren, Kontxesi Berrio-Otxoak ere Aizpuruak emandakoen antzeko datuak ematen ditu: EAEn berreskurapen saioak, Nafarroan berreskurapen asmo galgatua eta Iparraldean euskararen gainbehera. Hala ere, euskal lurraldeak ez dira homogeen euskararekiko auzian eta lurralde bakoitzaren barruan eskualdeek ere joera ezberdinak dituzte. Martínez de Luna-ren hitzak bere eginez esaten duen bezala, *“gizarte moderno orotan bezala, Euskal Herriko egungo marka bereizgarrietako bat aniztasuna da, eta aniztasun hori, kultura eta bizimoldeetan bezalaxe, hizkuntza ezagutza, esperientzia eta jarreretan ere islatzen da”*.

Baieztapen hauek ikusita, lehenengo burura datorkidana da euskararen ofizialtasunak laguntza handia eman diola euskarak EAEn izan duen emaitzari. Garbi ikusten dut neuk behintzat, Nafarroa eta Iparraldeko datuek hala ematen didate aditzera. Egia da erakunde ofizialen aldetik datorren laguntza ez dela aski, bere horretan, hizkuntza bat galzoritik ateratzeko, baina "haizeak bere alde" izatea beti ere mesedetan da, ahalegin txikiagoa egin behar baita aurrera jotzeko. Eta hizkuntza ofiziala izateak berekin dakartzan onurak nabarmen sentitzen dira, ofizialtasuna ematearen ondorioz euskarak esparru guztietara hedatzeko aukera baitu, oztopo eta trabarik gabe. Etxeparek behinola esan zuen "euskara, jalgi hadi plazara" orain gertatzen da oso-osorik, nahiz eta kontra ez egon arren, oso alde ez daudenak ere guk nahi baino gehiago izan.

Euskara eskoletara iristea izan da ofizialtasunaren emaitzetako bat, eta garbi ikusten da hori ere onurako izan zaiola gure hizkuntzari. Badakit, bai, eskolan euskaraz aritzea ez dela aski hizkuntza normalizatzeko, baina aldeko haizea da hau ere (edo aldeko olatua, estropadez ari bagara). Inoiz izan den ikasle-kopururik euskaldunenak ateratzen ari zaizkigu eskoletatik, eta oraindik bere ingurune soziolinguistikoak laguntza handirik ematen ez badie ere, asko dira euskara ulertzeko eta are erabiltzeko gai diren gaztetxoak. Gero neurtu beharko da jardun horren kalitatea eta beste hainbat kontu, baina euskaraz bederen ari dira. Eta hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

Eta gaztetxo horiek kalea euskalduntzen duten neurrian, helduagoak ere euskalduntasunari heltzeko lota txikiagoa dute. Hainbat urtetan zapalduak bizi ondoren (galdetu bestela gure gurasoen belaunaldiari), pozez ikusten dute hain neke handiz, erdi izkutuan eta zigortuak izateko arriskuarekin, heldu zioten euskara berriro bere lekua irabazten ari dela gizartean, guk nahi baino pauso geldoagoan bada ere. Gizartearen sektore handi batek gainera, euskararen aldeko apostua egina du, horien artean erdaldun diren askok. Hauek, euskararen mundura iristeko zailtasunak badituzte ere –adina edo beste zenbait baldintza soziolinguistiko direla medio– euren seme-alabak bederen euskaradun nahi dituzte eta hori aurrerapausu handia da.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Egoera soziolinguistiko berezikoa da gure herria. Aurreko ikasgairen baten iruzkina egiterakoan azaldu dut dagoeneko Azpeitian, eta Urola bailaran eskuarki,

euskaldunen portzentajea handia dela. Horrek berorrek euskararen aldeko joera naturala dakar, "normala" egiten baita euskaraz aritzea eguneroko jardunean. Eta dena elkarlotua dagoenez, euskara menderatzen ez dutenen jarrerak ere errazago lerratuko dira euskararen aldeko jarreretara. Hala, eta beti baldin badago ere aurka (edo "ez alde") egongo den gutxiengo bat, Azpeitiko erdaldunek euskararen aldeko joera barneratua dute neurri handi batean. D eredia aspaldi hedatu zen gure herrian, eta, hala, erdaldunen ahotan entzuten da *"ni neu zahartu naiz euskara ikasten hasteko, baina nire seme-alabek badakite, eskolan ikasi dute eta"*.

Herritar euskaldunen artean, berriz, euskara eguneroko behar guztietarako hizkuntza da, ahozko erabileran. Familietan erabat gertatzen da hizkuntzaren ondorengoetaratzea eta Jon Aizpuruak adierazten dituen esparruetan erabilera erabatekoa da (familiar, gertuko komunitatean eta gizartean). Hots, euskaldunak eusten dio euskarari esparru horietan. Beste kontu bat da idatzizko erabilera aztertu beharko bagenu, hor kontua ez baita hain pozgarria.

Alegia, euskarak bere estatusa irabazia du Azpeitian eta Urola bailaran, baina ez dugu lo gelditu behar, hizkuntza handiagoek beti beren alde baitituzte haizeak.

9

Bederatzigarren ikasgaia:

Euskalgintzaren nondik norakoak

Iñaki Arrutik tajutu du 34 orrialdeko ikasgai labur hau, *"Euskalgintzaren nondik norakoak"* gaiaren inguruan. Hiru atal nagusitan banatu du bere lana: *"Euskararen aldeko mugimendu sozialak historian zehar"*, *"Mugimendu sozialaren esanahia"* eta *"Euskararen aldeko mugimendu sozialaren etorkizuna"*.

1.

Lehenengo atal handi horretan, gizartetik euskararen alde eman diren mugimenduen azalpena egiten digu Iñaki Arrutik, Intxausti hartuz oinarri. Honen hitzetan, dio euskararen aldeko mugimendu sozialen historia idazteke dagoela. Dena den, historia horretarako bideak irekiz, adierazten digu aro modernoan (XVI-XIX mendeak) jadanik eman zirela era horretako mugimenduak: Etxepare "isolatua" kontuan hartuz; Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571), Sara eta Donibane aldeko eskola (1617-1643) eta Euskal Herriaren adiskideak (1764-1794). Ondoren Abadiaren garaitik (1853) azken karlistadaren bukaerara (1876) arteko aldia dator, L.L. Bonaparte barne dela. Azkenik, Eusko Pizkundea (1896tik 1936ra) aipatzen du, hiru aldi edo etapa bereiztuz.

Ikuspegi kronologikoa alde batera utzita, epe horretan aritutako mugimendu euskaltzaleak bost tipologiatan banatzen ditu Intxaustik, eta ondorioz, Iñaki Arrutik:

- hizkuntzaren aldeko taldeak: Asociación Eúskara de Navarra", "Consistorio de las Fiestas Florales Eúskaras", "Eskualzaleen Biltzarra", "Euskaltzaleak", "Eusko Pizkundeko taldeak eta, nola ez, Euskaltzaindia bera.
- aldizkarien inguruko taldeak: Euskal Erria, Euskal Esnalea, Euskal Herriaren alde...
- elkarte erlijioso, kultural eta politikoetakoak: Jesus'en Biotzaren Deya, Zeruko Argia, Kardaberaz Akademia, Jaungoiko-zale, Argia, Euzkerea...
- ikertzaileen lantaldeak: izen jakinik gabekoak zenbait; baita R.M.Azkue ere.
- Ikertzeko harreman sareak: Revista Internacional de Estudios Vascos-en inguruak.

1936ko Gerra Zibilak lan hauek guztiak gelditu zituen hainbat urterako.

1950ko hamarkadaren hasera aldera hasi zen berriro fraile eta apaizgaitegietan euskararen aldeko mugimendua eta hortik gizartera zabaldu: Arantzazuko Amaren Egutegia, Anaitasuna, Karmel, Jakin, Goiz-argi, Olerti... Familia izan zen euskarari eusteko gunerik sendoena. 60ko hamarkadan, berriz, lehenengo ikastolak sortu ziren, helduen euskalduntze-alfabetatzea, udako euskal unibertsitateak, euskal udalekuak... Idatzizko komunikabideez gain, irratiak ere hasi ziren (Loiola, Arrate, Segura, Gure Irratia...) baita kultur aste, kantaldi, OARGI taldeak, EKTak...

XX. mendearen amaiera aldera, euskalgintza erabat hedatu da. Autonomia Estatutua onartzearekin batera, euskal instituzioak sortu eta aire berriak etorri ziren: 80ko hamarkadatik aurrera, Euskal Herrian Euskaraz, Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB), Arrasate Euskaldun Dezagun (AED)... eta azken urteko "euskalgintza berria". 1990. urtetik aurrera herrietan euskara elkarteak ugaritzen hasten direla dio Iñaki Arrutik, AEDren moldearen antzera. Eta 1997an, berriz, *Euskararen Unibertsoa* jardunaldiak eta horietatik sortu zen *Kontseilua*, plan estrategikoa, Bai Euskarari kanpaina, Hizkuntz Eskubideen Behatokia...

2.

Bigarren zatian, "Mugimendu sozialaren esanahia" izenburupean, mugimendu soziala zer den zedarritzen du Iñaki Arrutik. Bi definizio dakartza, bata Jesús Casquette-rena eta bestea Imanol Agotek BAT aldizkarian argitaratua. Ondoren, mugimendu sozialak aztertzeko sortu diren hainbat teoriaren berri ere ematen digu (teoria klasikoak, Baliabideak Mobilizatzearen Teoria, Mugimendu Sozial Berrien Teoria), ikuspegi soziologikotik eta ikuspegi soziolinguistikotik.

3.

Azkenik, 3. atalean, "Euskalgintza Etorkizunean" puntuari ekiten dio. Euskara normalizatu behar al den eta zergatik galdetzen du aurrena, eta hainbat arrazoigatik baietz erantzun ondoren, horretarako zer egin behar den eta nork egin behar duen galdetzen du. Lehenik eta behin esaten du euskara biziberritzea euskal hiztun komunitatearen nahian oinarritzen bada, hizkuntz komunitate horrek berak duela hizkuntza normalizatzeko prozesuaren erantzukizuna, Baina eragile politikoek ere erantzukizun handia dutela prozesuan eta administrazio publikoak euskara biziberritzeko apustu indartsua egin ezean, ezinezkoa izango dela euskararen erabilera normalizatzea. Baia estamentu ekonomikoek ere (enpresa, kooperatiba, sindikatu...) zeresan handia omen dute. Produktuen eta zerbitzuen eskaintza eta

eskariak ere bai, bezeroak euskaraz kontsumitzeko ohitura hartzen dugun neurrian saltzaileak ere hartara egokituko direla. Eta, horrez gain, norbanakoon jokabideak ere pisu handia duela (euskara kalitatez ondorengoetaratzuz familian, euskarazko irakaskuntza eta aisialdia aukeratuz, lagunarte euskalduna sortuz, euskarazko komunikabide eta kultur produkzioa kontsumituz... euskaraz biziz, hitz batean).

Euskararen aldeko gizarte ekimen horrek etorkizunean ere jarraitu egin behar duela dio Iñaki Arrutik. Baina Gobernuak eta estamentu ekonomikoek ere bere parte bete behar dutela. Hiru estamentuen beharra dago aurrera egiteko, hirurek elkarri eraginten diotela eta horietatik bat falta baldin bada, aurrera egitea zaila dela edo, behar bada, ezinezkoa.

Bere lanari amaiera emateko, mugimendu sozial horrek etorkizunean nolakoa izan behar duen hausnartzen du Arrutik: herritarrengan txertatutako mugimendua, partehartzailea, ilusioa eta kontzientzia sortaraziko duena; profesionala, egiten duena kalitatez egingo duena, estamentu sozioekonomikoetan eragiteko eta elkarrekin lan egiteko gaitasuna izango duena, gobernuetan ere eragin eta elkarlana egingo duena, gizartearen euskararekiko jarrerak, gaitasuna eta erabilera bultzatu eta positibizatuko dituena, hizkuntza komunitatea artikulatuko duena... eta mugimendu sozial erromantikoa izatetik instrumentalagoa izatera pasatuko dena, mugimendu politikoagoa izatetik kulturalagoa izatera pasatuko dena, gizartearen partehartzea aktiboagoa izatetik pasiboagoa izatera pasatuko dena, mugimendu militanteagoa izatetik profesionalagoa izatera, erakunde publikoei aurre egitetik elkarlanera pasatuko dena eta "mugimendu" izatetik enpresetako jardun-ereduekin aritzera pasatuko dena.

Iruzkina

Bistakoa da herriak –herritarrok– ez badugu euskara erabili nahi, gainerako lan eta ahalegin guztiak aski alferrikakoak direla. Botere politikoa izateak berak ere ez du, bere kabuz bakarrik, hizkuntza baten biziraupena ziurtatzen. Hurbileko kasu bat aipatzearen, hor dugu Irlanda. Eta alderdi honetatik esan beharra dago gure aurretik izan diren euskal hiztunek hizkuntzarekiko atxikimendu handia izan dutela. Ez alferrik geure buruari "euskaldunak" izena eman diogu, "euskaradunak", alegia. Hizkuntza izan da nortasuna eman diguna, besteren artean talde diferentziatu gisa irudikatu gaituena, botere politikoaren, ekonomikoaren edo gainerakoien gainetik.

Gizarteko maila guztietako jendea, pentsamolde eta iritzi guztietakoa, izan da euskara gorde eta erabili duena bere eguneroko bizitzan. Hala ere, izan dira –eta badira, oraindik ere– Euskal Herrian zenbait sektore euskararen mundutik urrun bizi direnak. Horiek erakarri behar ditugu euskararen mundura. Arrazoiak ugari izango ziren euskaratik urruntze edo ez onartze hori gertatzeko, buruak adina aburu, ziurrenik ere. Horien artean ez da txikiena izango euskarak azken urteotan, alde batetik eta bestetik, jasan duen politizazioa. Eta hizkuntzak ez du kolorerik izan behar, hizkuntza komunikatzeko tresna bat besterik ez da. Horregatik, adjektibo guztiak kendu eta bere soiltasun –eta handitasun– huts horretan jarri behar dugu. Hortik ikusten dut nik erronka handia dugula: euskara denona eta denontzat dela onartzera iristea. Egia da gaur eguneko krispazio sozial eta politikoak ez diola mesede handirik egiten euskarari; dena eraso moduan hartzen dugu. Zenbaitek, gainera, ahoz aldeko iritziak bota eta barrutik ez du ezertxo ere egiten euskararen alde. Aurka egiten ez badu, kontent gainera. Euskara tirabira horietatik atera behar dugu, lasai eta pakean bere bidea egin dezan aurrera.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Azpeitian egoera aproposalan bizi garela iruditzen zait. Herri euskalduna da, bere hizkuntz nortasuna gordetzen jakin duena, bailara osoak bezalaxe. Euskara da herriko biztanleen harreman-hizkuntza. Gainera, badago euskararen aldeko joera hori, ez dakit “kontzientzia” esan ala ez. Guraso erdaldunen semeak ere D ereduko ikastetxeetara joaten dira eta horrek esan nahi du etorkizunean seme-alaba horiek elebidun izateko aukera izango dutela. Gero, beraiek erabakiko dute zein hizkuntzatarako hautua egin. Dena dela, eskolan euskaraz aritu arren, kalean euren arteko elkarrizketetan zenbait talde gazteleraz somatzen ditut. Ez dakit zein den horrela aritzen direnen portzentajea, baina batzuk behintzat aukera hori egin dute. Agian Euskara Patronatoaren zereginetako bat izan daiteke era honetako azterlan bat egitea.

Bestalde, herrian jendeak euskaraz funtzionatzen du kultur eta kirol talde eta elkarteetan. Hala ere, talderen bat edo bestetan, kirol arloan nabaritu dut behintzat, gaztetxoekin-eta ibiltzen diren monitore eta trebatzaile guztiak ez dira euskaraz aritzen, nahiz eta portzentajea txikia den. Beraz, alde horretatik Euskara Patronatoak zeregina izan dezake. Herritarrak, gainera, normaltasun osoz ikusten dute kirol eta

kultur jarduerak euskaraz egiten direla, haiek iragartzeko kartel eta oharrak euskaraz daudela... eta, beraz, euskararen aldeko "egun" berezirik antolatu beharrik ez dago. Normaltasun osoz euskaraz aritze hori berori izan daiteke euskararen aldeko mugimendu sozial hori bizirik dagoenaren seinale. Dena dela, aitortu behar dugu lan-munduan eta beste hainbat sektoretan euskaraz aritzeko aukerak txikiagoak direla eta horietan indar egin beharko da, herritarrengandik beroiengandik hasita, euskarak esparru horiek ere irabazi ditzan beretzat.

10

Hamargarren ikasgaia:

Euskara eta teknologia berriak

Hau ere ikasgai laburra da, 23 orrialdekoa eta Andoni Sagarnak idatzi du. Sarrera eta bost ataletan, euskarak eta teknologia berriek duten eta izan beharko luketen harremana du aztergai.

1.

Atarikoan dio euskararen geroa informazioaren eta jakintzaren gizarteak dituen eta izango dituen ezaugarriek baldintzatuko dutela. Materiaren eta energiaren erabileratik beste arlo batera pasa direla iraultza ekonomikoaren erroak, informazio-teknologiaren arlora, hain zuzen ere. Aldaketa hauek bizitzaren arlo guztietan izango duela eragina eta, bereziki, hizkuntzan, hori delako, hain zuzen ere, informazioaren euskarria gehien-gehienetan, tratamendu informatikoen bidez. Eta oraindik ez bada ere hainbeste nabaritzen hizkuntzaren tratamendu informatikorako tresnen beharrik, ezinbesteko bihurtuko direla. Dagoeneko ari zaizkigula sartzen testuak idazteko eta editatzeko lagungarriak, dokumentuen kudeaketa elektronikoa, datu-baseentzako bilatzaileak, itzultzeko lagungarriak, hizketa ezagutzeko eta sintetizatzekeo tresnak, hiztegiak, eskaner eta OCRak eta, zer esanik ez, bideojokoak, sakelako telefonoak, ordenagailu pertsonalak...

Horrela, "Informazioaren eta jakintzaren gizartea" izeneko lehenengo atalean, dio informazioaren gizartea muga politiko eta geografikoak apurtzen ari dela arlo askotan, hala aisialdiko aukeretan nola industriaren produktibitatean edota administrazio arloko lanean. Telelana, teleikasketak eta telemedikuntza sortzen ari zaizkigu, besteak beste.

2.

Bigarren atalean, "*Informazioaren gizartearen eragina hizkuntzan*" izenpean, adierazten digu informazioan oinarritzen den gizartea ari dela hedatzen mendebaldeko gizarte aurreratuetan (eta Euskal Herria ere hor txertatua dago), eta horrek hizkuntza idatzia menderatzen duten pertsonak eskatzen dituela, kalitatezko hizkuntza gainera, ordenagailuek hala eskatzen dutelako. Ingelesa da interneten eta teknologia berrietan nagusi, baina gero aplikazio horiek mundu osoko bazterretan txertatuko direnez, tokian tokiko hizkuntzek ere garrantzia handia dute. Besteak

beste, toki horietan jende asko egongo delako ingelesa menderatzen ez duena eta bakoitzari bere hizkuntzan gauzak aurkeztea egokiagoa delako. Eta gaur egungo tresna informatikoak ari dira "itzulpen" horiek egiteko baliabideak sortzen. Ezintasunen bat duten pertsonak ere asko dira (itsuak, paraplejikoak, besamotzak...) eta horietatik askok aginduak ahoz ematea errazagoa lukete. Horretarako ordenagailuak hizkuntza hori ulertu egin behar du, eta denak ez dira ingelesez arituko.

3.

Hirugarren atalak "*Informazioaren gizartea eskatzen ari denari ez erantzuteak dituen ondorioak*" du izena. Andoni Sagarnaren arabera, informazioaren gizartean murgiltzeak ekarriko dituen ondorioetan hiru eragile daude: teknologikoak, ekonomikoak eta sozialak. Gaur egun ditugun teknologiekin, edozein hizkuntzatako edozein eduki, bai idatzizkoa, bai ahozkoa, trata daiteke. Alegia, alderdi teknologikotik ez dago inolako ezintasunik. Baina teknologia hauetako bakoitza gero herrialde edo hizkuntza bakoitzari egokitu behar zaio eta honek alderdi ekonomikoari ukitzen dio, teknologia hauetan egunera egoteko ahalegina garestia baita. Atzetik ekonomia sendoa ez duen hizkuntzak etorkizun iluna du eta bizitza ekonomikoan komunikazio-tresna izateko prestatua ez dagoenak ere bai. Andoni Sagarna beraren hitzetan, "*neurri politiko egokiak hartu ezean, euskarak ez du garapen teknologikorik izango, merkatuko legeak ez dituelako alde, laneko hizkuntza, eta bizimodu modernokoa oro har, ez da izango eta etorkizunik gabe geldituko da*".

4.

Laugarren atala, "*Erronkari erantzuteko landu beharreko arloak*" izenpean datorkigu. Bertan dio informazio- eta telekomunikazio-teknologiek erabiltzen dituzten azpiegitura fisikoak (makinak, sareak) neutroak direla hizkuntzarekiko, baina informazioa metatzeko, tratatzeko eta transmititzeko aplikazioak eta edukiak hizkuntza bakoitzerako prestatu behar direla. Ondoren, hizkuntza prozesatzeko teknologien munduan dauden ildo nagusiak aztertzeari ekiten dio:

- a) Gizakiak sortutako ahozko mezuen tratamendua: Alegia, gizakiak bere hizkuntza naturalean ahoz jaulkitako mezuak makinek jaso eta horrek ondorioak izatea. Honek aplikazio ugari izan ditzake: hiztuna identifikatu nonbaitera sartzen uzteko, dokumentu batean idatziz zenbait hitz txertatu, etxea ahozko aginduz gobernatu, errenta aitorpenerako hitzordua lortu... Horretarako badira hainbat tresna jadanik garatuak, hainbat hizkuntzarentzat.

- b) Testuen ezagutza automatikoa: Idatzizko hizkuntza datu elektronikoa bihurtzea, gero geuri komeni zaigun tratamendu elektronikoa emateko (gorde, zerbait bilatu...), eskuz idatzitakoa ulertzeko modua egin, paperean ditugun dokumentuak formatu digitalera pasa OCR bidez (karaktereak ulertzeko programak).
- c) Hizkuntzaren analisia eta ikerkuntza: hizkuntza batean idatzia dagoena automatikoki, gizakiaren partehartzerik gabe, ulertzeko baliabideak, gero beste hizkuntza batera pasatzeko, esate baterako.
- d) Hizkuntza natural idatziaren sorkuntza: ordenagailuan gordeta daukagun informazioa hartu eta hizkuntza naturalezko testuak sortzeko tresnak.
- e) Hizketa naturalaren sorrera: aurrekoa idatzizkorako bazen, oraingoan ahotsa sintetikoki sortzea da helburua, baina tonu eta erritmo naturalean.
- f) Dokumentuen prozesamendua: Sortzen diren dokumentu, egunkari, txosten eta abar informatikoki gorde eta antolatuta edukitzea ere oso komenigarria da gaur egun, gero informazio horretaz baliatzeko behar den unean.
- g) Itzulpen tresnak: Gaur egungo mundu teknologiko honetan hizkuntza batetik besterako itzulpenak gero eta beharrezkoagoak dira. Teknologian eta industrian aurreratuen dabilzan nazioak normalean ingelesa erabiltzen dute eta gure hizkuntzara informazio hori guztia ekartzea ezinbesteko da.

Hauez gain badira beste hainbat arlo ere landu beharrekoak.

5.

Bostgarren atalean, "*Hizkuntza-plangintza eta zientzia, teknologia eta berrikuntza-planak*" puntuari heltzen dio Sagarnak. Aurrez esan duen bezala, berriro ere azpimarratzen du merkatuaren indarrek ez dutela hizkuntza ahulenen alde jokatzeko, egin beharreko inbertsioak handiak baitira eta hedadura txikiko hizkuntzekin lortuko den etekina oso txikia. Beraz, hizkuntzaren bizitzaz arduratzen diren erakundeek hartu beharko dute honen ardura bere gain, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, eta honen bidez gaiarekin zerikusia duten erakunde eta elkarteei "bustiarazi". Ildo honetatik Eusko Jaurlaritzak "*Ikerkuntza Zientifikoaren 2000-2003 Plan Nazionalaren 'Informazioaren gizartea' Area sektorialerako 'Hizkuntzaren Industria'*" ekimena jarri zuen martxan eta Europako Elkarteak ere baditu antolatuak hainbat programa, Europako hizkuntzetan teknologia hauek bultzatzeko. Halere ez dira asko euskararako egokituta dauden aplikazioak.

Iruzkina

Ikastunitate honen gaia teknologia berriena da. Informazioaren gizartean gaude murgilduak eta mendebaldeko gizarte teknifikatuan gero eta langile gehiago dira materia lantzen aritu ordez informazioa lantzen dihardutenak. Telelana eta antzeko aukerak ere gero eta arruntagoak dira. Ordenagailua etxe askotan sartua dago eta oraindi kgehiagotan sartzen ari da. Eusko Jaurlaritzak berak ere "*Konekta Zaitetz*" eta antzeko ekimenak martxan jarri ditu, euskal gizartea internetera konekta dadin. Gure herrietan zuntz optikoak ari dira sartzen, eta horren bidez telebista eta teknologia berriak etxekotuko zaizkigu. Mundu zabala dugu aurrean, eta euskarak ere hor egon behar du. Baina Andoni Sagarnak agerian jartzen diguna da euskara ez dagoela hor sartua. Hizkuntza txikiek zailtasunak dituzte mundu horretan sartzeko, teknologia horiek garatzen ari diren enpresen helburua dirua irabaztea delako eta euskararena merkatu txikia da, etekin handirik emateko gauza ez dena. Ondorioz, informatikako enpresa handiek euren produktu eta aplikazioak ateratzen dituztenean, ingelesaz kanpoko hizkuntzetara itzultzen dituztenean produktu horiek, ez dute horrela jokatzen helburu erromantikoek bultzatuta, diru-irabazien bideari jarraituz baizik.

Baina mundu hori ere euskararentzat irabaztea ezinbestekoa da. Egunaren bueltan lantokietan ordu asko ematen ditugu eta horietan ere euskaraz aritzea behar-beharrezkoa zaigu. Egia da, bai, badirela dagoeneko zenbait aplikazio –gutxi badira ere- euskaratuak daudenak. Hor ditugu, besteak beste, Microsoft-en Word testu-prozesatzailea eta Office ofimatika pakete osoa, baita posta elektronikorako nabigatzailea ere. Zuzentzaile ortografiko bat ere prestatu da euskararentzat, IXA taldearen eskutik. Panda antibirus programa ere euskaratu da eta helburu teknikoagoetarako aplikazioak sortzeko ere ari dira lanean. Ohiko sozietate anonimoen diru-gosetik aparte dagoen Linux sistema eragile irekia eta Mozilla nabigatzailea ere euskaratu dela eta laster batean Open Office ofimatika paketea ere euskaratuko dela jakin berri dut, Euskararen Berripaperaren bidez. Baina hori guztia egin ahal izan da Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza eman duelako, ez enpresa horiei bururatu zaielako. Eta gero zaletasun kontuak ere badaude: adibide gisa, posta elektronikoa kudeatzeko programak dozenerditik gora izango dira merkatuan. Baina euskara bat, edo gehienez bi, itzuliko dira. Beste nabigatzailearen bat erabili nahi duenak, gazteleraz erabili beharko du. Eta, guztiari errematea emateko, *plataforma* ezberdinak daude, hots, ordenagailuak barrutik eratuta dauden moduak ezberdinak dira, eta elkarrekin trukaezinak zenbaitetan. Agian norbaitek esan dezake ez gaudela txikikerietarako, eta nabigatzaile bat edo bestea erabiltzeak zein alde izan dezakeen.

Baina kontua hori da, bakarra dago eta hura erabili behar; aukerarik ez beste edozein erabiltzeko. Esate baterako, diseinatzaileen munduan oso gustuko dute MacIntosh edo izena duten ordenagailuak. Hauek ez dira bateragarriak PC motako ordenagailuekin (guk gehienok etxean ditugun ordenagailuekin), *plataforma* ezberdinak omen dira. Baina diseinu mundurako aplikaziorik onenetakoak plataforma honentzat pentsatuak dira. Eta ezin dugu ahaztu diseinu etxeak, zenbait lantokitako diseinu-sailak, publizitate mundua eta abar hor sartzen direla. Egia da azkenaldi honetan bi plataformak elkartzeko bideak urratzen ari direla eta dagoeneko zenbait aplikaziok bi aukeretan erabili daitezke.

Ohar gaitzen beste kontu batetaz ere: gure neska-mutiek, mundu osokoek bezalaxe, hain gustuko dituzten bideojokoak. Zenbat eta zenbat titulu ote daude merkatuan. Bada jokoren bat edo beste euskaraz sortua, baina aukera ez da handia (eta hemen ere, ezin bestela, Foru aldundiek eta herri-administrazioek eman behar izan dute laguntza). Okerrena da, ordea, Eusko Jaurlaritzak ez duela alde guztietara iristeko adina diru eta, gainera, aplikazio horiek itzultzea ez dela gauetik goizera egiten den lana, gauza asko hartu behar baitira kontuan, besteren artean hizkuntzaren kalitatea. Izan ere, teknologia berrien inguruan, eta hauek sortzen dituzten aplikazio, programa, jolas eta abarretan, hizkuntzaren bat erabili behar da elkarrekintzarako eta horrek behar berriak sortzen ditu: hitzak, aditzak, esamoldeak... hizkuntza estandarizatu eta finkatu beharra, batzuetan iritzira jokatzeko arriskua baitugu, edota bide errazenetik jo eta erdal hizkuntzetatik datozen hitzak bere horretan, gordin-gordin, mailegatzekoa.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Oso mundu zail eta konplexua da teknologia berrien mundu hau. Baina burubelarri sartu behar gara esparru honetan, euskararen onerako. Gorago aipatu dugun bezala, etxe askotan dago jadanik ordenagailua, eta etengabe ari da areagotzen ordenadorea dutenen kopurua. Lanerako, aisialdirako, seme-alabek eskolako lanak egin ditzaten, interneten murgiltzeko, txateatzeko... bakoitzak jakingo du zertarako erosi duen. Ordenagailu horiek, ordea, funtzionatzeko programa edo aplikazio batzuk behar dituzte. Normalena, etxerako baldin bada, ofimatika paketeren bat jartzea izango da. Bide horretatik, Eusko Jaurlaritzak Microsoft etxearekin egindako hitzarmen bati esker, Office paketearen zati batzuk itzuli ziren, premiazkoenak, Word testu prozesatzailea, besteak beste. Eta esan dugun bezala, honentzako zuzentzaile

ortografikoa ere prestatu du IXA taldeak; Linux plataformarentzat Mandrake sistema eragilea eta Mozilla nabigatzailea ere euskaratu dira eta laster batean ekingo omen zaio aukera honentzat berarentzat Open Office ofimatika paketea euskaratzeari.

Emakunderen eta beste zenbait erakunderen eskutik, emakumeentzako ikastaroak ematen ari dira, Internet zer den ikusi eta erabiltzen ikas dezaten. Herriz herri, EAE osoan barrena han-hor-hemen entzuten da era horretako ikastaroak ematen ari direla. Gazte eta langabetuentzat ere, HOBETUZ, INEM eta antzeko erakundeek antolatuta, horrelako ikastaroak antolatzen dira. Gure herrian ere eman dira, eta datorren ikasturtean ere jarraituko dute ematen. Zein hizkuntzatan daude ordenagailu horietan erabiltzen diren aplikazioak?

Azpeitiko Udalaren Euskara Patronatoak badu aipatu berri ditugun aplikazioak euskaraz erosteko dirulaguntzak emateko asmoa, aplikazio horiek baitira erabilienak izango direnak ordenagailuen erabiltzaile arrunten artean, bai eta lantokietan ere: testu prozesatzaileak eta posta elektronikoa behintzat hamarretik bederatzitan erabiliko dira. Jokabide hori izan daiteke gure ordenagailuetan euskaraz prestatutako aplikazioak sartzeko bide bat. Badakit hala ere bideojokoen mundu hori guztia alde batera geratzen dela baina euskaraz dauden bizpahiru jolas horiek erosteko ere laguntza eman daiteke, edo sistemaren bat asmatu erdi dohainik emateko neska eta mutil kozkorrei. Zoritxarrez, lehen esan dugun bezala, arlo guztietara iristea ezinezkoa da, ez denborarik ez dirurik ez dagoelako.

12

Hamabigarren ikasgaia:

Hizkuntza adierazle sistemak

Iñigo Garaialdek tajutu zuen ikasgai hau eta bertan gizarte adierazle-sistema bat zer den, honen ezaugarri nagusiak, sistema horien ohizko ahuleziak, adierazle-sistema horien helburua, edukia, metodoa eta izan beharko lituzketen ezaugarriak azaltzen ziren. Azken zatian, berriz, hizkuntz adierazle-sistema horiek euskarari begira sortzerakoan kontuan izan beharreko gomendioak ere adierazten zituen, haiek eratzeko erabili beharko liratekeen informazio-iturri nagusiak, helburuak, edukia eta metodoa eta, azken buruan, ariketa baten inguruko gogoeta praktikoak zetozen.

Estatistika arlotik sortu den tresna edo baliabidea dugu adierazle-sistemena, eta horien bidetik hartu eta hizkuntzaren egoera aztertzeke egokitu dira. Hots, tresna edo metodo hau berez orokorragoa da, gizarteko zenbait fenomeno aztertzeke balio du eta soziolinguistikak bereganatu egin du, hizkuntzetan sortzen diren fenomeno espezifikoak aztertzeke.

Adierazle-sistema hauek, gainera, bi norabidetara begira antola daitezke: batetik, fenomenoaren ikuspegi deskriptiboa egiteke, hots, fenomenoaren alderdi esanguratsuak jasotzeke begira; eta, bestetik, lortu nahi den helburu bat neurtzeke begira. Aztertutako fenomenoak *arazo* gisa sentitzen denean eta arazo horri aurre egiteke *adostasuna* dagoenean, azken mota honetako adierazle-sistemak sortzeke joera dago, burutu nahi den interbentzio politikaren balioztatzea eta jarraipena egiteke.

Adierazle-sistemak datu estatistikoetan oinarritzen dira, baina datu estatistiko hutsetatik haratago joan behar dute, ez dira bilduma huts eta soila. Helburu bat dute, aurretik zehaztua izan beharko duguna, eta helburu hori neurtzeke edo lortzeke bideratutako adierazleak jasoko ditugu sistemaren baitan. Adierazle horiek sinkronikoak izan daitezke (denborako une zehatz batean jasotzen direnak) edo diakronikoak (denboran zehar, une bat baino gehiagotan jasotzen direnak), egiturazkoak (osagaien artean dauden lotura eta erlazioak jasotzen dituztenak), konparatzaileak (lurralde, sektore, giza-multzo edo dena delakoak konparatzeke balio digutenak). Bestalde, edukiaren ikuspuntutik adierazle horiek zuzenak ala zeharkakoak izan daitezke.

Neurketa egiteko eskalari dagokionez ere, adierazleak hainbat motatakoak izan daitezke: kardinalak, klase-tarteak, proportzioak, ordinalak ,dikotomikoak...

Esan bezala, gizarte adierazle-sistemak tresna oso baliagarriak dira komeni zaigun gaiaren gaineko ikuspegi kualitatiboa izateko, baina ez dira arriskurik gabeko baliabidea: adierazle-sistema guk geuk sortu eta tajutu behar dugu eta gero, lortutako datuak aztertu eta interpretatu egin behar ditugu. Horrela, gerta daiteke eratu dugun sistemak osotasunik ez izatea, fenomenoaren alderdi nagusi guztiak ez dituelako jasotzen, *behar* diren datuak jaso ordez, *eskura daudenak* jasotzeko arriskua dagoelako. Bestalde, erabiliko ditugun adierazleek dagokigun fenomenoaz aztertzeke duten balioa ere kontuan hartu beharrekoa da. Egokitasunik eza izan daiteke beste ahulezietako bat. Adierazleek beraiek berez duten errakuntza ere kontuan izan behar dugu.

Hizkuntza adierazle-sistema batek izan behar dituen ezaugarri desiragarriak aipatzerakoan, Iñigo Garaialdek dio adierazle-andana zabala izan behar duela, aztertu nahi diren helburuetarako egokiak diren arlo guztiak jasoko dituen, adituen arteko adostasunik handienarekin. Bestalde, eta adierazle-sistema gehienak denboran zehar fenomeno konkretu baten joerak aztertzeke erabiltzen direnez, adierazleek egonkorak izan behar dute, orain eta gero neurtzeko modukoak eta hainbatean behin eguneratu edo berriro neurketa egin. Horrez gain, esanahi argiko adierazleak izan behar dute, gaizki ulertzerik sortuko ez dutenak. Adierazle bateragarriak izan behar dute, multzoka edo elkar daitezkeenak eta batuketa haztatua egiteko aukera ematen dutenak. Eta, jakina, ahal bezain neutralak eta gizartearen alderdi ahalik gehienek onartzeko modukoak.

Euskararen gaineko adierazle-sistema bat eratzeko gomendioak ere ematen dizkigu Iñigo Garaialdek. Lehenengo eta behin, euskarari buruzko informazio iturri nagusiak zehaztea. Berak Biztanleriaren Estatistika (hots, Errolda eta Zentsua), Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta eta Euskararen Kale Erabilpenaren neurketa aipatzen ditu. Ondoren helburua, edukia eta metodoa zehaztu: zer neurtu nahi den, zertarako (egoera aztertzeke, joeren jarraipena egiteko...), erabiltzaile nagusiak nortzuk izango diren, adierazle andana aukeratu eta adierazle berrien neurketa metodoa zehaztu eta informazioa bildu.

Amaitzeko, Kontseilua aztertzen ari den *Neurgailua* egitasmoaren inguruan sortu diren hausnarketa, kezka eta gogoetak azaltzen ditu. Hala, dio helburua Kontseiluaren arduradunek jarri dutela. Neuritu nahi dena da euskararen uneko erabilera-maila orokorra, Euskal Herri osoan, bost esparrutan banatuta (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparraldea eta Nafarroa). Neurketaren zertarakoa zehazterakoan, berriz, dio euskararen erabilpenaren neurketa-tresna orokor bat sortu nahi dela, egungo egoera orokorra neurtzeko eta jarraipena, azterketa edota ebaluaketa egin. Aldizkakotasunari dagokionez, berriz, 5 urtez behin egitea pentsatzen dela azaltzen du.

Adierazle-andana aukeratzea nahiko zaila izan dela esaten du Garaialdeak. Hamalau multzotan banatu dira: hizkuntza gaitasuna, familia erabilera, kale erabilera, kale paisajea, hezkuntza, osasun zerbitzuak, administrazio publikoa, zerbitzu pribatuak, hedabideak, publizitatea, kultur-produktuen kontsumoa, aisialdia, lan-hizkuntza eta lan merkatua. Kontua da arlo gehienetan badagoela informazio-iturriren bat, baina agian ez guztiz egokia eta ez behintzat bateratua, hiru gune soziopolitikotan banatuta egotean Euskal Herria, bakoitzak bere aldetik ere jokatzen baitu zenbait kasutan.

Iruzkina

Interesgarria da gizarte adierazle-sistemen gai hau eta zer esanik ez hizkuntzari lotutako arloa. Baliabide soziolinguistiko bat gehiago, hizkuntza aztertzeko eta aukera zabalak eskaintzen dituen, gainera: fenomeno jakin baten joerak neurtu eta deskribatu, fenomenoaren egitura aztertu eta osatzen duten atalen arteko eraginak neurtu, etorkizunean izan ditzakeen joerak aurreikusi, interbentzio aukerak identifikatu eta ebaluatu, egindako interbentzioaren jarraipena egin, burututako politikaren eragina neurtu... Adierazle multzoa, gainera, guk behar dugunaren arabera zehaztu daiteke, zabala edo estua izan, adierazle kuantitatibo edo kualitatiboak erabili, une bateako egoera zehatza neurtu (sinkronia) edo denboran zehar duen dinamika (diakronia)... Gaiaren objektibotasunarekin eta neurketarenarekin joka dezakegu, konbinaketak eginez: gai objektiboa eta neurketa objektiboa (kutxazainen erregistroaren arabera kutxazain horietan zein hizkuntza erabili den, esate baterako), gai objektiboa eta neurketa subjektiboa (adibidez, kutxazainen eragiketetan erabilitako hizkuntzaren berri galdeketa bidez egitea), gai subjektiboa eta neurketa objektiboa (hizkuntza gaitasuna eskolako azterketen emaitzen bidez neurtzea, esate baterako) eta gai subjektiboa eta neurketa subjektiboa (adibidez, zentsuan hizkuntza gaitasunari buruzko galderan norberak

erantzundako maila). Konbinaketa hauetan komenigarriena, edo desiragarriena, lehenengoa da, hots, bai gaia eta bai neurketa objektiboak izatea, subjektibotasuna sartzen den momentutik emaitzak alde handikoak izan baitaitezke. Neurketa-eskalaren arabera ere adierazleak era askotakoak izan daitezke: kardinalak, ordinalak, proportziozkoak, klase-tarteak, dikotomikoak...).

Beraz, adierazle-sistema osatzeko baliabide eta aukera asko ditugu. Adierazle-mota zehatz baten bidetik jotzen badugu, emaitza mota konkretu bat lortuko dugu.

Gizarte arloko analisisietako (eta ikusi dugun bezala, hizkuntzakoetarako) tresna garrantzitsuak badira ere adierazle-sistemak, badituzte arriskuak eta gabeziak ere, bai haiek eratzeko garaian, bai haien erabilpen eta interpretazioaren inguruan, Iñigo Garaialderen esanetan. Izan ere, fenomeno baten berri izateko, hura mugatzen eta definitzen duten adierazleak aukeratu behar dira, baina batzuetan gerta liteke fenomenoaren gaineko informazio guztia ez egotea eskura, eta garrantzizkoena ez lortzea. Edota irudikatu nahi dugun fenomenoaren oinarritzko informazioan interferentziak daudelako edota ez delako estadistikoki jasotzen guk nahi dugun bezala. Fenomenoaren aldaketaren erritmoari egokitzen zaizkion adierazleak ongi aukeratzen jakitea ere ezinbestekoa da: motel aldatzen bada, inertzia handiko adierazleak erabili; azkar aldatzen bada, epe motzean asko alda daitezkeenak. Bestalde, kontuan izan behar dugu adierazleek bere baitan izan dezaketen berezko errakuntza indizea ere, hori kontuan hartzen ez badugu emaitzak desbideratu edo desitxuratzeko arriskua baitugu.

Ikasgaiaren laburpenean adierazi dudan bezala, Iñigo Garaialdek agertzen dizkigu hizkuntzaren gaineko adierazle-sistema batek zernolako ezaugarriak izan behar dituen. Baldintza asko dira bete beharrekoak adierazle-sistema bat tajuz antolatzeko eta bere helburua ondo bete dezan. Horrek esan nahi du zenbat eta sistema zorrotzago eta zehatzagoa, jende gehiagok (edota jende berak denbora gehiagoan) hartu beharko duela parte sistemaren diseinuan. Gauza bera gertatuko da adierazle-sistema hori praktikan jartzen denean, "landa-lana" egiten denean, alegia, eta gero datuak prozesatu eta ondorioak ateratzerakoan ere. Eta hori, azken batean, dirua da. Zenbat eta denbora gehiago, orduan eta garestiago. Bestalde, adierazle-sistema xume batek baino datu hobek emango ditu normalean konplexutasun handiagoko batek (nahiz eta beti ez den hala izaten). Beraz, beti bezala orekaren bila ibili beharko da. Badakit arlo espezifiko batean lanean dihardugunok (kasu honetan euskararen munduan gabiltzanok edo soziolinguistikan, kasu) beti iruditzen zaigula behar baino diru gutxiago ematen zaiola gure lan-arloari. Ez gara ohartzen, ordea,

normalean diru publikoarekin aritzen garela eta diru publikoak esparru eta arlo ugari atenditu behar dituela (hezkuntza, osasuna, enpresak, gizarte zerbitzuak, errepideak, langabetuak...) eta ez dela mugarik gabeko poltsa. Nire lagun batek ondo esaten duen bezala, behiaren errapeak lau erro bakarrik ditu eta bostgarrenak itxoin egin behar aurretik dagoenak esnea edateari utzi arte.

Bistan da hizkuntzaren egoerak eskatzen duela hainbat azterketa egitea, dagoen egoera aztertu eta aurrera begira erabakiak hartzeko, esate baterako. Baina hizkuntzaren esparruan bertan ere fronte asko daude lantzeko eta bultzatzeko, eta denerako dirua izatea ez da erraza askotan. Kontuan izan behar dugu, gainera, diru publikoa kudeatzeko ardura eta erantzukizuna duten pertsona –politiko– guztiek ez dutela sentzibilitate bera euskararekiko, eta zenbaitetan, isilka bada ere, aurkako posturak dituztela. Hala, batzuentzat gutxiegi dena, besteentzat larregi da eta ematen dena baino gutxiago eman beharko litzateke. Ez ditugu urruti horrelako adibideak, Nafarroan, esate baterako edo EAEn bertan zenbait kolore politikoren aldetik.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Iñigo Garaialderen ikasgaiaren lehenengo zatia teorikoa da eta ez du aplikazio zuzenik gure herrirako aprobetxatzeko. Bai, jakina, egunen batean azterlanen bat egin beharko balitz kontuan izan beharko genituzkeen baldintza eta ezaugarrien berri izateko, baina iruditzen zait egunen batean horrelako lan bat egin behar bada, enpresa espezializatu bati eskatuko diogula egitea. Dena den, ongi dago kontu hauen berri jakitea, zer eskatu jakiteko edo zertan ari diren ulertzeko.

Erabat praktikoa da, berriz, ikasgaiaren azken aldera aurkezten duen *Neurgailua* egitasmoa, Kontseiluak bultzatua. Txalogarria da erakunde pribatuek ere euskararen gaineko azterlanak bultzatzea. Arestian esan dugu erakunde publikoek duten diru-poltsa ez dela agortezina, eta esparru ugaritara iritsi behar duenez, zeregin guztietarako behar adina diru izatea ezinezko dela. Erakunde pribatu edo erdi-publikoek helburu horietako batzuk betetzeko zeregina bere gain hartzen badute, gauza gehiago egin ahal izango dira denbora-epe berean. Izan ere, erakunde pribatu hauek bere zereginak betetzeko behar dituzten sosa hainbat iturri ezberdinetatik lor ditzakete (enpresak, Jaurilaritza, Aldundiak, norbanakoak...).

Eta egitasmoa bera ere interesgarria da. Garaialdek esaten duenez, Euskal Herri osorako egingo da eta bertan adierazle andana luze-sakona erabiliko. Hortik ateratzen diren emaitza eta ondorioak oso baliagarriak izango dira. Hala ere, eta ongi ulertu badut, ez du emango udalerrri edo eskualdearen informaziorik. Pena da hala ez izatea, informazio baliagarria delako, baina dirudienez esparru globalagoetara begira dago antolatua. Badira, hala ere, Azpeitiari buruzko datuak ematen dituzten proiektuak eta horietako bat ikastaro honetako hurrengo ikasgaiari, 13.ean alegia, landu eta zehaztuko da (*Euskaini, euskararen eskaintzaren adierazlea* diagnosi-tresna, hain zuzen ere).

Horrez gain, bada beste azterlan bat ere, SIADECOK egina, herrian merkataritza sektorean euskara normalizatzeko egina orain bi urte. Maila apalagokoa da, herri mailarako egina, eta sektore zehatz batentzat eta helburu zehatz batzuk lortzeko, baina hori ere kontuan hartu beharrekoa da.

13

Hamahirugarren ikasgaia:

Diagnosirako egungo garapen teknikoak

Ikasgai honen ardura Xabier Isasi, Lore Erriondo eta Olatz Altunarena izan da eta bakoitzak euskararen diagnosirako tresna edo baliabide banaren berri eman digu ikasgaiari.

1.

Lehenengo zatian, Xabier Isasi eta Lore Erriondok sortutako *Neur-kareletik, hizkuntza egoeraren popatik brankara (Branka eta Mintzagrama)* izenburupean, unibertsitatez beherako ikastetxeetan euskarak duen egoera neurtzeko prestatutako bi aplikazio dira, Ulibarri programaren barruan.

Edozein plangintza diseinatu aurretik ezinbestekoa da egoera ahalik eta ondoen ezagutzea. Hala, aplikazio honetarako ikastetxearen egoeraren berri izateko hainbat datu jasoko dira: ikastetxearen identifikazio datuak, ikastetxeko estamentuak (zuzendaritza, irakasleak, langileak eta laguntzaileak), ikasleen jatorrizko hizkuntza, gurasoen hizkuntza, liburutegia (antolamendua eta fondoak), hizkuntza paisajea eta udalerria: Bestalde, hizkuntzaren erabilera ere jasoko da, bai idatzizkoa (txostenak, aktak, inprimakiak, agiriak, posta, bulegoa...) eta ahozkoa (zuzendariak, irakasleak, langileak, ikasleak, gurasoak, inguruneak...). Irakasleekin eta ikasleekin *Mintzagrama* aplikazioa ere erabiliko da.

Ondoren, datuak sartzeko fitxen eta kodeketaren berri ematen du eta datuak ondo sartuz gero *Neur-kareletik* aplikazioak ikastetxearen egoeraren berri ematen digula, alde sendoak eta ahulak agertuz eta, ondorioz, hartu beharreko neurriak zein arlotara bideratu behar diren erabakitzeko laguntza ona dela.

Mintzagrama aplikazioa, berriz, talde baten baitako harreman sareen berri izateko da. Pertsona batek beste batzuekin euskaraz ala gazteleraz egiten duen adierazten du eta, datuak sartu ondoren, talde zehatz horren jokabidea agertzen digu. Nortzuk egiten duten euskaraz norekin, zenrolako harremanak dauden. Hala, hitzun aktiboak, pasiboak eta isolatuak aurkitzen lagunduko digu eta taldean joera ahula dagoen (taldekideen harremanak subjektu bakar batengan zamaturik badaude),

irekia (taldekideak elkarrekin aritzen direnean eta tarteko distantzia txikia denean) edo zatikatua (elkarrengatik berezitako azpitaldetan banatzen direnean). Hizkuntza-sarearen indizea ere ematen digu eta hortik hizkuntza-joera eta intentsitatea atera ditzakegu, hots, hizkuntza-joerak gaztelaniaren aldeko edo euskararen aldeko joera duten esango digu eta intentsitateak, berriz, joera hori handiagoa ala txikiagoa den. Azkenik diote bi aplikazio hauen azpitik Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegik" landutako *erabilera isotropikoa* dagoela, hizkuntza baten erabilera formula matematikoen bidez ateratzeko bidea.

2.

Bigarren atala Olatz Altunak eta Xabier Isasik tajututako "*Begira: euskararen bilakaeran prospekzioak egiteko tresna*" titulupean dator. Prospekzio-tresna bat da, gizarteari edo, hobeki esan, udalerriei begira sortua; Excel kalkulu-liburuarentzat prestatua da eta honek ere, formula matematikoen bidez, herri batean hemendik x urtera zenbat euskaldun izango den ikusteko balio du, prospekzioa egiten du. Horretarako, herri (edo auzo) konkretu bateko biztanleen eta euskaldunen kopuruak sartzen dira, bi denbora-epetakoak, eta euskararen ezagutza eta erabileraren bilakaera emango digu, formula matematiko baten bidez (Txillardegiren *erabilera isotropikoa*, hain zuzen ere, probabilitateen kalkuluaren bidetik).

"Begira" aplikazioaren erabilera praktikoaren azalpena dator ondoren: hartu bi urtetako erroldak, 1996 eta 2001koak esate baterako, eta urte horietan euskaldunen eta biztanleen kopurua zein den sartu "Begira" aplikazioan. Hala, hazkundeak kalkulatu dituzte eta handik aurrerako erritmoak eta bilakaeraren azalpena emango du, probabilitate kalkuluaren arabera, taula grafiko eta guzti. Joerak ematen ditu, jakina, ez datu zehatzak.

3.

Hirugarren atalean "Euskaini: Euskararen eskaintzaren adierazlea" izenburupean, izen bereko aplikazioa aurkezten zaigu. Kataluniako Santa Coloma de Gramanet herriko Consorci per a la Normalització Lingüística erakundeko teknikariek katalanerarentzat prestatu zuten haseran eta orain euskararako egokitu zaio, SEI Elkartearen, EHUren eta Azpeitiko Udalaren Euskara Patronatoaren eskutik. Gainera, herri honetan burutu da ikerketa.

Honen azpian dagoen lehenengo hipotesia da herritarrari egiten zaion hizkuntza eskaintzak mugatzen duela herritarraren hizkuntz-aukera. EUSKAINIren bidez neurtzen dena da euskararen eskaintza *publikoa*, populazioan eragiten duten elkarte, entitate, hedabide, enpresa, administrazio eta abarrek eskaintzen dutena. Ez du neurten ez erabilera ez biztanleriaren gaitasun maila.

Erabilera idatzia eta ahozkoa neurtzeko adierazleak xedatu ziren, jaso errazak eta errepikatzearen bidez neur daitezkeenak atalean eta gero ponderazio faktore eta batez besteko haztatuak ezarri: administrazioa atalari, %15eko pisua eman zaio, ekonomiari %30ekoa, Gizarteari %10ekoa, Komunikabideei %25ekoa, Hezkuntzari %20koa eta Osasunari %5ekoa. Atal nagusi hauen barruan beste azpiatal batzuk zehaztu ziren eta haiei ere ver eehunekoak eman. Esate baterako, *Administrazioa* atalaren barruan, Udalaren eta Mankomunitateen arloari %55eko pisua eman zitzaion, Foralari eta Autonomikoari %20, EStatuko administrazioari %10 eta Justizia administrazioari %15.

Eragileen artean, errotulazio identifikatzailea, errotulazio informatzailea, idatzizko komunikazioa, ahoz identifikatzeko hizkuntza eta ahoz egokitzeko hizkuntza neurtu dira eta euskaraz soilik, euskaraz gehiago, bietara berdin, erdaraz gehiago, erdaraz soilik eta anibalentea hizkuntza-kategoriak zehaztu. Horrela, datu batzuk atera dira, tauletan jarrita (hauek ere Herrirako aprobeitxamenduaren puntuak agertuko dira).

Iruzkina

Hiru tresna informatiko oso baliagarri iruditzen zaizkit *Neur-kareletik*, *Begira* eta *Euskaini*. Bakoitzak bere esparrua du, berezitua: batek eskola-mundua, besteak euskararen bilakaera herrian eta hirugarrenak euskararen eskaintza publikoa. Best ikasgai batzuetan esan dudak bezala, era honetako zenbat eta aukera gehiago izan, orduan eta osoagoa izango da euskararen gaineko egoeraren ezagutza.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Dagoeneko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Pedagogia Berrikuntzarako sailatalaren bidez antolatutako *Ulibarri programan* sartuak daude Azpeitiko zenbait

ikastetxe eta Urola-Kosta bailaran ere dezente dira programa honetan bertan dihardutenak. Honek esan nahi du, beraz, ikastetxe horietako bakoitza dagoeneko ari dela bere buruaren diagnostia egiten, hizkuntzaren normalkuntza arloan zein puntutan dauden jakiteko. Lortu behar duguna da oraindik programa honetara atxeki gabe dauden herriko ikastetxeak egitasmo hori bere programetan sar dezaten bultzatzea.

Neur-kareletik programa honek esparru ugari neurtzen ditu. Ikastetxearen diagnostia egiteko balio du, eta diagnosi osoa egiten dio: irakasleak, ikasleak, ikasleen gurasoak, ikastetxeko langile ez-irakasleak, hauen guztien jatorrizko hizkuntza eta komunikazio hizkuntza, idatzizko eta ahozko erabilerak, mota guztietako txostenak nola idatzita dauden, ikastetxearen eta instituzio/elkarteeekin izaten den harremana nola egiten den... Arlo asko ditu eta dena xehe-xehe eta atalez atal aztertzeo aukera ematen du, jakiteko zein puntutan dabilen indartsu eta zeinetan ahul eta zer-nolako neurriak har daitezkeen puntu ahulak sendotzeko.

Ikastetxearen barru aldeari begira hizkuntzaren normalkuntza lortzeko bidean asko aurreratua dugu Azpeitian. Izan ere, ikastetxe guztiak D ereduan ari dira, eta bailarako gehienak ere bai. Esan behar da, gainera, Azpeitia dela Urola Erdia bailararen ardatz edo gune, eta ikastetxerik gehienak hemen daudela kokatuak. Honek esan nahi du inguruko herrietatik ere (Azkoitia, Zestoa, Errezil, Bidegoian, Beizama...) gure herrira etortzen direla ikasleak eskoletara.

Halere, egoera idilikoa dela dirudien arren, ikastetxeek hainbat oztopo dituzte euren jardueran: batetik, eskoletan dabilzan haurrek ordu horietan euskaraz diharduten arren, horrek ez du esan nahi haien guraso guztiek euskara menderatzen dutenik. Portzentajea handia ez den arren, oraindik badira guraso erdaldunak eta haiei egin beharreko komunikazioetan-eta, gaztelera erabili beharko da. Azken urte hauetan, gainera, beste egoera bat ere ari da sortzen: ama hizkuntza gaztelera ez duten etorkinak ere hasi direla gure herrira eta bailarara etortzen, oraindik kopuru txikian bada ere, eta horrek ere hizkuntza –eta hezkuntza– egoeran badu bere eragina.

Kanpora begirako harremanetan, Udalarekin eta honen zerbitzuekin izan behar dituzten harremanak euskaraz burutzeko arazorik ez dago, ahoz zein idatziz. Azpeitian, eta Urola Erdia bailara osoan, euskaldunen portzentajea ehuneko 80tik gorakoa da. Azpeitiko Udalak berak ere ahalegin handia egin du bere zerbitzuak euskaraz aritzeko moduan jartzeko eta erakunde publikoarekin euskara hutsean

jardun dezakete ikastetxeek. Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ere gauza bera egin dezakete Hezkuntza arloko gaietan, baina beste zenbait esparrutan, Euskal Herriaren –eta erakunde horien beraien– egoera soziolinguistikoa ikustea besterik ez dago, euskaraz aritzea ezinezkoa izango zaie, ikastetxeek nahi izanda ere.

Ikastetxeek izan dezaketen arazoetako bat, hornitzaileena izan daiteke. Argitaletxe eta liburu-banatzaileak alde batera utzita, zorionez euskaraz aritzeko aukera bai baitago (Zabaltzen...), material hornitzaileekin-eta arazoak gerta litezke: langileak euskaldunak izan arren, produktuen katalogo eta antzekoak euskaratu gabe izatea, edota bulegoetan dihardutenak alfabetatu gabeak izatea, horrek euskararen normalizazio prozesuan sortzen duen frenoarekin. Dena dela, bailarako hornitzaileak hasi dira arazoaz jabetzen, eta zenbait pausu ematen (katalogoak euskaratu eta abar).

Bstalde, baliabide informatikoen munduan ere oraindik euskarak badu behar ugari: programa eta aplikazio gutxi dira euskaratuta daudenak. Eta ikusi besterik ez dago gero eta erabilera zabalagoa dutela gizarteko arlo guztietan, ikastetxeak barne.

Begira prospekzio tresna

Tresna edo aplikazio informatiko hau herriari begira pentsatua dago eta, neurri horretan, bai erabilgarria ikusten dudala. Txillardegik sortutako eredu matematikoetan oinarritua dago *Begira* aplikazioa eta azpian duen formularen baitan hainbat datu behar ditu: biztanleria osoaren hazkunde-tasa, euskaldunen hazkunde-tasa, biztanleriaren kopuru gordina haiera eta amaiera-urteetan eta euskaldunen kopuru gordina hasera eta amaiera-urteetan, hain zuzen ere. Horiek guztiak lotuz eta harremanetan jarriz formula bat sortzen dute Txillardegik eta bere laguntzaileek. Hala ere, formula hau izkutuan geratzen da, *Begiraren* erabiltzaileak ez du ikusiko inoiz begien aurrean. Microsoft etxearen Excel aplikazio informatikoarentzat prestatua dagoenez, aplikazio horrek erabiltzen dituen lauki edo gelaxkak agertuko zaizkigu eta haietan sartu beharko ditugu oinarritzko datuak: herriko (edo auzoko) biztanleak urte zehatz batean, euskaldunak urte horretan bertan, eta datu berak, hainbat urte geroago (esate baterako, errolda egiten den bi alditakoak) eta berak automatiko egingo ditu kalkuluak.

Probabilitate kaluluaren araberrako oinarriekin aritzen da aplikazio hau eta, jakina, bere mugak ditu: biztanleriaren hazkundera beti bera izango balitz bezala jokutzen

du, euskaldun kopurua ere bera izango dela... eta denok dakigu parametro horiek ez direla egonkorak, aldakorak baizik. Baina tresna baliagarria da *joera* edo *tendentziak* ikusteko. Eta errolda egiten den urteen arabera aplikatuz gero, datuak aldatzen ere joan daiteke (gertatzen diren azkartze eta geldotzeak sartu, alegia) eta herriaren argazki bat lortzeko baliagarri izan. Estatistika munduan ez dago absoluturik, eta aplikazio hau ere bere horretan hartu behar da, dituen abantaila eta mugekin.

Gainera gauza bat du oso interesgarria: erabilera-eremuaren malgutasuna. Alegia, herri osoari begira erabil daitekeela, edota auzoka ere bai. Hau da, guk datu xeheak baldin baditugu, herri barruko auzoka edo kaleka, programa horrek halaxe emango dizkigula prospekzioak.

Mugen artean bat azpimarratu nahi nuke: Esate baterako, erroldetan-eta "erdi euskaldunak" edo horrelako termino bat agertu ohi da. Esan nahi da batetik euskaldunak ditugula (euren burua euskalduntzat jotzen dutenak), bestetik erdaldunak direnak, baina bi multzo horien artean badago beste multzo bat, euren burua euskaldun osotzat jotzen ausartzen ez direnena, bai jatorriz euskaldunak izanik zertxobait galdu egin dutelako, bai erdaldunak izanik euskalduntze prozesuan dihardutelako oraindik, bai ulertzeko gai direnak baina hitz egiteko ez..., hainbat eta hainbat arrazoi aipa ditzakegu. Horiek non sartzen ditugu *Begira* bezalako aplikazio batean? Eta agian kopuru hori erabili ala ez, datuak dezente alda daitezke.

Hala ere, joerak edo tendentziak ikusteko tresna den neurrian, Salomonen bidetik bi neurketa egin ditzakegu: bata "erdi-euskaldun" horiek erabili gabe eta bestea erabilia, eta bi emaitzen artean dauden aldeak ikusi geuk, eta geu izan ondorioak ateratzerakoan erabakiko dugunak.

Euskaini aplikazioa

Aurrez esan dugun bezala, aplikazio hau berez Kataluinan egindakoa da, Santa Coloma de Gramanet herriko hizkuntz-egoeraren berri izateko aurrenik, eta gero lurralde haietako beste zeinahi herritan erabiltzeko. Hizkuntza eskaintza publikoaren argazkia edo erradiografia egiteko balio duen adierazle-sistema bat da; hots, gizartearen hainbat sektoretan (administrazioan, ekonomian, hedabideetan...) hizkuntza-eskaintza nolakoa den aztertzen du eta zenbaki bat ematen du amaieran.

Bilbon egin zen Hizkuntza Gutxituen Nazioarteko Biltzarrean aurkeztu zen eta berehala piztu zuen hemengo hainbat erakunderen interesa: SEI elkarteak ezezik Euskal Herriko Unibertsitateak eta Azpeitiko Udalaren Euskara Patronatoarena, besteak beste. Azpeitiko Euskara Patronatoko teknikari bat –Patxi Saez Beloki– Kongresu horretara joana zen, Zarauzko PATeko Miren Etxeberriarekin batera aurkezpen bat egitera, eta berehala gustatu zitzaion katalanek zekarten proposamen hura.

Hala ere, OFERCAT aplikazioa ez zen bere horretan ekarri eta aplikatu. SEIko eta EHUko hainbat pertsonak hartu zuten aplikazioa aztertzearen ardura eta hainbat egokitzapen egin beharrekoak zirela iruditu zitzaien. Hala, egokitzapen horiek egin ondoren, haserako OFERCAT hura EUSKAINI bilakatu da, Euskal Herriko udalerrietan hizkuntza eskaintza zernolakoa den neurtzeko adierazle sistema.

Eta lehenengo ikerketa edo neurketa Azpeitiko herrian egin da, herri hau haseratik baitzebilien aplikazio hori erabili nahian. Kasu honetan, herrian zegoen hizkuntza eskaintza neurtu nahi zen. Eskaintza neurtzen duela esan dugu, eta ez erabilera edota herritarren gaitasun-maila, hori kontuan izan behar dugu. Baina garbi dago eskaintzak baldintzatu egiten duela erabilera, neurri batean –dezentean–. Eskaintza txikia bada, erabiltzeko aukerak ere ezin handiak izan. Eta herritarren hizkuntza-ezagutza beste non edo nondik lortua baldin badugu, ezagutza horren eta hizkuntza-eskaintzaren arteko aldea ikusteko ere baliagarri izango zaigu.


Eskaintza publikoa neurtzen duela esan dugu aurretik. Publikoa esatean ez da, ordea, administrazio publikoaren eskaitzaz bakarrik ari: herritarrengan eragina duten elkarte, erakunde, hedabide, enpresa eta gainerakoak ere sartzen dira *eskaintza publiko* izen horren pean. Nolabait, *ageriko eskaintza* edo esan nahiko luke.

Adierazle-sistema honetan hainbat aldagai edo adierazle zehaztu dira, idatzizko eta ahozko erabilera neurtzeko. Sei sektore zehaztu ziren (Administrazioa, Ekonomia, Gizartea, Komunikabideak, Hezkuntza eta Osasuna) eta horien baitan hainbat azpisektore. Zenbaitetan, gainera, azpisektore horien baitan azpitaldeak ere zehaztu behar izan ziren, bakoitzak bere portaera propioa zuelako (esate baterako, Komunikabideen sektorean, besteak beste, ikus-entzunezkoak zehaztu ziren eta, hauen barruan, irratia eta telebista banatu).

Ondoren bost eragile zehaztu ziren, hiru idatzizko eta bi ahozko: errotulazio identifikatzailea, errotulazio informatzailea, idatzizko komunikazioa, ahoz identifikatzeko hizkuntza eta ahoz egokitzeko hizkuntza. Sektore eta azpisektoreen arabera egokitzapen txikiren bat edo beste ere egin behar izan zen. Azkenik hizkuntza kategoriak zehaztu ziren: euskaraz soilik, euskaraz gehiago edo ikusgarriago, bietara berdin, erdaraz gehiago edo ikusgarriago, erdaraz soilik eta anbibalentea. Eta sektoreen araberrako ponderazio bat ere jarri da (administrazioari %15eko pisua eman zaio; Ekonomiari, %30ekoa; Gizarte atalari, %10ekoa; Komunikabideei, %25ekoa; Hezkuntzari, %20koa eta Osasunari, %5ekoa). Sektore bakoitzaren barruko azpisektoreei ere ponderazio bat eman zaie, baina ez naiz horretan sartuko. Esan beharra dago ahozkoari pisu handiagoa eman zaiola idatzizkoari baino, eta, ahozkoan, identifikatzeko hizkuntzari pisu handiagoa egokitzeko hizkuntzari baino, Kataluinan egin zen bezalaxe.

Azpeitiko herrian egin zenez EUSKAINIren neurketa, iruditzen zait egokia dela atera ziren emaitzak agertzea hemen (aztertzen ari naizen 13. ikasgaiari, "Diagnosirako egungo garapen teknikoak" izenekoan datozenak dira).


1. irudia: EUSKAINIren adierazle nagusia, sektoreen arabera



Goiko irudian ikus daitekeenez, Euskainiren adierazle nagusia 0,62koa da Azpeitian. Hau erreferentzia besterik ez da, datozen urteetan, berriro beste neurketa bat egin denean konparazioa egiteko izan beharreko zenbaki bat. Baina, neurketa hau 0tik 1era arteko eskalan dagoenez, nahi izanez gero eragiketa erraz baten bidez zenbako

hori ehunekotara pasa genezake, gure burua agian ehunekotan ibiltzen ohituagoa izango dugulako.

2. irudia: EUSKAINIren adierazle nagusia, eragileen arabera




IdE: Errotulazio identifikatzailea
AIH: Ahoz identifikatzeko hizkuntza

InE: Errotulazio informatzailea
AEH: Ahoz egokitzeko hizkuntza

Ik: Idatzizko komunikazioa


Eragileen arteko azterketari begiratzen badiogu, alde esanguratsua dago ahozko eta idatzizko eragileen artean. Ahozkoan, euskararen eskaintza handiena ahoz egokitzeko hizkuntzarena da: 0,94; beraz, gorengo mailatik oso gertu dago. Baxuagoa da ahoz identifikatzeko hizkuntzak ematen duen zenbakia: 0,71. Idatzizkoan, berriz, zenbat eta "eskaintza" handiagoko elementua izan, euskararen presentzia orduan eta handiagoa da. Horrela, indize altuena errotulazio identifikatzailean dugu (0,64), ondoren errotulazio informatzailean (0,61) eta, azkenik, idatzizko komunikazioan (0,43).

3. irudia: "Administrazioa" adierazle nagusia, azpisektoreen arabera




Hemen aldeak handiak dira: Euskararen eskaintzarik handiena Udalaren eta Mankomunitateen aldetik dator (0.88) eta oso hurbil dator Administrazio Foralaren eta Autonomia Erkidegoarena (0.87). Oso atzetik eta behean geratzen da Estatuko administrazioak (0.35) eta Justiziak eskaintzen dutena (0,19).

4. "Ekonomia" adierazle nagusia, azpisektoreen arabera




Ekonomia arloan ere aldeak handiak dira euskararen eskaintzari begira. Enpresaren azpisektoreak Ekonomiak guztira duen batez besteko bera du (0,56). Komertzio eta Zerbitzu azpiatalak du emaitzarik altuena (0,75) eta Publizitatean euskararen eskaintza ia-ia sinbolikoa da.

5. irudia: "Gizartea" adierazle nagusia, azpisektoreen arabera




Gizarteko azpisektorean emaitza oso altua da, gorengo mailatik oso hurbil dabilta azpisektore guztiak. Batez bestekoa 0,91 da eta horren azpitik, Kirol elkarteek 0,87ko emaitza agertzen dute, Kultur elkarteena 0,91koa eta Alderdi politiko, sindikatu eta gizarte mugimenduek agertzen dute emaitzarik altuena (0,97), ia-ia goreneko maila.

6. irudia: "Komunikabideak" adierazle nagusia, azpisektoreen arabera




Komunikabideen sektorea dugu euskararen presentziarik txikiena agertzen duena. Orokorrean, "Komunikabideak" atalak, batez beste, 0,23eko eskaintza agertzen du. Prentsa azpiatalak 0,17ko indizea du, Aldizkariak azpiatalak 0,10ekoa, Telebista azpiatalak 0,16koa eta Irratiak egiten du gora, 0,46ko emaitzarekin.

7. irudia: "Hezkuntza" adierazle nagusia, azpisektoreen arabera



“Hezkuntza” sektorearen barruan bi azpisektore agertzen dira: Hezkuntza arautuak 0,90ko indizea agertzen du euskararen eskaintzan, ia-ia goreneko maila. Hezkuntza ez-arautuari dagokionez, berriz, indizea jaitsi egiten da (0,77).

8. irudia: “Osasuna” adierazle nagusia, azpisektoreen arabera



Osasun sektorean, orokorrean, 0,71koa da euskararen eskaintzaren indizea. Horren barruan, Osasun Publikoak 0,75ko indizea ematen du; osasun pribatuak, berriz, 0,64koa.

14

Hamalagarren ikasgaia:

Hizkuntza Normalkuntzarako Plangintza Orokorra

Amaia Agirre eta Ane Crespo izan dira ikasgai honen egileak. Ehun orrialdeko ikasgai honetan, izenak dioen bezala, "*Hizkuntzaren normalkuntza lortzeko egin beharreko plangintza*" aurkezten zaigu, baina ikuspegi konkretu batetik: Herri-administrazioaren ikuspegitik, hain zuzen ere. Bost atal nagusitan banatua dago ikasgaia baina berez bi atal dituela esan dezakegu.

1.

Lehenengo atala sarrera da. Bertan, euskararen erabilera normalizatzeko lege-oinarriak zehazten dira lehenbizi eta, gero, Euskararen Aholku Batzordea nola osatua dagoen, zein egiteko dituen eta batzordeak zein atal nagusi dituen agertzen digu. Horrez gain, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren berri ematen digu, haren atalekin eta egitarau nagusiekin.

2.

Gainerako lau ataletan, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) lantzen da. Ikasgaiaren bigarren atalean, EBPNren aurrekariak eta euskararen politikarako oinarrizko irizpideak azaltzen dira. Horrela, Euskararen Aholku Batzordeak 1993an argitara emandako Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak agiria, alorrez alorreko azerketa (familia, lagunartea, gazteria, aisia, irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea, komunikabideak, lan-mundua, erlijioa...).

3.

Hirugarrenean, EBPN egiteko metodologia, urratsez urrats (osatzeko prozedura, oinarrizko txostenak eta lan-batzordeak, euskararen egoeraren diagnostia, indargune eta ahuleziekin, giza eta diru baliabideen azterketa...). Bigarren atalean zerrendatu diren arloetan ikusten diren ahulezia eta indarguneak zerrendatzen dituzte egileek luze-zabal eta, ondoren, hizkuntza-politikan azken urteotan herri-aginteek erabili dituzten baliabideak (bai jendez, bai diruz) aztertzen ditu. Horretarako HAKOBA (Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea) eratu zen 1997an, Eusko Jaurlaritzako Ogasun saila, Hezkuntza saila eta Hizkuntza Politikako Sailburuordetza, Foru

Aldundiak eta EAEko hiru hiriburu-udalak izanik partaide eta euskara-gastuek 1997-2000 epealdian izan duten bilakaera aztertu zuen.

4.

Laugarren atalean, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia bera azaltzen da. Plan Nagusi horren helburuak, euskaraz bizi nahi dutenen horretarako aukerak emateko neurriak erabaki eta bultzatzea eta maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskararen berreskurapen osoa lortzeko eman beharreko urratsak areagotzea dira. Horretarako hiru helburu estrategiko zehazten ditu:

- euskara ondorengoetaratzea (familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez),
- euskararen erabilera areagotzea, zerbitzugintza eta auzogintzaren bidez (hala funtzio sinboliko eta afektiboetarako nola enpresa, aisialdi, kirol, komunikabide eta abarretan hedatuz),
- euskararen elikadura (liburu, irrati, aldizkari, egunkari... bidez).

Hiru helburu estrategiko hauek 17 arlotan daude banatuak eta horiek lortzeko 91 helburu zehatz (neurriak) proposatzen dira:

- Euskara geroratzearen arloan, 3 esparru daude (irakaskuntza, helduen euskalduntze-alfabetatzea eta familia bidezko jarraipena), 16 helburu zehatzekin.
- Euskararen gizarte-erabileraren arloan, berriz, 7 esparru (administrazioa, gune euskaldunenak, informazio eta komunikazio-teknologia berriak, lan arloa, aisia, kirola eta erlijioa), 52 helburu zehatzekin.
- Hizkuntzaren kalitatearen arloan, azkenik, 7 esparru (corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, prentsa idatzia, liburugintza, irrati, telebista, publizitatea eta kulturgintza), 33 helburu zehatzekin.

Arlo bakoitzean datozen urteetarako zein erronka nagusiri helduko zaion zehazten dute ondoren. Guk ez ditugu hemen zehaztuko, baina euskarak bere presentzia izan behar duen toki gehientsuenak ukitzen dituela esan behar da.

EBPN aurrera eramateak, jakina, giza- eta diru-baliabide asko eskatzen ditu, eta aurrera begira urtez urte handitzen jarraitzea, asko baita egin beharrekoa. Eta horretarako ezinbestekoa izango da herri-erakundeen arteko koordinazioa.

5.

Bostgarren atalean, EBPnren garapena, haren eguneratzea, jarraipena eta ebaluazioa azaltzen dira, horretarako eman diren 9 ebazpenen bidez. Hauek ere oso zehatzak dira eta lortu nahi dituzten helburuak oso garrantzitsuak. EBPnren garapenaren baitan, udal-eredu ezberdinetarako egin duten zehaztapena agertzen du ondoren, beharrezko ziren egokitzapenak, lehenetsitako helburu nagusiak eta egutegiak.

Hala, EAEko egoera soziolinguistikoa ikusita, aniztasun horri erantzun beharra ikusi zen. Bi aldagai hartu ziren kontuan: a) euskaldunen kopurua (%15era artekoak, %15etik %50era artekoak, %50etik %70era artekoak eta hortik gorakoak), eta b) udalaren tamaina (5.000tik 10.000 biztanle artekoak eta hortik gorakoak); hiriburuak aparte jarri ziren. Hala, hamar talde sortu zituzten, 160 udalerrientzat, eta talde bakoitzean burutu beharreko pausuak zehaztu zituzten, lehenago adierazitako arloen arabera. D ereduan sartzen dira, esate baterako, Gipuzkoa eta Bizkaiko herri txiki asko eta, kasu, Urola Erdia eta Kosta bailarako guztiak ere hor daude (Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Beizama, Errezil, Zumaia, Zarautz).

Amaitzeko, Eredutik abiatuz udal bakoitzerako zehaztapena egin beharra ikusten da, plan estrategikoa gauzatu beharra. Horretarako hainbat bilera egingo dira, maila politikoan eta teknikoan, eta Udalaren eta HPSren arteko lan bateratuaren bidez, plana gauzatu eta kudeaketari ekingo. Aplikazio informatiko bat ere badute prestatua, plangintzaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko.

Iruzkina

Oso ikasgai interesgarria izan da niretzat hamalagarren hau, praktikatik hurbil dagoelako. Ez dut honekin esan nahi ikasgai teorikoak ez direnik interesgarriak, ezta hurrik ere! Ikasgai teorikoak (soziolinguistikaren oinarriak zehazten dituztenak eta abar...) ere oso interesgarriak dira, eta inolako zalantzarik gabe beste ikasgai praktikoko hauen muin eta oinarrian haiek daude, haietan zehaztuta dauden oinarri teorikoen bidez eraikitzen dira gero herritarrengana eta gizartera zabalduko diren jarduera praktikokoak. Baina, kontzeptuak berak dioen bezala, *teoriko* izateak berak bizkarreratzen die halako zailtasun edo trinkotasun bat, astunagoak izaten dira. Ikasgai praktikoetara, berriz, herrian edo dena delako esparruan probatzeko edo

gauzatzeko aukera zehatzagoa dagoenez, errazago hurbiltzen gara, agian *beldur* txikiagoarekin.

Benetan pozgarria eta txalogarria da Eusko Legebiltzarrak 1982ko azaroaren 24an Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Legea onartzea. Oker ez banago, gainera, alderdi politiko guztien aldeko botoarekin. Legearen Lehenengo Idazpuruan euskal herritar guztiei euskara eta gaztelania (biak ere Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial izendatuak) ahoz nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen die eta herritarren hizkuntz eskubide horiek benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen herri-aginteei haien erabilpena bermatzeko agindua ere ematen die. Puntu hau oso garrantzitsua da, euskarari ordura arte ez bezalako estatus juridiko eta politikoa ematen baitio, hizkuntza ofizial bihurtuz.

Bestalde, Lege bereko 29. atalean, euskaren erabilpena arautzeko lana errazteko, aurreikusten du harreman sail bat eratuko dela. Harreman sail hori Dekretu baten bidez sortuko da: Euskararen Aholku Batzordea, hain zuzen ere. Batzorde honetan gaiarekin zerikusia duten hainbat pertsona daude, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren lehendakaria (Batzordearen lehendakari), Kultura Sailburua (lehendakariorde), eta gero hizkuntzaren esparruan dabilzan erakundetako ordezkariak: Hizkuntz Politikarako sailburuordea, HABEren zuzendari nagusia, EITBko zuzendari nagusia, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkari bat, Ogasun eta Herri-Administrazio Sailaren ordezkari bat, hiru Foru Aldundietatik ordezkari bana, Euskal Udalen Elkartearen ordezkari bat, Udallerri Euskaldunen Mankomiunitatearen ordezkari bat, Euskaltzaindiaren ordezkari bat, eta beste berrogei bokal arteraino (hauek, beti ere, hizkuntza-normalkuntzaren prozesuan eraginik duten arloetako pertsonen artean aukeratuak).

Ikusten denez, Batzorde hori sendoa eta pisuduna izateko jaioa da. Hala izan behar, Jaurlaritzari euskara gaietan aholku emateko zeregina baitu: Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-normalkuntzari buruzko gaiak aztertu eta ikertu, euskararen erabilerari buruzko xedapenak ondo ezartzeko behar diren neurriak proposatu Jaurlaritzari edo dagokien erakundeei, hizkuntzarekin zerikusia duten gaietan eskumena duten herri-aginteen jardura koordinatua bermatzeko neurriak proposatu, Hizkuntz Politikako Sailburuordetzak egingo duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) zirriborroari buruzko txostena egin eta haren garapenari eta betetze-mailari buruzkoa ere bai... Herri-erakunde nagusienetako ordezkariak eta

euskararekin zuzenean zerikusia duten erakundeen ordezkariak daude elkartuak bertan.

Aholku Batzorde hau hainbat batzorde-atal berezitan banatua dago, jakina, egin beharreko lana zabala baita: Euskararen Geroratzearen Jarraipenerako Batzorde-atala, Euskararen aldeko Auzogintza eta Zerbitzugintzaren Jarraipenerako Batzorde-atala, Kulturgintzaren eta Komunikabideen Jarraipenerako Batzorde-atala, Toponimiako Batzorde-atal Berezia eta Lege-garapenerako Batzorde-atala.

Euskararen Legea onartu eta berehala (1983an) sortu zen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta berau da Eusko Jaurlaritzaren baitan euskararen sustapenaren eta hizkuntza politikaren ardura daramana, bere gain baitago Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz-politika artikulatzea eta haren jarraipena egitea, Eusko Jaurlaritzak eman eta Herri Administrazioek bete beharko dituzten jardun-irizpideak garatzea eta ezartzea, hizkuntza-politika zuzentzeko egindako arauak ezarri, aldatu edo aplikatzeko proposamen orokor zein berariazkoak koordinatzea, EAE osorako plangintza orokorra osatzea eta jarduera bateratuak burutzeko planak egitea, Jaurlaritzak onar ditzan, Euskararen Aholku Batzordeak egindako proposamen zehatzetan oinarrituta hizkuntza-politikan eskumena duten herri-aginte guztien arteko lankidetzara dinamizatzea eta sustatzea, hizkuntza normalizatzeko zereginetan euskara normalizatzen eta araupetzen diharduten erakundeekin harremanak izatea, Euskal Herri osoa kontuan izanik EAEtik kanpo ari diren era guztietako erakundeekin ere aritzea eta aipatutako guztia garatzeko diru-ekarpenak lortzea, eta abar. Lan horiek egiteko hiru zuzendaritza sortu ziren Hizkuntz Politikarako Sailburuordetzan (HPS): Euskara Planen Zuzendaritza, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza eta Koordinaziorako Zuzendaritza, bakoitza bere zereginekin.

Ikusten denez, euskararen aldeko organoa sortzeaz gain, berehala eman zitzaion edukia eta zeregina erakunde horri eta lanean jarri, egin beharreko lana handia baitzen. Egia da ez dela erraza denen gustua egitea, eta egon daitekeela HPSren lana bide okerretik doala pentsa dezakeenik, edota HPSk bere zereginetan lehentasuna ematen dien zenbait helbururen ordezkari beste helbururen batzuk izan behar luketela lehentasuna uste izango duenik ere. Euskal Autonomia Erkidegoa (eta Euskal Herri osoa) anitza da ideia eta ikuspuntuetan eta bada euskararen normalizazioa oso begi onez ikusten ez duen jenderik ere, gehiegizkotzat jotzen dutelako, eta zerbait "*folklorikoagoa*" nahiko lukeenik ere ez da falta, zenbaitetan hori esatera ausartzen ez bada ere. Eusko Legebiltzarra bera dugu esaten ari garen

horren islarik garbiena, aldeko eta ez hain aldeko iritziak entzun baitaitezke erakunde horretan. Baina gure lurraldea den bezalakoa da, eta halaxe hartu behar dugu. Horregatik, ez da erraza HPSren lana, gehiegi egiten ari direla diotenen eta gutxiegi egiten ari direla diotenen artean aritu behar baitu.

Oso interesgarria da EBPNren azalpena. Euskara normalizatzeko herri-administrazioek egindako plangintza dugu hau. Jaurlaritzak HPSren bidez tajutua herrietan aplikatzeko eta Udalek bete beharrekoa, gainerako lege eta ebazpenak bezalaxe. Eta *pressing* handiegia dela eta toki-administrazioek kexarik izan ez dezaten, EAEko egoera soziolinguistikoari begira egindako mailakatze eta taldeen arabera banatua (A1, B1, C1, A2, B2, C2, D eta hiru hiriburuak aparte). Banaketa honela egiteari ondo deritzot, Udal bakoitzak bere ahalmen eta beharren arabera joka dezan. Akats bakarra ikusten diot EBPN honi: Nafarroa eta Iparraldea ez direla plangintza honetan sartzen. Bestela, helburu, esparru, neurri eta ekintzetan banatuta, egundoko antolamendua dago egina, xehe-xehe emanaz administrazioei bere zeregina. Gainera, udal batek ikusten baldin badu hor dauden ekintzetatik zenbait beteak dituela, beste batzuk zehaztu ditzake, bakoitzaren erritmora adostu eta egokituko baita plana.

EBPN gauzatzerakoan sortuko den beste arazoetako bat betikoa izango da: nork jarri behar dituen hori garatzeko sosa. Plan honen helburua gizarteko esparru guztietara iritsi eta haietan euskararen erabilera normalizatzea da eta horrek diru- eta giza-baliabide ugari eskatzen ditu. Bistan da, bestalde, denok diruak beste norbaitek jarriko ote dituen esperantzan ibiltzen garela, Udalek ere beharizan eta arlo askori erantzun behar baitiote eta beste bat gehiago bizkarreratzea (honek duen muntakoa, gainera) arazotsua gerta baitaiteke. Bi aldeak mahaian eseri eta hitzaspertu luzeak egin beharko dituzte, bakoitzaren eremuak ondo mugatuta uzteko.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Aplikagarritasun osoa du EBPNk gure herriarentzat eta, egia esan behar bada, dagoeneko aplikatze bidean gara. 1995ean, Eusko Jaurlaritzatik etorri zen udal-barneko planei baiezkoa esan zion Azpeitiko Udalak eta, ondorioz, hizkuntz eskakizunak zehaztu zituen eta derrigortasun-datak jarri. Horren berri eman dut beste iruzkin batean. Orain, EBPNren berri izan orduko, Azpeitiko Udalak hori herrian martxan jartzea erabaki du eta, gaur egun, Euskara Patronatoko teknikaria Hizkuntz

Politikako teknikariek harremanetan da, eta elkarrekin ari dira Azpeitirako esparru, neurri eta ekintza espezifikoak zehazteko lanetan. Dagoeneko aplikazio informatikoa hemen dugu eta han agertzen diren ekintzetatik jadanik zenbat egiten diren aztertzen ari dira, gero egiten ez direnak abian jartzeari ekiteko. Horrekin batera, herriaren argazki edo erradiografia bat ere egin nahi da eta bai udaletik bai herriko elkarte eta taldeetatik dagoeneko euskaraz egiten diren ekintzak biltzen ere ari dira, denak inplikatzeko baititu plan horrek bere baitan. Ez Udala bakarrik, nahiz eta hura izan bultzatzaile eta sustatzailea. Baina esparru ezberdinetako ordezkari eta eragileekin hitz egin beharko da eta haien aportazio eta iradokizunak ere kontuan hartu, gero beraiek ere lankide izango baitira EBPNko ekintza zehatzak herrian gauzatzeko orduan. Hala, batzordeak osatzea eta bilera-egutegi bat zehaztea ere erabakia dago eta horretarako urratsak ematen ari da Azpeitiko Euskara Patronatoa.

Bestalde, eta administrazioari berari begira, lehendik ere Udaleko batzordeekin (Kultura, Gazteria, Kirolak, Festak, Hezkuntza...) koordinatuta egiten badu ere lan Euskara Patronatuko teknikariak, hemendik aurrera EBPN txertatzerakoan batzorde horien beharra ere izango denez, haietako arduradun politikoekin eta batzordearentzat lanean ari diren teknikariek ere harremanen maiztasuna eta moldea adosten ari da Euskara Patronatoa. Beraz, bi aldeetatik eutsi behar zaio planari: herriko eragileetatik (enpresa, talde, elkarte, ikastetxe, sindikatu, merkataritza-elkarte...) eta udal-administrazioaren ataletatik, lan koordinatuaren bidez EBPN martxan jarri, gauzatu eta euskara Azpeitian arlo guztietan era normalizatuan erabiltzeko.

15

Hamabostgarren ikasgaia:

Normalkuntza Saioak Administrazio Publikoan

Josean Urdangarin izan da ikasgai honen egilea. Izenburuak dioen bezala, Administrazio Publikoetan hizkuntzaren normalizazioa lortzeko egin diren edo egin daitezkeen saioen berri ematea du helburu, hori lortzeko egin beharreko azterlanak eta proposamenak, Eusko Jaurlaritzak horetarako emandako legedia, euskara planak, AEBEMET metodologia, zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza, herri-administrazioen ardura eta zeregina euskararen normalizazioa lortzeko ahaleginetan... Administrazioaren *barrura* begira egindako saioak dira, beraz.

Sarrerakoan ikasgaiaren aurkeztuko dituen gaien azalpen laburra egin ondoren, lehenengo atalean, "*Administrazio publikoak eta hizkuntza-plangintza: bilakaera eta esperientziak*" izenekoan, dio lan-munduak garrantzia handia duela hizkuntza-plangintzaren ikuspuntutik, ordu asko pasatzen dugulako lanean eta bereizketa egiten du sektore publikoaren (administrazioaren) eta pribatuaren (enpresen) artean, hizkuntza plangintzaren lanketa teorikoetan (Fishman, Txepetx) ere hala egin izan delako. Fishman-ek bere *Reversing Language Shift* lanean eta beste batzuetan adierazten du hizkuntza biziberritzeko saioen "alde indartsuan" lehenengo mailan daudela administrazioa eta enpresa, unibertsitatearekin eta komunikabideekin batera. Josean Urdangarinek herri-administrazioaren atalari eusten dio bere ikasgaiari.

Hala, herri-administrazioak euskararen normalizazioan hainbat urrats eman ditu, Euskararen erabilpena arauzkotzeko 10/1982 Legea eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea, esate baterako eta hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-daten sistema abian jarri zela. Eta hori gero beste hainbat lege eta dekreturen bidez hedatu dela administrazio sektoreetara (Administrazio orokorra, Lan-haremanen Kontseilua, Foru- eta Toki-administrazioak eta erakunde autonomoak, Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileak, Irakaskuntza sektorea, Ertzaintza, Justizia...). Eta normalizazioari bide egiten lagutzeko, lehenengo plangintzaldi bat egin zela 1990-1995 artean eta bigarren plangintzaldia dagoela martxan orain (1997-2002); 1997an AEBEMET programa jarri zen martxan, euskararen erabilera era mailakatuan sustatzeko Herri-administrazioetan.

Ondoren, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren bidez, EAeko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu zen, eta bertan jaso ziren erakunde bakoitzak bere egoeraren azterketa egitea, lanpostuei dagozkien hizkuntza-eskakizunak zehaztea, derrigortasun-datak, indizeak, lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan hizkuntza-eskakizunak baloratzeko metodoak, baliokidetzak, salbuespen-arauak...

Administrazioan Euskara Bultzatu Erabiliz METodologia (AEBEMET) euskara planak kudeatzeko aplikazio informatikoa da. Erakunde osoa hartzen du kontuan, administrazio-atalen egoera, eta helburu zehatzak, lorgarriak eta neurgarriak jartzen ditu; lehentasunak berriz erakundearen helburu funtzionalei eta egoera soziolinguistikoari egokituta finkatzen ditu. Horretarako plana egiten da, lehentasunak finkatuta, eta txosten bat osatzen. Datu-bilketa planren proposamena egiten da ondoren, eta gero plana martxan jarri eta jarraipena egiten. Dena, beti ere, gero plan horretako partaide izango direnekin harreman estuan, informazio guztia emanaz eta haiengandik iradokizunak jasoz. Horretarako arduradunak jarriko dira sail bakoitzean (goi mailako kargua), eta hizkuntza teknikariaren laguntza izango dute jakinarazpenak eta planaren garapena aztertzeko.

AEBEMET metodologiaren barruan, herri (edo erakunde) bakoitzari dagokion derrigortasun-indizea ateratzen da. Horretarako formula bat erabili dute:

$$\text{euskaldunak} + (\text{ia-euskaldunak}/2) \rightarrow \text{derrigortasun-indizea}$$

eta indize horren arabera, lau helburu mailakatu zehaztu: lehenengoa %0tik %25 artekoa; bigarrena %25etik %45era artekoa; hirugarrena, %45etik %70era artekoa eta laugarrena %70etik gorakoa. Hala, lehenengo mailako erakunde batean jendaurreko lanpostu edo atalak eta gazteekin harreman zuzen eta ohikoa dutenak bi hizkuntzetan funtzionatu beharko dute herritarrari atenditzerakoan eta gizarte izaerakoetan mikroplanak egingo dira euskara normalizatzeko. Zenbat eta helburu mailakatu altuagoa, orduan eta administrazio-atal gehiago euskaraz. Laugarrenean, administrazio-atal guztiak euskarazko atal bihurtu beharko dira (hots, bere zeregin guztiak batez ere euskaraz betetzen dituztenak, bai zerbitzu hizkuntza gisa, bai lan-hizkuntza gisa). Helburu horiek lortzeko, jakina, prestakuntza-planak egingo dira.

Azkenean, balizko herri bateko (Olabe herriko) plana dator, adibide gisa.

Iruzkina

Eusko Legebiltzarrak aspaldi onartu zuen euskararen ofizialtasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, oker ez banago, euskara berezko bertako hizkuntza dela ere aitortu zuen. Ondoren, hainbat lege eta dekretu ere atera ditu, gure hizkuntzaren erabilera normalizatzeko herri-erakundeetan. Horrela, poliki-poliki euskararen erabilera herri-administrazioetan normalizatzeko pausuak ematen hasi gara. AEBEMET metodologiarekin eta haren inguruan sortutako xedapen eta dekretuekin erakundeetan plan zehatz eta konkretuak gauzatzeko bidea erraztu da. Esan beharra dago, hala ere, zenbaitentzat pausuak oso astiro ari direla ematen eta azkarrago joan beharko litzatekeela. Honek baditu bere arazoak: herri euskaldunetan euskararen aldeko motibazioa handia izan daiteke eta toki-administrazioa gidatzen duten alderdi politikoek ere hartarako joera handiagoa izan. Herri horietan bai planak azkarrago aplikatzeko aukera dagoela. Normalean gainera herri txikiak dira, 5.000 biztanletik beherakoak, eta langile gutxiko udal-administrazioak, atal gutxitan banatutakoak. Plana bera ere errazagoa izango da. Baina beste zenbait herritan, egoera soziolinguistikoa ez da hain aldekoa izango eta udal-gobernua dauden alderdiek duten sentsibilitatea ere ahulagoa izan. Herri hauek, gainera, normalean handiak dira, biztanle askokoak.

EAEko Administrazioak berak ere ezin du jokatu arin. Esan nahi da, gure gizarteak duen sentsibilitatearen ondorioz, eta politikoki dagoen banaketa kontuan izanda, arbitrariedade guztia kendu behar dela euskararen gaineko erabakietatik, denok ere oso jakinean baititugu bakoitzari dagozkigun eskubideak, betebeharrekin zenbaitetan ahaztu egiten bagara ere. Hala, administrazioetik ateratzen den agindu edo betebeharrak oro oso ondo aztertuta eta neurtuta izan behar du, atzera botatzeko biderik gerta ez dadin. Eta horretarako oso ondo pentsatuta da indizearen kontua. Egoera soziolinguistikoa (euskaldunen eta ia euskaldunen portzentaia) kontuan izanik zehaztu herri konkretu bat, edo erakunde bat, zein helburu mailakatuta txertatzen den. Horren aurka egitea ez da erraza. Ondoren, helburu horri dagokionaren arabera administrazio-atal elebidunak edo euskara hutsezkoak zehaztu eta, ondoren, plana egiteari ekin. Dena oso "demokratikoki" egin, ahalik eta min txikiena eginaz. Badakit zenbait euskaltzaleri honek ez diola grazia handirik egingo, erritmoa ikaragarri mantsotzen baitu baina, egiten denean, euskara gogoko ez dutenei argumentuak kentzen zaizkie eta hain neurtuta emandako pausoak direnez, atzeraezina gertatuko da prozesua.

Plana antolatzerakoan ere politikariak, udal-langileak, euskara teknikaria eta abar partaide izateak ere abantaila handiak ditu. Langileei planaren berri etengabe eta noiznahi emanda, zalantzak eta susmo txarrak saihesten dira, eta beraiei iradokizunak egiten uzten bazaie, ez dute izango goitik beherako plan bat, derrigorrezkoa, den sententzia izango, baizik eta beraiek partaide direla sentituko dute. Plana berraztertu eta hausnarketa egiteko unea iristen denean ere langileak aparte izaten badira, askoz hobeto gainera.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Ikasgai hau oso interesgarria eta baliagarria izan da niretzat. Izan ere, praktikarekin oso lotua dago, hau da, eguneroko beharrei begira aztertu beharreko alderdi guztiak ukitzen ditu, herri-administrazioaren (gure kasuan, Udalaren) ikuspegitik.

Eusko Legebiltzarrak onartu eta Jaurlearitzak martxan jarritako Lege eta Dekretuak derrigorrez bete behar ditu EAEko herritar orok (bere zereginari eragiten badio, jakina) bai eta edozein erakunde publiko eta pribatuk ere. Zer esanik ez, jakina, Udal batek.

Hala, Azpeitiko Udalak onartu egin zuen, oso pozik gainera, euskararen normalizaziorako egitasmoa eta martxan jarri zuen bere langileen artean Hizkuntz-eskakizunak zehaztu eta horiekin batera derrigortasun datak ezartzea. Aurreko ikasgairen batean esan dugun bezala, Azpeitian euskaldunen kopurua oso altua da (%90 ingurukoa) eta euskararen normalizazioa ezinbestekotzat jotzen zuen, herritarren beharri erantzuteko.

Hala, lehenengo plangintzaldiaren amaiera aldera jarri bazen ere martxan plana, langileen kopuru handi batek (%70etik gorak) zegokion hizkuntz-eskakizuna atera zuen lehenengo plangintzaldia amaitu baino lehen. Gehienak, jakina, 1. eta 2. Hizkuntz Eskakizuna zegokienak ziren. Erabakia alde honetatik hartzearen arrazoia praktikoa izan zen huts-hutsik: langileen gehiengoa euskaldunzahar peto-petoa izanik, bi lehenengo hizkuntz eskakizunak ateratzea erraz samarra zen prestaketa-saio gutxi samar eginda (gogoan izan lehenengo plangintzaldia amaitzeko urte erdia eskas falta zela sartu ginela). Hala ere, Udalarentzat ahalegin handia izan zen eta langileentzat ere ezin esan samurra izan zenik: prestaketa-saioak antolatu behar izan ziren, langileen ordutegiak kontuan izanik eta euren eguneroko lanarekin ahalik eta

oztopo eta interferentziarik txikiena sortzen ahaleginduz... Nahiko presaka ibili behar izan bagenuen ere, emaitza ezin hobea izan zen eta poz handia sortu zuen horrek gure baitan.

Gero, bigarren plangintzaldia martxan jarri zenean, 3. eta 4. Hizkuntz Eskakizunak zegozkien teknikari eta langileek hizkuntz eskakizunak ateratzeko egitasmoari ekin zitzaien, Azpeitiko Udalaren Euskara Patronatoaren bidez. Horiekin batera, aurreko plangintzaldira aurkezterik izan ez zuen 1. edo 2. hizkuntz-eskakizuna atera beharreko langileren bat edo beste ere sartu zen bigarren plangintzaldi honetan. Hemen ere emaitzak onak izan ziren eta gaur egun oso teknikari gutxi dira oraindik bere hizkuntz-eskakizuna atera gabe dutenak, batik bat sektzio edo atalburu direlako 4. Hizkuntz Eskakizuna atera behar dutenak (eta 3.a atera behar duen bakarren bat). Dena dela, esan beharra dago trebatze-saioretan ibili direla eta irailari begira horientzat plangintza berezia aztertzekotan dabilela Euskara Patronatoa eta arduradun politikoei aurkeztekotan. Kontuan izan behar da atalen bat edo besteko arduradun edo atalburua euskaldunberria dela eta, euskalduntze prozesuan aurrera badoa ere, oraindik urruti samar dagoela 4. H.E. ateratzeko unetik. Eta egia esan behar bada, horien gainera dauden arduradun politikoei (zinegotziekin, alegia) ere antzeko zerbait gertatzen da: denak euskaldunzaharrak izan arrren, zenbait alfabetatu gabeak direla. Egoera honek ekar dezake langileen ahaleginak ez porrotera joatea baina bai bidean oztopoak sortzea (hots, agian "aizu, nik txosten juridiko hori ez dut euskaraz ulertzen" eta antzekoak entzun beharra, horrek teknikariengan halako desanimo bat sortuz -jakin beharko genuke txosten juridiko hori bera gaztelaniaz ulertzeko gauza diren). Edota herri-administrazioetako zenbait sailetatik testu guztiak erdara hutsean iristea, Euskal Herriaren egoera soziolinguistikoa eta politikoa halakoxea delako, eta langileek beren ahalegina aski alferrikakotzat jotea (neronek entzundakoa da "gu ari gara euskaraz trebatzeko ahaleginak egiten eta gero Jaurlaritzako, Foru Aldundiko edo zenbait udaletako komunikazio, agindu, txosten eta abar erdara huts-hutsean datozkigu. Zertarako aritu orduan euskaraz trebatzen?"). Eta ez dute arrazoi faltarik, baina gurpila nondik edo handik ez badugu abian jartzen, euskararen egoerak bere horretan jarraituko du beti eta hizkuntz normalizazioa ez da inoiz burutuko.

Baina Euskara Planak ez dira mugatzen Udalaren langileek euren hizkuntz eskakizunak ateratze hutsera. Horren ondoren urrats bat gehiago egin behar da: langile horiek euskaraz funtzionatzen jarri, bakoitza bere arloan. Hemen ere, herriko euskaldun portzentajea hain handia izanik, administrazio-atal guztiak dira zerbitzu-

hizkuntza ezezik lan-hizkuntza ere euskara izan beharrekoak, gure herriak 4. Helburu Mailakatua baitu ezarria. Une hauetan Euskara Patronatoa plan hau tajutzen ari da, eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikako Sailataleko (HPS) teknikariek estu-estu ari da lanean.

Plan hau abian jartzeak baditu, ordea, hainbat oztopo: esan bezala, langile batzuen aldetik (ez denen aldetik, zorionez) euskararen normalizazioaren kontu hau guztia derrigorrez egin beharreko zerbait delako ustea dago, halako inposizio gisa hartu dute, nahiz eta aurrez aurre halakorik esatera ausartu ez. Bestalde, aipatu berri dugun bezala, gure herrian ahalegina egin eta denak euskaraz martxan jarri arren, hemendik kanpo gauzak ez direla horrela garbi ikusten da, eta erakunde batzuek ari direla ahalegina egiten eta beste batzuetan, berriz, ez dela ezer egin eta ez dagoela ezer egiteko asmorik ere, gainera (adibide soil gisa, eta gehiago ere badirela ondo jakinik, estatuaren menpeko administrazio atalak jar ditzakegu: ia guztiak erdara hutsean lasai baino lasaiago lanean dihardutenak. Eta Udalek sarritan jarri behar izaten dute haiekin harremanetan: gizarte segurantza, justizia...).

Horrez gain, herritar guztiak ere ez daude euskaraz alfabetatuak, eta zenbait dokumentu, txosten eta abar euskaraz ulertzeko ez dira gauza, agian euskara gordinegian idatzita daudelako edo batek daki. Udaletako Idazkaritzatik, Hirigintza sailatik, Gizarte Zerbitzuetako arlotik edo antzekoetatik ateratzen diren txosten teknikoak eta abar datozkit burura. Eta sarritan gazteleraz emateko eskatu ohi du herritarrak (baina hemen ere, lehengo galdera bera datorkit: gaztelaniaz dauden txosten eta agiriak ulertzeko gaituak al daude herritar horiek beroiek?). Eta gazteleraz *ere* egin beharrak lana bikoiztu egiten dio udal-langileari eta hortik protesta dezente etorri ohi da (ohi zaizkigu, geuri ere).

Dena den, gutxi izango dira Euskal Herri osoan Azpeitiak duen egoera soziolinguistiko positiboa duten herriak. Konparazioan ahalegin txikia eginez Udala eta bere langileak elebidun bihurtzeko baldintza objektiboak inon baino hobek direla aitortu behar dut. Plangintza on bat tajutu eta abian jartzea lortzen bada, azkar samar ikus daitezke fruituak, euskararen mesedetan.

16

Hamaseigarren ikasgaia:

Esparruz esparruko mikroplangintzak

Ikasgai honen egileak Tere Barrenetxea eta Mikel Zalbide izan dira. Hau ere ikasgai luzea da, 80 orrialdetik gorakoa. Bi zati nagusitan dago banatua: lehenengo zatia Tere Barrenetxeak egin da, eta "*Lan-munduko euskara-planak (mikroplangintzak)*" du izena. Bigarren zatia, berriz, Mikel Zalbidek egin du eta "*Hezkuntza alorreko hizkuntza normalkuntza*" izenpean aurkeztu zaigu.

1.

Lan-munduaz diharduen zatian dioenez, euskararen presentzia txikia da lan-esparruan eta horren aurrean zenbait saio egin dira azken urte hauetan. Horrela, ekimen horien historia egiten du lehenik. Hala, dio 1970eko hamarkadan, gizartean gertatu zen euskararen aldeko aro berriaren ildotik, lantegietan ere eskari hori sortzen hasi zela. Arrasateko kooperatiben inguruan eta 1977an manifestu bat sinatu zutela 711 elkarte eta gaueskolak, euskara lantegietan kontuan hartu behar zela adieraziz. 1978an, berriz, 30 kooperatiba eta sozietate anonimotako langileak elkartu ziren Lazkaon, gaia eztabaidatzeko eta bilera hauetako emaitzarik oparoena izan zen ULARCO kooperatiban euskara lantzeko proiektua egin zela. Euskara klaseez gain, UZEIrekin batera Enpresa Hiztegia argitaratu zen eta EUSKALAN izeneko aldizkari bat sortu ere bai. Ondorengo urteetan beste zenbait kooperatiba eta bestelako enpresetan ere egin ziren era horretako ekimenak.

1980ko hamarkadan ere jarraitu zuten ekimenok aurrezki kutxa, nekazaritzako kooperatiba, zenbait osasun-zentro eta beste hainbat erakundetan. Ekimen hauetan garbi ikusi zen arlokako terminologia zehaztu eta landu beharra, xede berezietarako euskara landu beharra eta bezeroarekiko komunikazioetan elebitasuna lantzen hastea, eta hiru bide horiek jorratzen saiatu ziren.

Azken urteotan sozietate anonimoetako zenbait Hitzarmen Kolektibotan euskararen aldeko neurriak adostu dira enpresaren eta langileen artean, gero konpromiso horiek betetzerakoan emaitza oso ezberdina izan bada ere.

Lan-munduan euskara txertatzen hasteko bide horretan, mikroplangintzak egitea bultzatu da. Hau da, erabilerara zuzenduak, erakunde bakoitzari egokituak eta integralak. Aurretik zetorren esperientziak ekarri zuen estrategia hau martxan jartzea. Horrela, era askotako ekimenak jarri ziren abian eta ikasgaiaren autoreak bat adierazten du: EKBk Katalunian landutako Indexpla aplikazio informatikoa. Honen helburua da erakunde batek une jakin batean hizkuntzaren normalizazioan duen maila objetiboki neurtzeko balio du eta plan baten ondorioz izandako bilakaera ezagutzeko aukera ematen, hainbat faktore eta adierazle kontuan hartuz. Badirudi enpresa handi samarretan, 75 langiletik gorakoetan, ez dela hain tresna erabilgarria.

Lehenengo planetan, pilotoetan, Elhuyar, HPS eta HABE aritu ziren aholkularitza teknikoak ematen, Jaurlaritzak hiru foru aldundiekin egindako hitzarmen baten ondoren. Gaur egun Eusko Jaurlaritzak plan horiek egiteko laguntzak ematen dizkie enpresei.

Mikroplanak egiteko euskara planaren helburuak jardun-eremuen arabera sailkatzen dira eta jardun-eremu horiek, berriz, bi multzo nagusitan, barne- eta kanpo-harremanen arabera. Enpresa bakoitzak egoki edo bideragarri iruditzen zaizkion jardun-eremuak hartzen ditu helburuak finkatzeko. Hala, lau eredu antolatu dira: E1, E2, E3 eta EX ereduak. Lehenengo hiru ereduak euskara planak arlo xumeenetik arlo gehiagotara zabaltzen dira. EX ereduak, berriz, ez dago helburuetarako ezinbestekotasunik, administrazio publikoarekiko harremanen arloa izan ezik. Hau derrigorrezkoa da enpresak diru-laguntzak jasoko baditu.

Kanpo-harremanen atalean hainbat azpiatal zehazten dira: hizkuntza-paisajea, publizitatea eta argitalpenak, harrera-hizkuntza, bezeroekiko harremanak, administrazioarekiko harremanak, banketxeekikoak eta hornitzaileekikoak eta horietako bakoitzaren barruan, beste hainbat azpiatal oraindik: kanpo-errotulazioa, produktuen etiketak, iragarki eta esloganak, telefonoa, mezu automatikoak, leihatilako harrera, formularioak, idatzi luzeak, txostenak...

Barne-harremanei dagokienez, berriz, hor ere hizkuntza-paisajea hartzen da kontuan, formularioak, testu laburrak eta horientzako aplikazio informatikoak, txosten, proiektu eta lan zabalagoak eta horientzako aplikazio informatikoak, lan-bileretako jardunak... eta, lehen bezalaxe, atal horien barruan beste hainbat azpiatal zehazten dira. Gero, eredu bakoitzean horietatik zenbat bete behar diren zehazten da.

Ondoren, euskara-planen metodologia dator. Plana diseinatzerakoan kontuan izan beharreko urratsak, helburuak zehaztea, pertsonalarekin hitz egitea eta adostasuna lortzea, lantegiaren egoeraren berri izatea (euskararekiko gaietan), egiten denaren berri jasotzea, organigrama, komunikazio zirkuluak... Hau da, enpresaren ahalik eta argazkirik egokiena eta zehatzena. Hori egindakoan, euskara-plana bera abian nola jarri erabakitzea (kalitate-zirkuluaren bidez edo beste era batera), haren jarraipena egitea. Eta horren guztiaren adibide gisa, ELAY enpresan egindako lanaren berri ematen da.

Eta lehen zati honi amaiera emateko, Galesen, Québec-en eta Katalunian arlo berean egiten ari diren esperientzien berri ere ematen du, bakoitzean agertzen diren oztopo eta indarrekin.

2.

Ikasgaiaren bigarren zatia Mikel Zalbidek egin du. Bi atal handitan banatzen du: Hasteko, irakaskuntza elebiduna sortzeko garapen-bideen historiaren gainean hitz egiten du, luze-zabal: 1978an SIADECOK Euskaltzaindiarentzat egindako azgterlan soziolinguistikoaz, garai hartako irakasleen euskara-mailaz, ikastolak sortzen ari zirela, *Euskararen Irakasle Diploma*... Ondoren, autonomiaren aire berriak etorri zireneko garaia hartzen mintzagai: euskal irakas-sistema abian jartzeaz, Estatutuaren bidez euskararen ofizialtasuna lortzea eta honek zekartzan ondorio guztiak, A, B eta D ereduak, bakoitzaren aukerak eta emaitzak, eta eredu batzuetatik beste batzuetara egon den transbase edo bilakaera. Eta haserako garai haietatik gaur artean egindako bidearen berri ematen digu.

Bigarren atalean, berriz, "*Eskolaren eragina euskara indarberritzeko orduan*" gaia hartzen du hausnarketa-gai. Euskal irakaskuntzaren bidez euskarari bere lekua eta gradua emango zitzaiola uste izan da (dugu) euskaltzaleen artean, eta hiru eredu araberako azterketa egiten du lehenbizi. Asko laburtuta, dio A ereduko ikasleek, euskara zerbait bereganatzen badute ere, ez direla gai euskaraz aritzeko. B ereduan dabilzanek, berriz, euskararen jakite-maila jaso samarra duten arren, nahiz eta euskal esamolde jator askorik erabili ez, ez dutela lagun-girora eta beste zenbait esparrutara euskara zabaltzen. D eredukoak, azkenik, euskaraz ahoz eta idatziz inoizko belaunaldik baino hobeto erabiltzeko gai badira ere, gero zenbaitetan eskolaz kanpoko jardunetan erdaraz aritzen direla. Zalbidek dio Hezkuntza, Unibertsitate eta

Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzua eskola-giroko hizkuntz-erabileraz datuak biltzen aritu dela eta horren hustuketa bat egiten du.

Eskola-umeen euskarazko mintzajardunean eragina izan dezaketen faktoreak aztertzen ditu ondoren, hainbat punturen arabera: eskolaren ordutegi mugatua, eskolako hizkuntza elkarrekintzaren nolakoa, kurrikulumeko gaiak eta hizkera-moduak, irakasleen eta eskola-lagunen euskara-maila eta gizartearen eragin-moldea.

Eskolaren ordutegi mugatua aztertzerakoan, umeak/gazteak eskolan zenbat ordu ematen dituen aztertzen du, 4 urteko haurraren, 8 urteko umearen eta 15 urteko gaztearen egun osoko jarduna aztertuz, hots, eskolan zenbat ordu egiten dituen eta eskolatik kanpo zenbat, eta eskolako ordu horietatik, ereduaren arabera, euskaraz zenbatean ari daitekeen.

Eskolako hizkuntz-elkarrekintza aztertzean, berriz, ikasleak hizkuntza jasotzen eta hizkuntza berak sortzen zenbat denbora pasatzen duen aztertzen du eta dio ikasleak batez ere *entzun* egiten duela. Ahozko hizkuntza sortzea, berriz, atzera geratzen dela, nahiz eta gelaz kanpoko hizkuntz-elkarrekintza nagusia ahozkoa izan.

Kurrikulumeko gaiak eta hizkera-moduak aztertzean, dio hiztun normalak ez duela beti berdinean hitz egiten, baizik eta solaskidearen, gaiaren, helburuaren eta abarren arabera aldatu egiten duela errejistroa. Eskolaz kanpo egiten duenez ikasleak bere egunaren zatirik handiena, lagunarteko kontuetan, eguneroko gaiez, sentimenduez eta asmoiez hitz egiten, abstrakzio-munduko kontzeptu eta formalismoetatik urrun. Eskolak euskara-molde hori ere erakutsi beharko lukeela dio Zalbidetik, baina normalean ez duela egiten. Eskolaren zeregina eskola-umeak helduen lanbide eta jardun-esparru formalizatuarentako prestatzea baita eta horrek zerikusitua du hizketa-bide afektibo, goxo, barrenkoi eta jolaskoiarekin. Erregistro formalez gain ez-formalak ere sartu behar liratekeela eskolan.

Irakasleen eta eskola-lagunen euskara-maila ere aztertzen du eta dio ikusi egin behar dela ikaslea bere solaskideekin ari denean zernolako euskaran aritzen den. Irakasleen arloan ekimen eta aurrerakada handia egin dela dio, baina oraindik ere leku guztietan ez dela egoera "arrosa kolorekoa". Era askotako irakasle eta andereñoak daudela, batzuk ongi alfabetatuak, eta jendaurrean-eta maila jasoan aritzeko gauza direnak; beste batzuk, berriz, beharrak hala eraginda presakaegi prestatu behar izanaren ondorioz, maila jaso hori oraindik lortzeke daudenak; defizit

nabarmenak dituen bat edo beste ere bai, gutxi izan arren. Eta euskaraz aritzeko molde guzti horiek dutela eragina ikasleengan. Esparru honetan ere badagoela zer egin oraindik, euskara erregistro on batera ekarri arte irakasle guztiak. Eskolagunen hizkera mailaz aritzerakoan ere, aurretik adierazi ditugun oztopo guztiak direla bide (etxeko egoera linguistikoa, ereduaren arazoak, eskolaz kanpoko mintzajardunak...), zenbait ikasleren euskara maila ez da behar bezain ona eta horrek ere kutsatzen ditu inguruko lagunak, elkarreragina handia baita.

Gizarteak ere badu eragina euskararen erabileran. Egoera soziolinguistikoa dena delakoa denez, ez da gauza bera Urola bailaran bizi edo Bilboko ezker aldean. Aurrenak egun osoa euskaraz aritzeko zortea duen bitartean, Bilbon bizi denak eskolatik kanpo euskaraz aritzeko esparru gutxi izango ditu, nahiz eskolan D ereduaren aritu. Horrela, ez da harrizkoa zenbait gaztetxo, euskararen jabe izan arren, inguruak laguntzen ez diolako erdara hutsean aritzea.

Azken batean, Zalbidek dio eskolak bakarrik ezin dezakeela ikaslearengan eragin. Baina, hala ere, eskolaren eragina beharrezko dela, haur erdaldunei euskara erakusten dielako eskolak, haur euskaldunei euskaraz irakurtzen eta idazten ere erakusten dielako, ikasleen euskara osatu, jantzi eta aberastu egin dezakeelako eskokan, euskal kulturaren eta herri-jakintzaren transmisio-bide ere izan daitekeelako, euskararen erabilera indartzeko laguntza ere eskain dezakeelako, neurri batean behintzat (zenbaitetan itsasoaren erdian dagoen uhartearen antzera bada ere). Eta, bestalde, gero eta ikasle gehiagok euskaraz dakien arren, euskara zenbaitek ez duela erabiltzen, euskara pobretua darabilte sarritan, eta trebetasun pasiboetan (irakurri eta entzun) trebeagoak direla aktiboetan baino (idatzi eta mintzatu).

Iruzkina

Ikasgai honetan agertzen zaigun gaia garrantzia handikoa da. Aurreko zenbait ikasgaitan agertu zaizkigu Herri-administrazioetatik egin daitezkeen ekimenak, bai eta gizartetik, herritarrengandik, egin daitezkeenak ere. Euskarak esparru asko bereganatu behar ditu hizkuntza normalizatua izatera iristeko, gaur egungo behar zabalei behar bezala erantzuteko. Eta hemen agertzen zaizkigun bi esparru handi hauek oso garrantzitsuak dira gure hizkuntzarentzat. Batetik, lan munduko euskaraplanak eta, bestetik, hezkuntza alorra.

Lan-munduan igarotzen ditugu norbanako askok gure eguneko ordu asko eta hor ere euskara sartzeari ezinbesteko da. Batetik, norbanako gisa gure lan-orduetan ere euskaraz aritzeko eskubidea dugulako. Hau, jakina, edozein unetan egin dezakegu, solaskide euskaldunak ditugun neurrian. Baina euskara menderatzen ez dutenak ere hor ditugu, eta horiek euskalduntzea izan daiteke urratsetako bat (nahiz eta nagusiak esango duen jendearen zeregina, lantokira datorrenean, lan egitea dela). Hortik, gero, euskara lanerako hizkuntza bihurtzea erator daiteke.

Horrekin batera, ordea, badira beste helburu batzuk lan munduan: euskara lantegiko produkzio sistematan sartzeari, esate baterako eta, oro har, jarduera osoan. Hau da, hizkuntza-paisajeari euskaraz jarri, txartel pertsonalak, faktura-orriak, produktuen etiketak, publizitateko testuak, iragarkiak, esloganak, formularioak, testu laburrak, idatzi luzeak, txostenak, bezeroaren harrera, lehiatilak, telefonoa, lantegian bertan erabiltzen diren makinaren erabilera-orriak eta instrukzioak...

Lan-munduak ezin du gelditu euskaratik kanpo eta hor euskararen alde lan egiteko alor luze-zabala dago. Lehendik datozen sektoreetan ezezik(era guztietako industria, nekazaritza arlokoak...), hirugarren sektorea (zerbitzuena) eta informatikaren hedapenarekin zabaltzen ari diren esparru berrietan. Eta zer esanik ez lan-mundua bere zentzu zabalean hartzen badugu eta kontzeptu horretan sartzen baditugu *lanbide liberal* edo deitzen zaienak, esate baterako, beste askoren artean.

Irakaskuntza arloa dugu bestetik ikasgai honetako gaia. Hemen ere badago zer egin. Batetik, unibertsitatez azpiko ikasketetan egin bada ere orain arteko ahalegina, oraindik ez dago hezkuntza arloa erabat euskaldundua. A eta B ereduetan ikasle asko eta asko dabil oraindik ere. Horrek esan nahi du beharrezko euskaragaitasunik ez dutela lortzen ikasleek euren ikasprozesuaren amaieran. Zalbidetik esaten duenez, D ereduak ere zenbait testuinguru soziolinguistikotan ez dutela lortzen behar adinako gaitasuna euskaraz, edo lortzen badute, ez dutela erabiltzen eguneroko harreman-hizkuntza moduan. Euskararen egoera normalizatzen, beraz, bada oraindik zer eginik. Irakaskuntza arautik kanpo gelditzen diren gainerako irakaskuntza-arloak ere hor ditugu eta ez dira txantxetako esparrua.

Irakasleak ondo trebatzen eta gaitzen ere badago oraindik zer eginik, nahiz eta irakasle horiek euskaldunak izan eta euskaraz klaseak emateko *gaituak* egon. Zalbidetik dioen euskararen erregistroen kontua ere ez da txantxetako gaia. Arazo

honentzat soluzio bat aurkitzea behar-beharrezko dugu. Eskoletan erabiltzen diren materialei ere begiradatxo bat bota beharra dago. Sarritan beste hizkuntza batzuetatik itzuliak dira eta, zoritxarrez, salbuespenak salbuespen, edukiari gehiago begiratu izan zaio orain arte eta hizkuntzaren beraren aberastasunari gutxiago. Esan nahi da zenbaitetan, hainbat arrazoigatik, euskararen *tenpoa* eta musika ez direla gorde eta testu eta materialetan darabilgun euskara oso gordina eta are traketsa ere badela. Hala ere, aitortu beharra dago, egiaren ohoretan, argitaletxeek ahalegin handia egin dutela arlo honetan, eta gero eta zailago dela trakaskeria nabarmenak aurkitzea materialetan. Dena dela, oraindik ere zenbait esparrutan (lanbide heziketa, esate baterako) zenbait material erdara hutsean dabilela entzun dut. Beraz, badugu zer eginik arlo honetan ere. Gainera, *itzultzearen* garaitik *sortzearen* garaira ere pasa beharko dugu egunen batean.

Eta zer esanik ez unibertsitate arloari erreparatzen badiogu. Ehunka dira ikasketa arloak eta ikasketak. Haietako bakoitzean, gainera, ikasgai edo asignatura ugari, haiek osatzeko bibliografia osagarria (kontsultak egiteko) zer esanik ez. Zuzenbide naturaletik fisika atomikora, materialen neketik aerodinamikara, pedagogia arloa, gizarte laguntzaileak, legelariak, medikuntza edo erizaintza barne direla, arlo ea eremu horiek guztiak euskaraz lantzeko gai izatera iritsi nahi badugu izango da zer eginik bazterretan. Galtzak bete lan, hemen ere.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Bi arloak dira aplikagarri gure herriari, Azpeitiari, begira. Zer esanik ez lan-mundua, neurri handian (erabat esatea gehiegizkoa litzateke, egin baitira ekimenak hainbat lantokitan) euskaratik urrun baitabil. Udalaren Euskara Patronatoak badu arlo honetan zer eginik: lantegiekin harremanetan jarri, beste herri batzuetan egin diren esperientzia eta ekimenen berri eman, kooperatiba mugimenduaren bidez herrian ditugun kooperatibetan eragiten saiatu (lehen begirada batean, sozietate anonimoetan muturra sartzea baino errazago dirudielako), gauza bera aurrezki kutxekin (banketxe pribatuek baino joera baikorragoa izan dutelako beti euskararekiko)...

Badakigu gizartean amaraun sare bat bezala dela: denok elkarlotuak gaude. Arlo batean eragiteak beste arlo batzuetara zabaltzen du mugimendua. Baina non edo

nondik hasi beharra dago, ezin baitzaio arlo guztiei batera heldu. Horregatik kooperatibekin eta aurrezki kutxeekin hastea, halako *masa kritiko* edo gutxieneko bat sortzeko eta gero hauek eragile biderkatzaile izan daitezen besteentzat.

Herritarrengandik hurbilen dagoen lan-esparru batean pausuak ematen hasia da jadanik Azpeitiko Udala, Euskara Patronatoaren bidez: merkataritza munduan, hain zuzen ere. Orain bizpahiru urte egin ziren lehenengo harremanak eta lehenengo haziak jarri direla esan behar da: dendetako materiala, inprimakiak eta formularioak euskaraz jartzeko laguntza eman zaio Patronatutik (itzuliz, beraiekin inprimaki berriak sortuz...) eta 25-30 orduko ikastaroak eman ere bai. Gainera, sektore honek bere kabuz ere egin izan ditu aurrez euskararen aldeko ekimenak, eta ahal duen neurrian hizkuntza-paisajea eta zenbait txartel, iragarki eta abar euskaratu (zenbaitetan euskara hutsean jarri ere) baina Euskara Patronatoaren laguntzarekin jende gehiago animatu da pauso hori ematera. Izan ere, neurri handi-handi batean euskalduna da sektorea, dendarien artean-eta euskaldunzahar ugari baitago (nahiz eta kopuru handian alfabetatu gabeak izan). Hala ere, norbera alfabetatu gabea izan arren, euren seme-alabak ikastolan ibilitakoak dira (edo, Azpeitian, beste edozein eskolatan ere, denak D ereduan ari baitira) eta haien bidez-edo, bilatu dute zenbait gauza, maila xumean bada ere, euskaraz jartzeko modua. Orain, jakina, Euskara Patronatoari maila altuagoko gauzak eskatzen dizkiote, urrats bat aurrerago egiteko.

Hezkuntza arloari dagokionez, aitortu behar dugu Azpeitian dugun egoera oso berezia dela, herriko ikastetxe guztiek D ereduan dihardute eta. Gainera, eskolatik kanpo ere bere bizia euskaraz egiten jarraitzeko oztoporik ez du eskolumeak, herritarren %85etik gora euskalduna baita. Beraz, alde horretatik ez dago eten handiegirik, nahiz eta %10en bat badagoen erdalduna eta horrek ere eragina sortzen duen, txikia bada ere.

Azpeitian ahaleginak beste alde batetik egin behar dira. Batetik, materialen kalitatean eragin behar da, eta horretan ere saiatzen ari dira ikastetxeak, euren elkarten bidez (Ikastolen federazioa eta abar). Bestetik, Zalbidek zioen bezala, irakasle-andereñoek ere bere ahalegintxoak egin behar dute euskara jasoan eta erregistroetan bikain aritzeko, eta alde horretatik ere ikastetxeek (eta zehatzago, irakasle-jendea) ari da erreziklajean edo gaitze-lanetan. Nik neure baitan ikusten dudan arazorik larrietakoa Zalbidek dioen ikasleen euskara-erregistroena da. Eskolak bere arloari dagokion euskara irakasten du, hots, ezagupenak-eta hizkuntza jakin batean, euskaraz gure kasuan, jasotzeko eta zabaltzeko behar den euskara, baina ez du

astirik sentimenduen, pertsonen barne-bizitzaren, pertsona arteko harremanen berri emateko behar den hizkuntza erregistro hori irakasteko. Hori, garai batean, etxetik transmititzen zen, eta orain ere hala izan behar luke, eta ez dago gainera hori hala egiteko zailtasun nabarmenagirik, ikasleen gurasorik gehienak euskaldunzaharrak baitira eta, alfabetatu gabe egon arren, euskara aberatsagoa baitarabilte, zehatzagoa eta zoliagoa. Baina garai batean (ez dakit oraindik ere hala gertatzen den) gurasoen artean halako beldur edo uzkurtze bat somatu izan dut; alegia, *"guk ez dakigu euskaraz"*, *"oraingo euskara berri hori ez dugu ulertzen"* eta antzekoak entzun izan dira. Eta gurasoek, bere burua erabat gutxietsirik, eskolaren bizkar bota zuten etxean egiten zen transmisioa ere burutzearen zeregina.

Bestalde, gazteek euren artean erabiltzen duten mintzamoldearen pobrezia ere ikusten dut. Orain arte, esate baterako, hitanoa ongi erabili izan da Azpeitian, mutilari *toka* eta neskari *noka*, generoaren arabera bakoitzari dagokion aditz-forma ongi bereiziz. Ba, azken aldi honetan neskei ere mutilei dagozkien hitano formekin hitz egiten hasi dira gure herriko gaztetxoak. Ez dakit egoera hau oso zabaldua den ala gutxi batzuren arazoa, baina larunbat gauetan kalera irten eta gaztetxoak (eta ez hain gaztetxoak, jada) hika mintzatzen entzuten ditudanean belarriko mina ematen didatela aitortu behar. Eta okerrena da haien gurasoek oso ondo egiten dutela hika! Non arraio desbideratu da ongi zetorren adarra?

Aipatu berri dudana arazoaz gain, bada beste bat ere kezkatzen nauena: hizkuntzaren pobrezia. Badakit hizkuntza guztietan arazo beretsuekin dabiltzala ematen duela, baina horrek ez nau hobeto sentiarazten. Esan nahi dudana da gauzak izendatzerakoan-eta egundoko pobrezia semantikoa ikusten dudala, klitxe edo hitz jakin batzuk erabiltzen dituztela denerako. Esate baterako, gaur egungo gaztetxoentzat dena da *"mundiala"*: neska edo mutil hori mundiala da edo mundiala dago, pelikula mundiala ikusi dute, futbol-partida mundiala jokatu dute... Ahaztu egin zaie polita, erakargarria, bikaina, zoragarria, ederra, sakona, mamitsua eta antzeko adjektiboak badaudela gauzak kalifikatzeko. Beharbada eskolan ikusten/entzuten dituztelako eta eskolakoak ez duelako kalerako balio? Eta gazteleratik zuzenean hartutako *hi, tio* (mutil zein neskentzat balio duena), *flipaute natxeok, hau dek muermue* eta antzeko esamoldeak Hau da, gazteek euren sentzazio eta emozioen berri emateko erabiltzen duten hizkuntza ez da euskaratik sortua, gazteleratik hartu eta "euskaratua" baizik. Arlo horretan euskararen transmisiorik ez da gertatu.

Beraz, eta hezkuntza euskaraz ematen bada ere, badugu arlo honetan zer eginik Azpeitian, besteren artean Euskara Patronatoak. Hemendik kanpo, beste herriren batean edo beste erakunderen batek, arlo hau aztertzeko zerbait egin duen ikusi eta, ezer ez baldin badago egina, *terra incognita* horretan aurrera egiteko hausnarketa bat egin, arazoarekin zerikusia duten erakunde eta taldeekin harremanetan jarri (ikastetxe, norbanako, aditu) eta aurrera jo, geldirik egotea ez baita, kasu honetan, biderik egokiena.

17

Hamazazpigarren ikasgaia:

Hizkuntza Normalkuntzarako Plangintza Estrategikoa

Aurreko ikasgai batzuk herri-administrazioetatik egin daitekeena eta egiten ari dena aztertu eta lantzeko izan baldin badira, oraingo hau herritarrengandik eta gizartearen sektore batzuetatik sortutako ekimen eta planei buruzkoa izan da. Bi zati nagusi ditu, aurrenekoa "*Bai Euskarari akordioaren plan estrategikoa*", Joxe Jabier Iñigoren eskutik; eta, bigarrena berriz, "*Teknikarien eta gizartearen ekimenak euskararen sustapenerako*", Imanol Esnaolaren gidaritzapean.

1.

Joxe Jabier Iñigok Kontseiluaren sorrera azaltzen digu lehendabizi, *Euskararen Unibertsoa* mugimenduaren baitatik, *Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua* izenarekin, 1996an. Euskarari buruzko hausnarketa egin zen eta hainbat punturen inguruko lehen diagnosi bat: euskararen normalizazio prozesua nahi baino askoz polikiago doala, instituzioen eta alderdi politikoen aldetik ez dela behar den adinako inplikaziorik ikusten, euskalgintza sakabanatuta dagoela eta estrategia bateratu eta eraginkorrik gabe, euskaldunok ez daukagula gizartean dagokigun lekua eta beharko genukeen eragite ahalmena, euskararen aldeko diskurtsoa eraginkortasunik gabea dela eta nabarmen berritu beharra dagoela, eta euskalgintzak egoera oso kezkarritzat jotzen duen bitartean, gizartean nagusi den iritzia oso bestelakoa dela: euskararen berreskurapena ondo doala. Puntu hauek izan ziren bilera hartan eztabaidatu eta laburpen gisa atera zirenak.

1997ko martxoan Jardunaldi batzuk egin ziren, 1996tik eztabaidatzen ari ziren puntuen inguruan. Ordurarte norbanako mugimendua zena, elkartearen bilgune bihurtu zen eta 1997ko abenduaren 6an *Kontseilua* izenarekin sortu zen. Une honetan zuzenean 52 elkarte daude Kontseiluan sartuak. Lanerako behar den dirua bazkideek ordaintzen dituzten kuoten bidez ateratzen da. Euskararentzat ordu beteko lana izenarekin ere egin zen hasieran diru-bilketa bat.

1997tik 1998ra estrategia jakin eta bateratu bat lortzen saiatu zen Kontseilua, kudeaketa plana eztabaidatuz eta jarraitu beharreko estrategiari buruzko gogoeta

eginez. Ildo nagusiak dira gizarteko indarren eragitea, instituzio eta alderdiengan eragitea eta bere barnean ere eragitea, hots, euskalgintzako erakunde sozialengan.

1998ko lehen hilabeteetan jada abiatzen ari zen gerora "Bai Euskarari Akordioa" izenaz ezagutuko genuena. Gizarteko zenbait eragilerengan kontzientzia piztu eta akordioaren aldeko atxikimenduak lortzea zen helburua, gero zabaltzen joateko. Haserako hiru taldeak Arrasateko MCC, ELA sindikatua eta Athletic futbol taldea izan ziren, bakoitza bere esparruan izenik handienekoak zirelako. Gero beste elkarte eta erakunde batzuetara zabaltzen joan zen proiektua eta 1998ko abenduaren 26an Euskal Herriko bost futbol-estadio bete ziren (hegoaldeko lau probintzietan bana eta iparraldean beste bat). Abenduaren 23an, UNESCOren itzalpean Bai Euskarari Akordioa sinatu zen Iruñean. Kontseiluaren Akordio horretara Euskal Herriko gizarteko entitate ugari atxiki ziren: unibertsitateak, egunkariak, aldizkariak, irriatiak, kirol talde eta federazioak, finantza entitateak, kultur taldeak, kooperatiba eta enpresak...

Ondoren, 1998ko abendutik 1999ko maiatza bitartean Plan Estrategikoa diseinatzeko metodologia zehaztu zuen, LKS etxearen eskutik, Hegoalderako zein Iparralderako. Eta 1999ko ekainetik aurrera, Plan Estrategikoa diseinatzeari ekin zion. Instituzioekin izan beharreko elkarlana ere azpimarratu zen.

Geroago, Bai Euskarari Akordioa Herrietan proiektuaren urratsak garatzeari ere ekin zion, 1999ko urtarrilaren 16an Berriozarren egin zen batzar baten ondoren. Euskalgintzak eta euskararen gizarte erakundeek datozen urteetan izan beharreko lekua eta zeregina aztertzeari ere ekin zion. 23 lantalde antolatu ziren Hego Euskal Herrian, horien artean unibertsitatea, lehen mailako hezkuntza, prentsa, irratia, finantza eta aseguruak, nekazaritza, kultura, lan-mundua... Iparraldean, berriz, hamar taldetara elkartu ziren eragileak.

Jarraian hainbat bilera egin ziren: Diagnostika egiteko, AMIA matrizea erabiliz (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak), Helburuak finkatzeko, Konpromiso proposamenak finkatzeko... eta ondoren konpromisoak hartzeko faseari ekin zitzaion. Horretarako komunikazio plana, gizarte eragileen artean plan estrategikoaren sozializazioa, alderdi eta sindikatuarekin egindako lana, herrietako euskalgintzaren lana, euskaldungoa aktibatzeke lana eta beste hainbat ekintza burutu ziren.

Bestalde, maila honetako plan bat martxan jartzeko nahitaezkoa zen instituzioekin harremanak izatea. Nafarroan, azken urteotako egoeraren ondorioz, hango instituzioek ez zuten parte hartu. Iparraldean, berriz, ez dago instituzio propio bat, baina Euskal Kultur Erakundeak eta Euskal Konfederazioak hartu dute parte. EAEko instituzioekin gorabeherak gertatu direla dio Joxe Jabier Iñigok.

Konpromiso prozesuaren hedapenaren baitan, euskararen alde lanean dihardutenentzat hainbat ezaugarri prestatuak ditu Kontseiluak, bakoitza dagoen maila edo urratsaren arabera: "Bai Euskarari Ziurtagiria: Bidean", "Bai Euskarari Ziurtagiria: Guk zerbitzua euskaraz" eta "Bai Euskarari Ziurtagiria: Guk zerbitzua eta lana euskaraz".

Gero, Bai Euskarari akordioa herrietara zabaltzeko unea ere etorri zela dio. Horrela, hamar herri hartu ziren esperientzia pilotuak egiteko, tamaina guztietakoak eta egoera soziolinguistiko anitzetakoak, gero horietako esperientzia baliatuz beste batzuetara hedatzeko.

Bere zatiari amaiera emateko, azken hausnarketa gisa, Joxe Jabier Iñigok zenbait puntu aipatzen ditu etorkizunari begira kontuan izan beharrekoak: eraginkortasun handiagoko hizkuntz politikak behar direla, arriskuak hartuz eta tinkotasunez jokatzuz, legeek euskararen alde dituzten atalak betez eta betearaziz; euskalgintza bera izatea prozesu eraldatzailearen motor, administrazioak lidergoa hartuko duen edota alderdi politiko abertzaleak batasun berri batera iritsiko diren zain egon gabe.

2.

Bigarren atala, berriz, Imanol Esnaolarena da eta "*Teknikarien eta gizartearen ekimenak euskararen sustapenerako*" du izena. Bertan euskararen alde gizartearen baitan sortu den mugimenduaren historia egiten du: Pizkunde garaiko mugimenduak, Lore-jokoak, gerra aurretik EAJ-PNVren baitatik egin zen lana, frankismoaren garaian gertatu zen egoera, gerra ondorengo lanak, Frankoren ondorengo egoera. Ondoren, EKB erakundearen sorrera eta lana: nondik sortu zen, zein helbururekin..., Txepetx-en "*Un futuro para nuestro pasado*" lanak eragin zuen hausnarketa, Fishman-en RLS eredu teorikoaren ekarpenak eta Euskararen Unibertsoa ekimenaren berri ematen digu.

Ondoren, herrietan euskalgintzak izan duen zeregina aipatzen du, esparru hori jotzen duelako euskaltzale gehienek lan-esparru gisa, eta euskaltzaletasun hori gauzatu den atal baten bidetik jotzen du: Euskal Herrian Euskaraz, Euskara Elkarteak... eta hauen arteko esparru banaketa edota lanen solapamendua.

Herrietan hainbat agente eragile daudela dio Esnaolak: herriko euskara elkarteak, udalaren euskara zerbitzua, ikastetxeak, euskaltegiak, euskarak bizi duen egoera agerian jartzeko lanean dihardutenak (EHE, Euskalgintza bilguneak)... eta, bakoitzak bere egitekoa zehaztu behar duen arren, berak ildo eta zeregin batzuk ematen dizkio bakoitzari eta eragileen artean koordinazioa egon behar duela dio. Herri mailako ekimenak dituen potentzialitateak eta mugak zehazten ditu, esanaz udalerrri mailan aritzeak mikointerbentzioak egiteko aukera ematen duela, hurbiletik eragin dezakegula, eragileak ere kemen handiz lotzen zaizkiola lanari. Hutsuneak ere ikusten dizkio, ordea: planifikaziorik eza, formazio eza, baliabide urriak, "ahal dena" egiten aritzea...

Iruzkina

Bai Euskarari Akordioaren Plan Estrategikoa (BEAPE) zer den adierazten du Joxe Jabier Iñigok bere atalean. Nondik sortu zen, nola, zein diren partaideak, zein helburuak, nola egin den hedapena, konpromiso prozesua, eragileen partaidetza... Euskararen normalizazioa lortzeko euskalgintzaren sektore batetik sortutako ekimena, egundoko lana dago horren atzetik eta gizarteko arlo asko eta ezberdinen apoioa lortu du (kirol talde, kultura, enpresa, unibertsitate...). Gauza bat du ona: Euskal Herri osorako pentsatua dela: EAE, Nafarroa eta Iparraldea. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak tajututako EBPN planak hori du oztoporik handiena, EAEko probintzietarako izatea. Baina bien helburuak berberak dira.

Denok ari gara euskararen alde lanean, batzuek goitik eta besteak behetik. Badakigu administrazioetik datorrenak zenbaitetan abiadura mantsoagoa duela, makalago dabilela eta herrietako elkarteetatik bultzatutakoak, berriz, abiadura handiagoa izan dezakeela. Makalegi ibiltzea ez da ona, baina azkarregi ibiltzeak ere baditu bere eragozpenak. Administrazioaren mantsotasunak gauzak ondo lotu eta hartzen diren erabakiak atzerabiderik gabeak izatea du helburu, nire ustez. Baliabideak-eta poliki baina gelditu gabe, ondo lotzen joan. "*Bedeinkazio*" guztiakin nahi dute urratsak ematea. Gainera, gure herriak bizi duen egoera soziopolitikoak horretara behartzen

du, nahitaez, denak ez baitira euskararen aldeko eragile politikoen artean ere. Herritarrengandik sortutako erakundeek, berriz, ez dituzte ofizialek dituzten adina oztopo edo lotura; askeagoak izan daitezke euren jardunean, kontuak ematerakoan (nahiz eta horrek ez duen esan nahi arduragabekeria erortzen direnik). Baina baliabideak lortzerakoan arazoak izan ditzakete, ongi funtzionatu eta ekimen interesgarriak egiteko azpiegitura eta laguntzak beharrezko baitira.

Bi plan ditugu euskararen alde gizartearen aurrean. Esan bezala, helburu berak dituzte eta plangintza estrategikoa burutzearen aldetik ere badituzte antzekotasunak, oker ez banago etxe berak egin (edo koordinatu, ez dakit) baitzituen bi planak. Ez dakit zer gertatzen den Euskal Herrian, baina sarri askotan ekimenak binaka etortzen zaizkigu, "bikiak" sarri erditzen dira gure gizartean. Horrela, jendearen borondatea ere bi aukeraren aurrean jartzen da, eta sarritan bataren edo bestearen aldeko hautua egin beharrean. Halako bi plan aurrean izanda, egokiena elkarlana eta koordinazioa bultzatzea izango litzateke. Baina beldur naiz berehala gidaritza nork eman borrokatzen hasiko ginatekeela.

Nafarroako erakundeek ez zutela planean sartu nahi izan dio Joxe Jabier Iñigok.

Tamalgarria da komunitate horretan euskararen aurka egiten ari diren erasoak, inolako hizkuntzak merezi ez duena. Hizkuntzak komunikatzeko tresna soil bat izan behar du, eta kolore politiko guztien gainetik egon. Zoritxarrez, euskararen kasuan hori ezinezko dela dirudi. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako HPSrekin ere tirabiraren batzuk izan direla dio. 1996 eta 1997an eman zitzaiola Euskararen Unibertsoaren asmoen berri, zertan ari zen eta zein ziren bere helburuak, plan instituzionalaren eta plan sozialaren beharrezkotasunaz, elkarren arteko autonomiaz eta ezmenpekotasunaz, eta bien arteko uztarketaren garrantziaz. *"Kanpainaren arrakasta soziala hasi zenean hasi ziren arazoak eta zangotrabatzeak ere, ordea, 1998ko abenduaren hasieran bertan, ez lehenago eta ez beranduago. Hain zuzen ere, Kontseiluaren ustez, gizarte sektore eta herritarran mobilizazio gaitasun handi hori erakutsi izana da instituzio batzuekin sortu izan den harreman korapilatsuaren kausa. Euskararen Unibertsoa eta Kontseilua eragin sozial eskaseko mugimenduak ziren artean ez zen arazorik izan hasieratik gaurdaino bitartean oinarri-oinarrian izan ditugun planteamenduekin. Kontrolatzen ez zen mugimenduaren indarrak izutu egin zituen batzuk, ordea."* dio Iñigok.

Gauzak konpontzeko Eusko Jaurlaritzaren eta Kontseiluaren artean 1999ko martxoan hitzarmen bat sinatu zela ere esaten du, lau punturen inguruan: bi planen arteko

osagarritasuna eta alde bien arteko lankidetzaz bermatzea; Kontseiluaren aldetik EBPNren garapena bultzatzeko konpromisoa; Plan estrategikoan parte hartzen ari ziren gizarte eragileei bakoitzaren esparruaz EBPNk zioena bidaltzea eta gizarte eragileen ekarpenekin EBPN aberastea. Elkarrekin egin zituzten bileretan, ordea, saio gutxi eta jarrera pasiboa izan omen zuen HPSk, Kontseiluak zer egiten zuen ikustera mugatu omen zen, Iñigoren esanetan. Oso hitz gogorak iruditzen zaizkit euskararen alde lanean diharduen erakunde batek beste bati leporatzeko. Gure artean maiz gertatzen den lehiakortasun gaizki ulertua eta "nor nagusi" burutazioak ez al gaitu nahastuko?

Lehenago esan dudan bezala, EAerako bada jadanik plangintza estrategiko bat, Eusko Jaurlaritzaren bidez tajutua, eta udalek bete beharrekoa, legeko xedapen edo agindua delako. Nafarroa eta Iparraldea plangintza horretatik kanpo geratzen dira, zoritxarrez, eta hor hedatu dezake Kontseiluak bere BEAPE plana, lurralde horietan hedatua batago. Bi aldetatik lan eginez, arlo guztietara lan osagarriaren bidez iritsiz, euskarak behar duena lortu ahal izango dugu: esparru guztietako normalizazioa.

Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna

Interesgarria da euskararentzat plangintza estrategiko bat martxan jartzea eta Azpeitian ere jarriko da martxan. Baina Joxe Jabier Iñigok bere ikasgaiaren zeharka bada ere dioen bezala, Azpeitian ez da BEAPE jarriko martxan, Eusko Jaurlaritzaren EBPN baizik.

Azpeitian gauza bitxia gertatu zen. Hasera batean, herriko euskalgintzako hainbat sektoreen eskutik, zenbait bilera egin ziren eta Kontseiluaren plana herrira ekartzeko jostioak egin. Udalarekin ere egin ziren hiruzpalau bilera eta, harremanak lotzen ari zirela, Udalak Eusko Jaurlaritza egiten ari zen plan baten berri izan zuen, EBPNrena hain zuzen ere, eta herrietara zabaltzen ari zela. Ordura arte, euskalgintzako taldean ere inork ez zekien plan horren berri, edo ez zuen ezer esan behintzat. Udalak, orduan, EBPNren aldeko apustua egin zuen eta jarrera honen ondorioz euskalgintzako taldearekin hainbat tirabira gertatu ziren. Kontua da euskararen aldeko plan bat herrian martxan jartzeko modua badagoela, Jaurlaritzak egindakoa kasu honetan, erabat baliagarria dena euskararen normalizaziorako. Pozgarria izan behar luke denontzat geuk geure buruari emandako gobernu batek geure hizkuntza normalizatzeko plana egin duela ikustea eta burubelarri onartu behar genuke,

euskara normalizatzeko oso egokia baita, sakona eta eginbeharrez betea. Gainera, horren antolamenduan jaso dagoela gizarteko eragileen partaidetza, planak bakoitzari esleitzen dizkion ardura eta zereginak eztabaidatu eta adosterakoan. Beraz, euskalgintzako sektoreek ere izango dute zer esana eta planari iradokizunak eta ekarpenak egiteko aukera izango da. Halaxe adierazi zuen Euskara Patronatoko teknikariak bilera batean. Gizartea hainbat sektoretan banatzen da (lan-mundua, hezkuntza, kirol-mundua, kultura...) eta gero horietan azpisektoreak egin beharko dira, komenigarri ikusten bada. Eta sektore guztiei aurkeztuko zaie plana eta sektore bakoitzaren eginbeharra. Beraz, hortik izango da bide partaidetza eta lankidetzarako. Plan bat edo bestea izan, euskararen normalizazioaren alde egin dezagun denok.

Laburbiltzeko

Amaiera gisa

Horra, beraz, Hiznet-en amaierako lana. Hamabost ikasgai hartu nituen, 20 kredituak betetzeko, eta bakoitzaren laburpena egin dut, gaiaren iruzkina eta, ahal baldin bazen, gure herrirako ikasgai bakoitzak izan zezakeen erabilgarritasuna eta aprobetxamenduaren gaineko hausnarketa bat egiten ere saiatu naiz.

Hizkuntza gutxituei eta horren barruan euskararen egoerari begirada zabala eta osotua emateko asmoz sortu zen ikastaroa, eta nire ustez ongi lortu du. Ikasgai batzuek arlo teorikotik begiratu diote hizkuntzari eta hor izan ditugu nazioartean aditu diren teorikoen ekarpenak gure eskura. Soziolinguistikaren –zientzia orokor gisa hartuta– funts teorikoak azaldu dira lehenengo ikastuniteetan: ez dira zehazki euskarari buruzko hausnarketak izan, baina euskarari ere aplikatu dakizkiokeenak izan dira, “Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak” edo “Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko” ikasgaiak, esate baterako; hor azaldutako teoria eta kontzeptuak ezinbestekoak ziren ondoren zetozen gainontzeko ikasgaiak ongi ulertzeko, etengabe egiten baitzitzaien erreferentzia kontzeptu orokor eta unibertsal horiei.

Sarrera orokor honen ondoren beste hainbat ikasgai teoriko gehiago etorri dira, bain jada alderdi zehatzago eta konkrituagoak lantzerantz bideratuak: egoera soziolinguistikoaren diagnosirako hurbilpena, “Ikerketa soziologikorako metodologiak eta teknikak” eta “Gizarte-sareen metodologia” ikasgaien eskutik. , “Hizkuntza gutxituen lege estatusa”.

Euskararen korpusa eta estatusa aztertzekeo gaiak etorri dira ondoren. Hartarako pentsatuak zeuden “Hizkuntza gutxituen lege-estatusa”, “Iritzi publikoa, komunikazioa eta euskara”, “Euskal Herriko hizkuntza egoera: statusa”, “Euskalgintzaren nondik norakoak” eta “Euskara eta teknologia berriak”. Hauen bidez, euskarak komunikabideetan, lege-mailan, soziolinguistikoki... zer nolako egoera duen ikusteko aukera izan dugu. Baita herri xehearen baitatik sortutako hainbat ekimen eta lanen berri izan ere. Horrez gain, konturatu gabe baina arrapaladan datozkigun informatika eta teknologia berriei ere erreparatu diegu eta horiek ere euskararentzat irabaztea ezinbesteko dela jakin ere bai.

Ondoren, praktikarekin lotutako ikasgai zenbait etorri zaigu. Batetik, euskarari bultzada emateko behar-beharrezkoak zaizkigun hizkuntza-plangintzarako oinarriak ikusteko parada izan dugu., "Hizkuntza-adierazle sistemak" eta "Diagnosirako egungo garapen teknikoak" ikasgaien bidez, euskararentzat plangintzak egiterakoan kontuan izan beharreko funtsak jakiteko.

Bestalde, hizkuntza normalkuntzarako saioen berri ere izan dugu. Bai administrazioak berak, barrura begira, antolatu eta martxan jartzen ari denak, bai herritarrei begira antolatu dituenak edo antolatzekotan dabilenak, lan mundua alde batera utzi gabe. Hartara bideratuak izan dira "Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra", "Normalkuntza saioak administrazio publikoan", "Esparruz esparruko mikroplangintzak" edota "Hizkuntza normalkuntzarako plangintza estrategikoa". Hala, gaur egun hainbestetan entzuten ditugun planak, normalkuntza saioak, plangintza estrategikoak eta abar zer diren eta nola egiten diren jakin ahal izan dugu.

Gai asko, gai aberats eta garrantzitsuak, gure hizkuntzaren egoera ezagutu eta normalizazio bidean jartzeko zer aukera dauden ikusi, zer egiten ari diren jakin eta zein bidetatik jo daitekeen ikusteko, munduan barrena hizkuntza handiago edo txikiagoek egoera berezietan (ukipen egoerak, diglosiak, zapalkuntza linguistikoak...) daudenetan egin dutenaren berri izan eta, ahal den neurriak, geure egin eta aplikatzeko.

Agian ikasgai batzuk zailagoak izan dira, hausnarketa teorikoak zirelako eta kontzeptu asko argitu behar zirelako, gero ur handiagoetara sartu ahal izateko. Ugaria baita soziolinguistikaren esparru hau eta teorizazio eta lan asko egin baitira hizkuntzen arteko harremanek eta gatazkek sortzen dituzten egoerak aztertu eta esplikatzen saiatzeko. Beste batzuk praktikoagoak edo, nahi bada, eguneroko lanari lotuagoak, kasu praktikoak edota hizkuntza neurzeko eta behatzeko Euskal Herrian bertan sortutako (edo kanpotik ekarri eta egokitutako) aplikazioak azaltzen dituztenak. Edo euskararen berri izateko egin izan diren azterketa eta hausnarketen daturik esanguratsuenak aurkezten zituztenak (gaztetxoek euskararekiko duten jarrera...). Haietan ikusitakoa bakoitzak bere herriari begirako hausnarketa egiteko baliagarria izan daiteke.

Laburbilduz, Ikastaro trinkoa izan da, etengabeko lana eskatzen zuena. Uste baino azkarrago iristen zen ikastunitate berria posta elektronikoko kutxatilara. Lan jarraia egin behar, beraz. Baina begiak errealitate askotara irekitzen lagundu didana,

hizkuntzen mundua –eta zer esanik ez hizkuntza gutxituen mundua– arlo eta esparru ugaritakoa baita eta bide askotatik jorra daiteke gure hizkuntza denok nahi dugun normaltasun egoerara eramateko.

Aurkibidea

Aurkibidea

Sarrera	02
1. ikasgaia: Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak	04
Laburpena	05
Iruzkina	11
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	14
3.- Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko	16
Laburpena	17
Iruzkina	20
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	24
4.- Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak	30
Laburpena	31
Iruzkina	35
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	37
5.- Gizarte-sareen metodologia	38
Laburpena	39
Iruzkina	42
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	44
6.- Hizkuntza gutxituen lege estatusa	46
Laburpena	47
Iruzkina	49
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	53
7.- Iritzi publikoa, komunikazioa eta euskara	54
Laburpena	55
Iruzkina	60
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	63
8.- Euskal Herriko hizkuntza egoera: statusa	66
Laburpena	67
Iruzkina	69
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	71
9.- Euskalgintzaren nondik norakoak	73
Laburpena	74

Iruzkina	75
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	76
10.- Euskara eta teknologia berriak	79
Laburpena	80
Iruzkina	83
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	84
12.- Hizkuntza-adierazle sistemak	86
Laburpena	87
Iruzkina	89
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	90
13.- Diagnosirako egungo garapen teknikoak	93
Laburpena	94
Iruzkina	96
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	97
14.- Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra	106
Laburpena	107
Iruzkina	109
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	112
15.- Normalkuntza saioak administrazio publikoan	114
Laburpena	116
Iruzkina	118
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	119
16.- Esparruz esparruko mikroplangintzak	121
Laburpena	122
Iruzkina	126
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	128
17.- Hizkuntza normalkuntzarako plangintza estrategikoa	132
Laburpena	134
Iruzkina	136
Gure herrirako izan dezakeen aplikagarritasuna	138
Laburbiltzeko	140
Aurkibidea	144